

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

2003. urteko oroitza

Vitoria-Gasteiz, 2004ko uztaila

Aurkibidea

I.	Sarrera gisakoa	2
II.	Euskararen Aholku Batzordea eta Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea.....	6
III.	Euskal Herriko bilakaera soziolinguistikoa (1991-2001).....	12
IV.	Euskara Biziberritzeko diru-baliabideak herri-administrazioetan	17
V.	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapena toki-entitateetan	21
VI.	Euskara ondorengoetaratzea	27
	1. Euskalduntze-alfabetatzea	28
	2. Irakaskuntza	34
VII.	Euskararen erabilera.....	47
	1. Herri Administrazioak	48
	2. Informazioaren eta Komunikazioaren teknologia berriak eta internet	71
	3. Esparru sozioekonomikoa	77
	4. Aisia eta kirola	80
VIII.	Euskararen elikadura.....	82
	1. Corpus plangintza	83
	2. Komunikabideak	93
	3. Kulturgintza, liburugintza eta literaturgintza.....	98
IX.	Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzak	102
X.	Kanpoko proiektzioa	108
XI.	Lege garapena	112

I. Sarrera gisakoa

Hizkuntza Politikaren helburuak eta oinarrizko printzipioak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2001. urtean legealdi honetarako xedeak eta konpromisoak zehaztu zituen. Horiekin batera, hizkuntza-politikaren alorreko lehentasunak finkatu ziren. Hona hemen, beraz, 2001-2005 legealdirako finkatutako lehentasunak:

- Hizkuntza-politikaren egituratzearen diseinu bateratua egiten jarraitzea, bera baita gizartearen kohesioa eta elkarbizitza lortuz joateko politika estrategikoetariko bat.
- Halaber, Euskararen Aholku Batzordea izango da herri-aginteak, adituak eta gizarte-ekimenaren ordezkariak biltzen jarraitzeko gune nagusia. Hortaz, Jaurlaritzan eta foru-aldundietan EBPN garatzeko bideraturiko egitarauen jarraipen, ebaluazioa eta eguneratzea egiteaz gain, berau udalerriz udalerriz garatzeak izango du lehentasuna, horixe izango baita erakunde desberdinen egitekoak, osagarritasun-irizpidearen arabera antolatzeako marko orokorra.
- Euskara-planak bultzatzea erakunde publiko zein pribatuetan eta iritsitako normalizazio-maila esplizituki aitortu eta aintzatesteko planon gutxieneko helburuak lortzea ziurtatzea. Eusko Jaurlaritzak bere euskara-plana eta menpeko dituen sozietate publikoen euskara-planak garatzea, Eusko Trenbidearekin egin berri den antzeko bidea jarraituz. Hortaz, azken plangintzaldiaren ebaluazioa amaitu ahala, Legebiltzarrean aurkeztuko dira azken urteotako baliospena ez ezik baita hurrengo plangintzaldiari begirako oinarrizko irizpide- eta jardun-lerroak.
- Helduen euskalduntze eta alfabetatzeko ekintza guztiak eta euskara-planak norabide berean jartzea HABEren eskutik, lehentasuna emanez efektu biderkatzaile handieneko gune geografikoei, gizataldeei eta erabilera-eremuei, bai eta etengabeko hobekuntza-egitasmoa ezarriz euskaltegien sare osoan. Pertsona helduei euskara-ikastaro gehiago eskaintzea, ikasleen beharrian espezifikoei egokituak.

Etorkin taldeentzat euskara-ikastaroak diseinatzea, haiek hartu eta gure gizartean integratzeko programa orokorraren barruan, zertarako-eta euskal gizarte gero eta kulturantz, hizkuntzantz eta kohesionatu eta integratuagoa lortzeko helburuan aurrera egiteko.

- Bestalde, teknologia berriei baliatzeke egiten ari garen ahaleginak indartu egingo dira. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak bultzatzea, alde batetik, ahotsaren ezagupen eta sintesia, autoria- eta edizio-erremintak zein itzulpenari laguntzeko tresnak lortzeko; eta bestetik, euskararen azpiegitura publiko nahiz pribatuetako barne- eta kanpo- harremanak hobetzeko.


- Euskal Herriko toponimiaren eta terminologiaren inguruko jarraibideak finkatu eta bateratzea. Hizkuntza-paisaia normalizatzeko plan espezifiko diseinatzea, toponimia eta bide seinaleztapenean eta errotulazioan, zerbitzuen arloan (dendetan, jatetxeetan eta abarretan) eta produktuen etiketan erabilitako hizkuntzaren kalitatea zehazki errespetatuz.
- Euskarazko komunikabideak bideragarriago egiteko egitasmoekin jarraitzea.
- Hizkuntza eta kultura-aniztasuna balio nagusitzat harturik euskararen aldeko sentiberatze-ekintzak antolatzea.
- Hizkuntza-normalkuntzaren alorrean kalitate-estandarrak eta zerbitzuak hobetzeko ekarpen berezia eragiten duten euskararen alorreko gizarte-azpiegiturazko inbertsio-proiektuak sustatzea.
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak lehenetsitako helburuok gauzatzeko egungo giza eta diru-baliabideak ez ezik baita egungo araubidea egokitzea ere, hedabideetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan, kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzean, esparru sozio-ekonomikoan, hobari fiskaletan zein toki-mailako herri-erakundeetan eta Euskal Herrian dagoen Estatuaren administrazioan.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da, hizkuntza-politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarritzko tresna.

EBPNren helburu nagusia **honako hau da**: Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Helburu nagusi hori betetzeko, honako hiru helburu estrategiko hauek daude ezarrita EBPNn:



- Euskara ondorengoetaratzea belaunez belaun eta etenik gabe.
- Euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eramatea eta beste erabilera eremu berezi eta garrantzizkoetara zabaltzea.
- Hizkuntza eroso eta erraz hitz egiteko modukoa izan dadin, liburu, irriati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez elikatzea.

*II. Euskararen Aholku Batzordea eta Herri Aginteak
Koordinatzeko Batzordea*

Euskararen Aholku Batzordea

Labur bada ere, atal berezia eskaini nahi izan zaio Euskararen Aholku Batzordeari, bera baita azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, 29. atalean aurreikusten den bezala, euskararen normalkuntzaren arloan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzeko, bideratzeko eta koordinatzeko elkargunea.

Gogora ditzagun zein diren Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren egitekoak:

- a) Jaurlaritzak eskatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-normalkuntzari buruzko gaiak aztertzea eta ikertzea.
- b) Euskararen erabilerari buruzko xedapenak ondo ezartzeko behar diren neurriak proposatzea Jaurlaritzari eta dagokien erakundeei.
- c) Hizkuntzari loturiko gaietan eskumenik duten herri- aginteen jarduera koordinatua bermatzeko neurriak proposatzea.
- d) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egingo duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren zirriborroari buruzko txostena egitea.
- e) Batzorde-atal Iraunkorrak egingo duen ekintzen urteko oroitza onartzea.
- f) Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak ekintzen urteko oroitza txertatuko du Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenari buruzko ebaluazioa.
- g) Legeek edo erregelamenduek aitortutako beste edozein egiteko.

2003. urtearen hasieran Batzorde-atalek urteko jarduera proposamena osatu eta onartu zuten. Hona hemen Batzorde-atal bakoitzak landutako gaiak:

1. Euskararen Geroratzearen Jarraipenerako Batzorde-atala:

- Euskalduntze-alfabetatzearen etorkizuna
- Hezkuntza ereduaren inguruko azterketa
- EBPN udal mailan eta ikastetxeetako Normalkuntza planak uztartzeko proposamena

2. Euskararen Erabileraren Jarraipenerako Batzorde-atala:

- Arlo sozioekonomikoa lehenestea erabaki zuen batzorde-atalak. Hori horrela, hainbat azterlan egin dira urtean zehar:
 - Euskararen erabilera lan-munduan, 2001eko soziolinguistikako inkestan jasotako emaitzen arabera
 - Euskararen erabilera 100langiletik gorako EAeko enprsetan
 - Euskararen erabilera EAeko saltokietan, jatetxetan eta tabernetan (2004an amaitua)
- EBPNren garapena toki-entitateetan

3. Kulturgintzaren eta Komunikabideen Jarraipenerako Batzorde-atala:

- Euskararen kalitatea
- Euskara Iparraldean
- Kulturaren Euskal Plana



Bestalde, Lege-Garapenerako Batzorde-atalak Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuan horien hizkuntza-eskubideak bermatzeko proposamena egin zuen, gerora 6/2003 Legean, abenduaren 22koan, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarenean jaso direnak.

Batzorde-atal Bereziak:

2003an eratu den Terminologia Batzorde-atal Bereziak hiru bilera egin ditu. Bilera horietan aztertu eta erabaki diren gaien artean hona azpimarragarrienak: Batzorde-atalaren egitekoak, lan-metodologia eta 2003-2005 urteetako jarduketa-plana. Plan horri jarraiki, egiteko hauek lehenetsi dira:

- terminologia-alorrean dauden lehenetsiak finkatzea;
- terminologia-lanean aplikatu beharreko irizpideak finkatzea;
- terminologia-lanean aplikatu beharreko irizpideak argitaratzea eta zabaltzea;
- terminoen ponderazio-markak finkatzea;
- lan-proposamenak (2003-2004-2005);
- terminologia-lanak zabaltzea eta gomendatzea;
- erabiltzaileekiko harremanak eta gomendatutako terminologiaren ebaluazioa.

Toponimiaren Batzorde-atal Bereziak, bestalde, 1999-2003 epealdiaren balantzea egin du eta 2004-2005eko jarduketa-plana onartu du. Balantzean honako atal hauek ebaluatu dira:

- Toponimia-metodologiako eskuliburua
- Terminologia toponimikoaren glosarioa
- Izen geografikoen glosarioa
- Ikastaroak: prestakuntza berezitua
- Euskaltzaindiaren inbentarioa
- Bizkaiko toponimia berrikusi eta zuzentzea
- Toponimia jasotzeko fitxa-eredua sortu eta zabaltzea
- HPSren toponimia-datutegia berrikusi, zuzendu eta eguneratzea
- Bizkaiko toponimiaren koordenatu geografikoak eskuratu eta datu-basean sartzea
- HPSren datutegia Internet bidez zabaltzea
- Toponimia normalizatzeko arauak
- Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateak
- Udalek toponimia-lanetan erabiltzeko aplikazio informatikoa
- Toponimia Batzorde-atal Bereziaren txosten teknikoa

- Izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea
- Aldatutako izen ofizialak zabaltzea
- IGNrekiko lankidetzeta

Bestalde, Batzorde-atal Iraunkorrak zazpi bilera egin ditu 2003. urtean. Horietan aztertu diren gai nagusiak honako hauek izan dira:

- Euskararen Aholku Batzordearen Jarraipenerako Batzorde-atalen osaera.
- EABren Batzorde-atalen lanerako metodologia eta ekintza-planaren zirriborroa.
- Jarraipenerako Batzorde-atalen urteko lan-kronogramen proposamena.
- Euskaldunon Egunkariaren itxiera.
- 2003ko Euskararen Eguna dela eta, Euskararen Aholku Batzordearen Adierazpena.

Azkenik, 2003. urtean bi Osoko Bilkura egin dira. Horietan ondoren aipatzen diren gaiak aztertu dira:

- Euskal Herriko III. Inkesta Soziolinguistikoaren aurkezpena
- Eusko Jaurlaritzak eta Ipar Euskal Herriko herri-aginteek sinatutako protokoloa
- Euskaldunon Egunkariaren itxiera
- Eremu Urriko Hizkuntzen gaineko Europako Ituna Espainiako erreinuan duen ezarpenari buruzko Eusko Jaurlaritzaren txostena.
- Batzorde-atalen jarduketa-planen jarraipena

Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea

2000. urtean egindako Herri-administrazioetan euskara sustatzeko erabiltzen diren giza eta diru-baliabideen azterketak erakutsi zuen, eskueran ditugun bitartekoei ahalik eta etekinik onena ateratzeko, elkarren arteko koordinazioa hobetzeko ahaleginak areagotu beharra zituztela EAEko herri-aginteek.

Esan bezala, giza eta diru-baliabideei ahalik eta etekinik onena ateratzeko erakundeen arteko koordinazioa hobetzea ezinbestekoa da, baina horrek ez du ekarriko datozen urteotarako lehenetsi diren erronka berri nagusiei aurre egiteko behar besteko oinarritzko baliabiderik.

Hori horrela, Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak, aztergai izan ditu Euskal Autonomia Erkidegoko euskara sustatzeko aurrekontu publikoak, 2002ko datuetan oinarrituta. Halaber, ikerketa hori bi urtez behin egitea eta aztertzea erabaki da.

Bestalde, EAEko herri-administrazioen Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plangintzaldiaren ebaluazioak emandako emaitzak eta aurrera begirako proposamenak aztertu eta eztabaidatu ditu.

Azkenik, kontuan izanda euskararen erabilera normalizatzea ez dela erakunde bakoitzean dagoen atal jakin bakar baten egitekoa, administrazioko sail eta atal guztiena baizik, erabaki du 2004an kontratazio-politikan hizkuntza-irizpideak adosteko ponentzia lantzea, erakunde bakoitzak gero horiek inplementatzeko neurriak har ditzan.

*III. Euskal Herriko bilakaera soziolinguistikoa
(1991-2001)*

2003. urtean Euskal Herriko III. Soziolinguistikako Inkesta burutu da. EAEko datuen aurkezpena 2003ko maiatzean egin zen, Donostian, eta lan osoarena 2003ko irailean, Bilbon.


III. Soziolinguistikako Inkestak Euskal Herriaren gaur egungo egoera soziolinguistikoaren azterketa sakona egitea du helburu, ondoko gaiei buruz dagoen informazioa egiaztatzeko:

- hizkuntza-gaitasunaren bilakaera;
- euskararen erabilera etxean, familiatik kanpoko gertuko komunitatean, lanean eta eremurik formalenetan;
- aldi berean, euskararen erabilera sustatzeko hartu beharreko neurriei buruz biztanleen interes eta jarreretan sakontzea;
- familia bidezko transmisioari buruzko diagnosia egitea eta euskaldun berrien analisisa eta hizkuntza-jokabidea aztertzea.

Maila sinkronikoko informazioa emateaz gain, maila diakronikoan azken hamar urteotako hizkuntza-bilakaera jaso da, 1991ko eta 1996ko inkestetako datuekin alderatuz.

Oinarri-oinarrizko informazioa ematen digu, hortaz; Euskal Herriko hizkuntza-politikaren eta bilakaera soziolinguistikoaren adierazle-sistema antolatzeke orduan ezinbesteko diren datuak hain zuzen.

Euskal Herriko egoera soziolinguistikoko aldeak daude lurralde batetik bestera: Nafarroako iparraldea, Ipar Euskal Herriko barnealdea, Gipuzkoa eta Bizkaiko ekialdea dira eremurik euskaldunenak; Araba, Bizkaiko mendebaldea, Iparraldeko kostaldea eta Nafarroako hegoaldea, berriz, erdaldunenak. Euskal Herriko hiriburuak, hau da, Bilbao, Gasteiz, Iruñea eta Baiona (Donostia salbuespena da) ia erabat erdaldunak dira. Badira bai, euskara nagusi den hainbat eta hainbat herri txiki baina Euskal Herriko biztanleriaren gutxiengoa bizi da gune soziolinguistikorik euskaldunenetan eta bertan ere euskarak ez du eguneroko bizimodurako balio-indar erabatekorik, ez behintzat, oro har, gaztelaniak Hego Euskal Herrian eta frantsesak Ipar Euskal Herriko bazterrik gehienetan duten parekorik edo antzekorik.



Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistikako inkesta (2001). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Euskara ofiziala da Euskal Autonomia Erkidego osoan duela hogeitaz geroztik eta legea euskararentzat lagungarria da arlo gehienetan; Nafarroako lur zati batean ere ofiziala da, zertxobait geroztik; baina oraindik ez da ofiziala ez Ipar Euskal Herrian, ezta Nafarroako lur zatirik handienean ere. Hortaz, euskaraz bizitzeko eskubidea aitortzeko, eremu hori irabazteko bide luzea dago egiteko oraindik.

Euskararen erabilera normalizatzeko neurri eraginkorrak hartzearekiko herritarren jarrera ere ez da bera lurralde guztietan, ezta helburu horrekin antolatutako ekintza nahiz elkarten presentzia eta indarra ere. Eguneroko praktikan, euskararen alde zer eta nola egin nahi den aztertze, hiztunak elkarrenganatzeko, pertsuasio moralez edo intelektualez aurrera urratsak egiteko edota presio-bide sendoak eratzeko eta aplikatzeko antolatutako gizarte-indarrek ez dute, ez Nafarroan, ez Ipar Euskal Herrian, Euskal Autonomia Erkidegoan duten besteko adostasun mailarik eta eraginik.

Bestalde, hiztun berriak irabazteko ez ezik goi-mailako gizarte-esparruetan euskararen erabilera zabaltzeko eta indartzeko ere herri-aginteez azken hogeitaz indarrean jarritako politikak ere oso desberdinak izan dira nola eginiko ahaleginari hala iraupenari begiratu gero Euskal Autonomia Erkidegoan, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako Foru Komunitatean.

Hortaz, euskararen balioa eta indarra arras desberdinak dira lurralde batetik bestera: euskara nabarmen egiten ari da gora Euskal Autonomia Erkidegoan; behera, Ipar Euskal Herrian; eta ez gora, ez behera Nafarroako Foru Komunitatean.

Baina desberdintasuna are handiagoa da azken urteotako bilakaerari erreparatuz gero. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, euskararen erabilera gero eta handiagoa da, euskaraz mintzo diren euskaldun zaharrak, pixkanaka bada ere, gehitzen ari direlako eta, batez ere, euskaraz mintzo diren gazte euskaldun berriak, urterik urte, gero eta gehiago ugaritzen ari direlako. Aitzitik, aldi berean, Iparraldean, hiztunen kopurua gutxitzen ari da, euskaldun berriak, izan badiren arren, oso gutxi dira oraindik eta euskaldun zaharrek gero eta gutxiago hitz egiten dute euskaraz (gazteen artean apenas dago euskaraz frantsesez beste edo frantsesez baino gehiago mintzo den euskaldun zaharrik).

Hortaz, euskarak Iparraldean gero eta balio txikiagoa du, gero eta indar gutxiago: familia bidezko euskararen transmisioak huts handiak ditu; euskaraz dakitenak lehen hizkuntza euskara izan zutenak baino gutxiago dira eta euskaraz egiten dutenak dakitenak baino askoz ere gutxiago; gainera, hori guztia gutxi ez balitz, joera horiek, urterik urte, areagotzen ari dira. Laburbilduz, 1966 eta 1985 bitartean jaiotako gazteen artean ohituraz euskaraz hitz egiten dutenak %5etik behera dira, hots, euskararen presentzia hutsaren hurrengoa bilakatzen ari da.

Nafarroako egoera, batez bestean, ez da askoz hobeagoa. Egia esan, Nafarroan, nekez egin daiteke batez bestekoari buruzko irakurketarik. Izan ere, eremu euskaldunak ezer gutxi du ikustekorik eremu mistoarekin zein eremu ez euskaldunarekin. Eremu biotan euskara, pixkanaka-pixkanaka, hiztunak irabazten ari den arren, euskararen erabilera, oraindik, hutsaren hurrengoa da. Hortaz, euskararen erabilera arrotza edo ez ohikoa gertatzen da eguneroko bizitzan.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere gaztelaniaren erabilera da nagusi toki eta erabilera-eremu gehienetan. Alabaina, euskararen ohiko erabilera %15etik gorakoa da eta, egunetik egunera, handitzen ari da. Gurasoak euskaldunak direnean euskararen transmisioa familian bertan ari da bermatzen, eta ez direnean, eskolaren bidez euskalduntzen dira belaunaldi berriak. Beraz, euskaldun zaharren proportzioak ez du behera egin gora baizik, gutxika bada ere. Aldi berean, euskaldun berrien proportzioa etengabe ari da gora eta gora. Hain zuzen ere, horiexek dira, azken urteotan, euskararen erabilerak gora egitea posible egiten ari direnak.

Dena den, oraindik goizegi da, joera hauek etorkizunean kontsolidatu eta sendotuko diren jakiteko, besteak beste, ondorioak, biztanleria osoari begira halakoxeak badira ere, euskaldungoari begira oso bestelakoak direlako: gero eta gehiago dira lehen hizkuntza gaztelania izan duten euskaldunak; gero eta gehiago gaztelaniaz euskaraz baino aiseago, erosoago eta erraztasun handiagoz mintzo direnak; gero eta gehiago, eguneroko bizitzan erdaraz hutsez edota erdaraz euskaraz baino gehiago mintzo diren euskaldunak. Euskarak mendetan zehar iraun du egoera diglosikoan, hitz egiten zekitenak, asko ala gutxi izan, hainbat erabilera-eremutan erabiltzeko inolako aukerarik izan ez arren, beste batzuetan, familian eta lagunartean, batez ere, guztiz

nagusi izanik. Orain, hitz egiten dakitenen kopurua gora egiten ari da eta erabilera ere bai; inoiz erabili izan ez den hainbat esparru ere irabazten ari da; baina ohituraz bere bereak izan dituen hainbat esparrutan nagusi izateari utziz gero zer jazo daitekeen jakitea ez da batere erraza. Azken finean, euskararen erabilerari buruzko gizarte-araua aldatzen den neurrian, nolakoak izango dira onurak eta kalteak etorkizunean?

Laburbilduz, askotariko egoera hori da etorkizuneko urratsak nondik nora egin erakusten diguna. Tokian tokiko lehentasunak finkatzen asmatzean datza, seguruenik, datozen urteotan, euskarak atzera ala aurrera egitea. Hortaz, bi eratakoak dira lurraldez lurraldeko epe motzeko helburuak eta lehentasunak:

Batetik, ahalik eta eperik laburrenean, euskararentzat ahalik eta hiztun oso gehien irabaztea familia bidezko hizkuntza-transmisioaren bidez, eskolan euskara eta euskaraz ikasiz edota heldu aroan euskara ikasteko aukerak eskainiz. Euskal Autonomia Erkidegoan, orain arte, horretara zuzendutako egitasmoak sendotzen jarraitu beharko da. Alabaina, Nafarroan eta Iparraldean erabateko lehentasuna du euskarari, lurralde osoan, ofizialtasuna aitortzeak, besteak beste, euren seme-alabak euskaraz hezi nahi dituzten gurasoei aukera hori bermatzeko lurralde biotako hezkuntza-sistemak euskaldundu ahal izateko urrats sendoak eman ahal izateko. Izan ere, hori gabe ezinezkoa izango da euskararen belaunez belauneko jarraipena bermatzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko hiztun-kopurua erdiestea. Bertako herritarrak euskararen alde irabazteak, beraz, premia larriko izaera du.

Bestetik, euskara eskolan ikasi duten milaka eta milaka euskal hiztunen hizkuntza-gaitasuna sendotzeak ere erabateko lehentasuna du. Euskara, beste hizkuntza guztiak bezalaxe, erabiliz hobetzen den komunikazio-tresna bizia da, eguneroko bizitzarako balio digun komunikazio-tresna. Beraz, eguneroko bizitzan euskararen presentzia aktiboagoa galarazten duten oztopo fisiko eta mentalak gainditzeak besteko garrantzia eta lehentasuna du komunikazio hori erraztu dezaketen aukerak bermatzeko eta areagotzeak, euskarazko produktuak eta zerbitzuak eskura jartzeak eta, egunetik egunera, areagotzeak.

*IV. Euskara Biziberritzeko diru-baliabideak herri-
administrazioetan*

Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak ezarritako irizpideei jarraiki, aztergai izan dira Eusko Jaurlaritzako Kultura, Hezkuntza eta Ogasun sailen, EAEko Foru Aldundien, EAEko hiru hiriburuen 5.000 biztanletik gorako udalerrien (61 guztira) euskara biziberritzeko aurrekontuak.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTU PUBLIKOEN AZTERKETA (2002 urtea eta bilakaera)


Erakundeen aurrekontu propioa eta euskara sustatzekoak

ERAKUNDEA	Aurrekontu propioa		Euskara sustatzeko aurrekontua		% aurrekontu propioarekiko
	Mila Eurotan	%	Mila Eurotan	%	
EUSKO JAURLARITZA	5.971.407	62,8	94.019	72,2	1,57
Kultura saila	177.803		32.326	25,2	0,67
Hezkuntza saila	1.610.893		51.861	40,4	0,87
Ogasun saila	143.452		9.832	7,7	0,16
FORU ALDUNDIAK	1.747.027	18,4	11.836	9,1	0,68
Arabako F.A.	304.650		1.018	0,8	0,33
Bizkaiko F.A.	911.488		6.926	5,4	0,76
Gipuzkoako F.A.	530.889		3.892	3,0	0,73
HIRIBURUAK	758.042	8,0	4.581	3,5	0,60
Gasteizko udala	244.264		1.109	0,9	0,45
Bilboko udala	303.873		1.184	0,9	0,39
Donostiako udala	209.905		2.287	1,8	1,09
UDALAK	1.032.231	10,9	19.817	15,2	1,92
ADMINISTRAZIOA GUZTIRA	9.508.707	100,0	128.467	100,0	1,35

6

Euskara sustatzeko aurrekontua administrazioan guztira 128.467 mila €koa da, erakundeen arteko transferentziak kendu ostean.

Euskara sustatzeko aurrekontuak euskara sustatzeko helburuen arabera (EAE-ko administrazioa)



Bestalde, gastu-kontzeptu gisa honako helburuok hartu dira kontuan: euskalduntze-alfabetatzea, euskararen sustapena, elkarteei dirulaguntzak, literatura eta irakurzaletasuna, komunikabideak, erabilera-planak, bertsolaritza, euskarazko materialgintza, etnokultura, antzerkia eta zinegintza, txosten eta ikerketak, hizkuntza-paisaia eta errotulazioa, beste gastu kontzeptu batzuk, sentiberatzea eta kanpainak, pertsonal-gastuak eta funtzionamendu-gastuak.


Bilakaera aztertzeko, berriz, 2000 eta 2002 urteetako aurrekontu-datuak erabili dira Eusko Jaurlaritza, foru aldundi eta hiriburuen kasuan, eta 1999 eta 2002 urteetakoak 5.000 biztanletik gorako udalen kasuan.

Euskara sustatzeko aurrekontuen (mila €tan) eta aurrekontu propioarekiko ehunekoen bilakaera erakundeka

	2000		2002	
	(mila €)	(%)	(mila €)	(%)
EUSKO JAURLARITZA [1]	85.809	1,53	94.019	1,57
Kultura Saila	36.873	0,66	32.326	0,67
Hezkuntza Saila	44.663	0,80	51.861	0,87
Ogasun Saila (HAEE)	9.682	0,17	9.832	0,16
FORU ALDUNDIAK	10.982	0,73	11.836	0,68
Arabako Foru Aldundia	894	0,31	1.018	0,33
Bizkaiko Foru Aldundia	6.145	0,88	6.926	0,76
Gipuzkoako Foru Aldundia	3.943	0,78	3.892	0,73
HIRIBURUAK	4.854	0,67	4.581	0,60
Gasteizko Udala	1.941	0,78	1.109	0,45
Bilboko Udala	1.006	0,34	1.184	0,39
Donostiako Udala	1.907	1,06	2.287	1,09
UDALAK* (1999 eta 2002)	10.127	1,71	19.817	1,92
ADMINISTRAZIOAK OROTARA	111.772	1,35	128.467	1,35

[1] GUZTIRAKOAn sailen artean mugitutako kopuruak deskontatu egin dira
 [2] EITBri zegokion era, kontabilizatu zen 1997an. Ostera, 2000 eta 2002an ez.

Euskara sustatzeko ehunekoa aurrekontu propioarekiko



Grafikoak erakusten digunez, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, portzentualki eta absolutoetan igoera izan da 2000tik 2002ra. Foru Aldundietan, berriz, aldeak daude, orokorrean hirurak hartua jaitsiera izan da eta hiriburuetan, hirurak hartuta jaitsiera dago, eta igoera ageri da 5.000 biztanletik gorako udaletan.

*V. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapena
toki-entitateetan*

Eusko Legebiltzarrak, 1999ko abenduaren 10ean egindako osoko bilkuran EBPN berresteaz gain, EBPN Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan eta hiri handietan garatzeko oinarrizko irizpideak aztertzeke eskatu zuen:

“Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetak eta hiri handietako udalei eskatzen die gara dezatela euren hizkuntza normalizatzeko plana, nahiz eta hori bideratzeko plan orokor bat egon”. (8. ebazpena)

Hori horrela, Euskararen Aholku Batzordeak 2000ko lan-egitarauan, hiriburuetan ez ezik 5.000 biztanletik gorako udalerrietan ere EBPN garatzeko oinarrizko azterketa eta proposamena egitea hobetsi zuen. Euskararen Aholku Batzordearen erabaki hori betetze-aldera, HPSk, hiriburuetan ez ezik, udaletan ere EBPN garatzeko oinarrizko azterketa egin zuen, eta proposamenak aurkeztu udalen egoera soziolinguistikoa eta tamaina kontuan izanda.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia gidari, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan garatzeko moduko plan xehatuak egin ziren, udalek euskararen erabilera areagotzeko lanetan gida eta erreferentzia egokitua izan zezaten. Lan hori buruturik, Euskararen Aholku Batzordearen Osoko Bilkuran (2001eko martxoaren 27an) aurkeztu eta onartu zen.

Udal eredu guztiak ikusi ostean, euskararen erabilera bultzatzeko zereginetan bi dimentsio bereizten ditugu: barne-dimentsioa eta kanpo-dimentsioa.

Barne-dimentsioak bai 1989ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak bai 1997ko Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen Dekretuak finkatutako helburuak betearaztearekin zerikusia du.

Kanpo-dimentsioari dagokionean, EBPNk urrats garrantzitsua eman du kanpo-dimentsioan egin beharreko lanari koherentzia eman baitio. Honetarako, udalari ereduak proposatu ez ezik eredu bakoitzeko udalek lehenetsi beharko lituzketen helburu eta ekintza zehatzak ere proposatzen ditu.

Udal guztietan, EBPNren helburu estrategikoei jarraituz, helburu nagusiok ageri dira:

- Hitzunek euskara ikastea edota duten gaitasuna sendotzea
- Harreman-sare euskaldunak egituratzen laguntzea euskaraz egiteko erraztasuna sendotzeko
- Euskarazko produktuen eta zerbitzuen gaineko informazio zehatza bideratzea, horien eskaria gero eta handiago izan dadin.

Bestalde, udalaren barrura begirako jarduera gisa, honako funtzio nagusiok bete beharko lirateke:

- Hizkuntza Normalkuntzarako Plana diseinatzea eta betearaztea
- Euskara Zerbitzua eratzea edota sendotzea

Bestalde, Euskara Zerbitzuaren eginkizunetan eta EBPN udalerrian garatzeko lagungarria suerta daiteke, udala eta udalerriko eragile sozialen arteko zubi-lana egin dezakeen egitura: Euskara Batzordea.

Azken finean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren udal-garapenaren bitartez, udaletan euskara biziberritzeko helburuak, esparruak eta programa-mailako lehentasunak eta horien finantzazioa finkatzen joatea da helburua, herri-agintean arteko elkarlana eta koordinazioa areagotzeko konpromiso batzuk ezarriz.

Lanbide horretan laguntzeko, hau da, udalek euren plan estrategikoa taxutu eta urtez urteko kudeaketa-planak egin ditzaten, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, dagokion Foru Aldundiak eta udalak hainbat konpromiso hartzen dituzte. Hona konpromiso horien zenbait ondorio:

1. Udalerriko diagnostikoa esparruz esparru
2. Herri-administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko plana
3. Tokian tokiko Euskararen Aholku Batzordea osatzea
4. Euskara Zerbitzua egokitzea behar berriei, dela barruko dela kanpoko dimentsioaren ikuspegitik
5. Udalerriri egokituriko EBPN, hau da, urtealdi jakin baterako plan estrategikoa
6. Komunikazio-plana
7. Urteko kudeaketa-plana
8. Planaren finantzazioa
9. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

EBPN ONARTU DUTEN UDALAK (2004-07)

- ANOETA
- ARRIETA
- ARRIGORRIAGA
- AZPEITIA
- BALMASEDA
- BARRIKA
- BASAURI
- BERANGO
- BEASAIN
- BERGARA
- BERRIZ
- BERMEO
- EA
- ETXEBARRI D.
- EIBAR
- ELGOIBAR
- ENKARTERRIKO M. (9 udal)

- ERANDIO
- FRUIZ
- GALDAKAO
- GAMIZ-FIKA
- GERNIKA-LUMO
- GETXO
- GORLIZ
- LASARTE-ORIA
- LAUKIZ
- LEIOA
- LEMOIZ
- MARKINA-XEMEIN
- MARURI-JATABE
- MUNGIA
- MUSKIZ
- ONDARROA
- ORDIZIA

- ORIO
- PLENTZIA
- SOPELANA
- TOLOSA
- TXORIERRIKO M. (6 udal)
- URIBE KOSTAKO M.
- URDULIZ
- URDUÑA-ORDUÑA
- URNIETA
- USURBIL
- ZESTOA
- VILLABONA

EBPN ONARTZEKO BIDEAN DUTEN UDALAK (2004-07)

- ARAMAIO
- ARETXABALETA
- ARRASATE
- AZKOITIA
- BILBO
- DONOSTIA
- DURANGO
- GETARIA
- HONDARRIBIA
- IBARRA
- LEGAZPI

- OIARTZUN
- OROZKO
- SORALUZE
- UGAO-MIRABALLES
- URRETXU
- VITORIA-GASTEIZ
- ZARAUTZ
- ZEBERIO
- ZIZURKIL
- ZUMARRAGA

2004. urtean, EBPN onartuta duten eta garatzeko lehen urratsak ematen hasi berri diren toki-erakundeak **78 dira**.

Eremu geografikoa kontuan izanik, EBPN Gipuzkoan, Bizkaian eta neurri txikiagoan Araban ere zabaldu da, eta 17 eskualdeetan daude kokatuta.

Biztanleriari begiratuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen %71,7 hartzen dute (1.507.597 biztanle). Horietatik, 457.103 euskaldunak dira (EAEko euskaldunen %71,5).

EBPN

euskara biziberritzeko plan nagusia
plan general de promoción del uso del euskera

Kalitatea hobetzeko prozesuen estandarizazioa

Aurrekoari lotuta, eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia toki-entitateetan garatzeko landutako lan-programaren kalitatea hobetzeko, prozesuaren estandarizazioa burutzen hasi zen 2003. urtean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako Zuzendaritza.

Horretarako, kalitate-kudeaketa sistema finkatu, dokumentatu eta ezarri du, eta sistema horri eutsi egin nahi dio eta etengabe hobetzeko konpromisoa hartu du UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren betekizunak kontuan hartuta.

Ezarri den kalitate-politikaren oinarria eta helburu nagusia bezeroen gogobetetasuna areagotzea da, kalitate-kudeaketa sistema eraginkortasunez aplikatuz eta etengabe hobetuz, eta bezeroen eskakizunekiko eta aplika daitezkeen araudiekiko adostasuna segurtatuz.

Kalitatez lana egin ahal izateko, EBPN toki-entitateetan garatzeko zehaztu den prozeduran parte hartzen duten eragile nagusiak inplikatzeko, ezarritako helburuekin eta prozedurarekin bat etortzea eta elkarlanerako aldeko jarrera izatea ezinbestekotzat jotzen du Koordinaziorako Zuzendaritzak.

EBPN udaletan garatzeko zerbitzuaren bitartez Koordinazio Zuzendaritzak UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabera kalitate-sistema garatzea, ezartzea eta zertifikatzea izango da kalitatearen bidetik lanean jarraitzeko konpromisoaren adierazgarri.

VI. Euskara ondorengoetaratzea

1. Euskalduntze-alfabetatzea

Euskararen Aholku Batzordearen Euskararen Geroratzearen Jarraipenerako Batzorde-atalak 2003 urtean egindako azterketaren eta hausnarketaren emaitza da *Euskalduntze-alfabetatzearen etorkizunerako oinarriak, eraginkortasunari eta kalitatea hobetzeari begira* izeneko lana.

Lan horretan, Euskararen Aholku Batzordeak euskal hiritar guztiei, eta, bereziki, euskalduntze-alfabetatzearen esparruan diharduten eragile publiko zein pribatuei zuzendutako aholku-proposamenak daude jasota.

Euskararen Aholku Batzordeak berariaz azpimarratu nahi izan du euskararen berreskurapenean, euskal irakaskuntzarekin batera, helduen euskalduntze eta alfabetatzea izan dela ekinbiderik eta mugimendurik garrantzitsuena, eta horretan, gizartearen oniritzia eta aitortza irabazi dutela euskaltegiek.

Hori horrela izanik, Aholku Batzordeak, esandako gogoeta-lanean, euskalduntze-alfabetatzearen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko irizpideak eskaini nahi izan ditu. Horretarako, hiru atal nagusitan banatu du bere gogoeta: euskalduntze-alfabetatzearen inguruko diagnostikoa eta horren irakurketa; euskalduntze-alfabetatzearen eraginkortasunaren adierazleak, eta, azkenik, ahalik eta eperik laburrenean hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko hainbat neurri-proposamen.

Neurri-proposamen horien arten, besteak beste, honako hauek jasotzen dira:

- Gizartearen eta ikasleen beharretara egokitu behar irakaskuntza, xede-taldeak ondo identifikatuta
- Ikas-prozesuaren eraginkortasuna bermatzeko neurriak jarri behar abian
- Aitortza-sistema egituratu eta jarri beharra abian, kanpo ebaluazioaren bidez
- Finantzazio-bide berriak sustatu beharra, ikasleen emaitzetan oinarritutako dirulaguntzei gero eta pisu handiagoa emanez.
- Ikasmaterial egokituak eta berezituak prestatu xede-taldeen beharrei erantzuteko.
- Xede-talde berezien beharrei aurre egiteko irakasleak prestatu beharra eta azpiegiturak (teknologia berriak, ikas-materialak) sendotu beharra.
- Euskalduntze-alfabetatzea erabilera sustatzeko osagai den neurrian, zubiak eraiki beharra euskalduntze-alfabetatzearen eta gizarte-erabileraren artean.
- Motibazioa eta sentsibilizazioa landu beharra.

Euskalduntze-alfabetatzearen eraginkortasunari eta kalitatea hobetzeari begira garatutako lan-ildoak.

Esan bezala, euskalduntze-alfabetatzearen bidegarritasunerako hainbat irizpide eta neurri-proposamen finkatu eta bildu ditu EABk, batez ere ikasleen beharretara egokitutako irakaskuntza eta ikas-prozesuaren eraginkortasuna bermatzeari begira garatu beharreko lerroak.

Horiek horrela, neurri-proposamenok aurrera eramateko, HABEren arautegia moldatu da. Hain zuzen ere, HABEren sorrera eta euskaltegiak arautzen dituen 83/1983 Legearen egokitzapena egin da, 179/2003 Dekretuaren bidez.

Dekretu berriak euskaltegiez gain, autoikaskuntza-zentroei zabaltzen die araudia, homologazio eta erregistro-bideak irekiz. Horrekin batera autoikaskuntzarako multimedia-sistemak homologatzea bideratzen du eta era honetara, zentroetan zein internet-en bidez erabili ahal izango dira helduentzako euskara irakaskuntza erregelatuan. Bestalde, 1984an ezarritako euskaltegien erregulazioaren eta finantzazioaren arautegia berritzeaz gain, beste zenbait neurriren garapena ahalbidetzen du, hala nola: dirulaguntzak zehazteko sistemak eraberritzea, euskararen ezagutza-mailak egiaztatzeako sistema ezartzea

Diru-baliabideak.

Ahalik eta eperik laburrenean hizketarako gai diren euskaldunak lortzea da euskalduntze-alfabetatzearen xedea. Hori horrela, ildo beretik, Euskararen Aholku Batzordeak bere txostenean proposatu duenari jarraiki, diru-baliabideak erabiltzerakoan onuradun nagusia ikaslea izatera jo beharko litzateke. Irizpide eta gomendio horri jarraituz, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak hartu-emanak izan ditu euskaltegi pribatuen alorreko ordezkariekin abian jarritako bideragarritasun-neurriak eta eredu berria gauzatu ahal izateko.

Hainbat bileraren ondoren, euskaltegi pribatuen ordezkariekin honako bide hau onartu da:

Euskaltegien finantzazioa

- Euskaltegien finantzazioa irakasle-ordutan izan ordez, 2003-04 ikasturteari begira finantzaziorako irizpide ikasle-ordua izango da.
- Ikas-helburu gisa lau maila ezarriko dira.
- Ikas moduluak malgutuko dira; ikaskuntza presentziala, teknologia berrien bidezkoa edota mistoa onartuz, beti ere, ikastaroen gutxieneko trinkotasuna bermatuz.

Ikasleei dirulaguntzak

- Ikasleek mailak gainditzen dituzten neurrian jasoko dituzte dirulaguntzak.
- Birmatrikula sustatuko da eta ikastaroen trinkotasunak trataera berezia izango du finantzazioan.

Dirulaguntzaren banaketa

- 2003-04 ikasturtean diruz lagunduko da euskaltegien jarduera; hartarako ikasle eta orduko 1,80 € ordainduko da. Guztira: 12.250.000 €.
- Ikasleek, maila gainditzen duten neurrian, irakaskuntza kostuaren %50a jasoko dute gehienez ere. Ikasturte honetan 410.000 €ko kopurua ezarriko da guztira.
- 2004-05 ikasturtean, HABEk euskalduntzerako ezarriko duen dirutzaren % 90 euskaltegien jarduera finantzatzeko izango da. Ikasleei zuzendurikoa %10 izango da, beti ere emaitzen arabera.
- Udal euskaltegiei dagokienez, 1996an EUDELekin hitzartutakoari jarraiki, irakasleen soldata jarraitzen da finantzatzen, dagokion lan-hitzarmenak urte bakoitzean ezarritako soldata-igoera barne. 2003-2004 ikasturterako 8.730.000 €.

Horren emaitza gisa:

- Euskaltegi publikoentzat dirulaguntzen deialdia arautu eta esleitu da. Guztira 40 euskaltegi publiko izan dira onuradunak.
- Euskaltegi pribatu, autoikaskuntzarako zentro eta euskal etxeentzat dirulaguntzen deialdia arautu eta esleitu da. Guztira 73 euskaltegi pribatu, 5 autoikaskuntzarako zentro eta 16 Euskal Etxe izan dira onuradunak.
- Egonaldiak Familia Euskaldunetan programa antolatu eta ebaluatu da.
- Emandako laguntza ezarritako helburuak lortzeko erabili dela egiaztatzeko ikusketa-plana zabaldu da euskaltegi publiko nahiz pribatu guztietara.
- Hezkuntza eta Justizia Sailekin, eta HAEErekin, sinatutako hitzarmenei jarraiki, 601 irakasle, Justizia-Administrazioko 299 langile eta Administrazio Orokorreko 1.367 funtzionario euskalduntzeko talde bereziak antolatu dira. Beste 2.375 herri-langilek heziketarako ohiko egitasmoak jarraitu dituzte.

Teknologia berriak euskararen irakaskuntzan.

Teknologia berriak tresna lagungarriak dira ikas-irakaskuntzaren malgutasuna ziurtatzeko: alde horretatik beharrezkotzat jotzen da hizkuntzaren ikas/irakasteko molde berriak garatzea, egoera eta premia berriei aurre egiteko.

Ildo horretatik HABEk aurreko urteetan hasitakoari jarraituz, arlo nagusi hauen garapenean dihardu:

- HABEren Web gunea eraberritu, eguneratu eta sendotu, orain arteko edukiak data-base batera bilduz, ataria arindu eta dinamizatuz eta ikasleentzako eduki berriak etengabe sortuz. IKASBIL izeneko atari berria garatu da, ikasleei zuzenduta, HABEk ikasleei eskaintzen dizkien zerbitzu guztiak bere barne jasotzen dituena.
- Internet bidez euskara ikasteko sistemak sustatu eta euskaltegien nahiz ikasleen eskura jarri. Horrela BOGA sistema euskaltegiara hedatzen ari da, eta, bestetik, “Hasi ikasten” programa ere eskainiko da Interneten.

- Euskaltegiek HABEren plataforma erabiliz, on-line ikastaroak sortu eta buru ditzaten baliabideak eskaini.
- Bai&by autoikaskuntza zentroak homologatu dira.
- On-line ikastaroak diseinatzeko HABEk euskaltegientzako dirulaguntza deialdia argitaratu da, eta bost euskaltegik aurkeztutako proiektuak onartu eta diruz lagundu dira.

Materialak osatu.

Materialgintza proiektuaren barruan, deialdi baten bidez eta euskaltegien lankidetzarekin, 22 unitate berri sortu dira. Ikasturte honetan materialgintzan lantzen ari diren arloak honako hauek dira:

- *AISA* ikasmaterialak: etorkinentzako oinarrizko ikasmaterialak. Iaz ikaslearentzako bi liburu eman dira argitara eta irudi bidezko hiztegia 7 hizkuntzatan. 2004 ekitaldirako aurreikusita dago ikaslearen 3. eta 4. liburuak argitaratzea, baita etorkinentzako harrera-ikastaroak antolatzea ere hainbat euskaltegitan.
- *Gurtegikoak* eta *Izurungoak* ikasmaterialak: Administrazioako langileak euskalduntzeko ikasmaterialak. Lehen hizkuntza eskakizuna eta bigarrena lantzerantz bideratuak, hurrenez hurren.
- Osakidetzako langileentzako ikasmaterialak: bi xede-talderi begira egin dira materialak, batetik, *Osatuz talde orokorra* deitua, familiako medikuei eta erizainei zuzendua eta bestetik, *Osatuz pediatria* deitua, pediatriei zuzendua, talde hau izango baita lehentasunezkoa Osakidetzaren euskalduntze-planetan.
- Justiziako langileak euskalduntzeko ikasmaterialak.
- Ostalaritzako ikasmaterialak: hasiera mailako ikasleei begira, 100 ordu inguruko materiala HABEk gidatuta; Elhuyar ari da bideratzen.

Aitortza-sistema egituratu.

Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Kurrikuluan (HEOK) lau gaitasun-maila zehazten dira. Euskaltegiratze prozesuaren ondorioz, mailak egiaztatzearen premia agerian jarri da. Horrela Kultura sailburuaren Aginduz, *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan* ezarritako euskararen ezagutza-mailak egiaztatzeko sistema finkatu da. Horren ildotik, egiaztatu daitezkeen mailak zehaztu, batzordea osatu eta lehen eta bigarren mailak egiaztatzeko azterketa deialdia egin da, bertan parte

hartzeko baldintzak ezarriz. Azterketa gainditzen dutenei Kultura sailburuaren agiri bana emango zaie. 2003-2004 ikasturteko ikasleek aukera izango dute dirulaguntzak jasotzeko ikasmilaren bat gainditzen badute.

Euskalduntze-alfabetatzea erabilera sustatzeko osagaia.

EBPNren garapenean, eta bereziki, bigarren helburu estrategikoa garatzeko dirulaguntzak martxan jarri dira, euskalgintzan euskaltegiek eragin-eremu zabalagoa izan dezaten. Ildo horretatik, eta udaletan EBPNren ezarpenaren ondorioz, udal euskaltegietako 21 irakasle ari dira neurrien ebaluazio-, jarraipen- eta koordinazio-lanetan. Irakasleen partaidetza finantzatzeko Kultura Sailak deialdia egin du laguntzak arautuz. Ikasturte honetan 580.000 € jarri dira ekimen horretarako.

Motibazioa eta sentsibilizazioa landu.

Motibazioa eta sentsibilizazioa lantzeari dagokionez, HABEk euskaltegiekin hitzartu du Euskalduntze-alfabetatzean motibazioa indartzeko honako sustapen-kanpainak bideratzea: euskarara hurbiltzeko eta euskara ikastera erakartzekoak, besteak beste, adin eta behar desberdinetarako ikasteko aukerak zein diren adieraziz; euskararen erabilera bultzatzeko, euskararen prestigioa areagotzeari bideraturikoak; euskarak egoera eta esparru guztietarako balio duela erakutsiko dutenak eta; L2ek, batik bat, euskara familian eta lagunartean erabiltzera bideraturikoak. Helburu horiek erdietsi asmoz, HABEk ikasturte honen hasieran matrikula aurreko kanpaina bideratu du ikusentzunezko komunikabideetan. Kanpaina horren kostua 100.000 € izan da.

Helduen euskalduntzerako oinarrizko kurrikuluaren diseinua eta egikaritzea.

Helduen euskalduntzearen oinarrizko kurrikulua euskaltegi guztietan hedatzen lan egin da, euskaltegiekiko aholkularitza eta lankidetzaren estutuz. Euskaltegiek aurkeztutako kurrikulu-proiektuak aztertu dira, baita onartu eta dagozkien hobekuntza-proposamenak luzatu ere. Euskaltegiek urtero aurkezten dituzten plan eta memoriak aztertu dira eta egindako analisiaren ondorengo emaitza eta xehetasunen berri eman zaie euskaltegiei.

Irakasleen prestakuntza.

“Enfoque discursivo y aprendizaje de segundas lenguas: nuevas perspectivas” izeneko ikastaroa antolatu da E.H.U.ko Uda Ikastaroen baitan.

Euskaltegietako irakasleei hainbat ikastaro, hitzaldi eta mintegi-saio eman zaie gai kurrikularrak, ikasmaterialen erabilpena, ebaluazioa eta on-line ikastaroen tutoretza aztertzeko, eta zenbait euskaltegitatik jasotako eskariei erantzutera bideratutako beste hainbat.

Irakaslearen prestakuntzarako *on-line* moduluak editatu dira.

Argitalpenak eta liburu nahiz dokumentuen katalogazioa

HABE aldizkari didaktikoaren (11 ale), *Hizpide* aldizkariaren (3 ale) eta *Itzulpen Saila* bildumaren ale bat argitaratu dira.

HABEren ondare bibliografikoaren zabalkuntzarekin jarraitzeko gutxi gora-behera 1.800 liburu berri erosi dira. Halaber, Katalogo Orokorra eta Artikuluen Datu Base Dokumentalaren eguneratze-lanak burutu dira, 1.800 liburu berri eta 5.000 artikulua berri hornituz.

Liburutegiko zerbitzuak (maileguak, kontsultak, posta elektronikoz informazio-trukea, etabar) zabaldu eta indartu dira. Horri lotuta, liburutegian eskuratu berrien 12 buletin eta 4 katalogo digitalak (bideoena, tesiean, softwarena eta aldizkariena) banatu dira banaketa-zerrenda baten bitartez. Liburutegia berrantolatu eta bertako dokumentuak indexatzeko proiektuarekin jarraituz, 7.000 dokumentu prozesatu dira eta antolaketa berria txertatu.

Internet bitartez, Liburutegiko katalogo orokorra (26.000 erregistro) eta artikuluen datu-base dokumentala (80.000 erregistro) eskaini dira, zerbitzuen aukera eta kalitatea areagotzen jarraituz.

2. Irakaskuntza

Euskarazko irakaskuntza 1960ko hamarkadan hasi zen hedatzen ikastolen eskutik. Prozesu hori 1977tik aurrera zabalduz joan zen, eta 1982an, euskararen legearen onarpenarekin batera azkartu eta hedatu egin zen.

Euskararen Erabilera Arauzkotezko 10/1982 Oinarrizko Legeak maila ez unibertsitarioetan ikasle guztiek euskaraz eta gaztelaniaz ikasteko eskubidea jasotzen du. Legea garatzeko, 1983an Eusko Jaurlaritzak Elebitasunaren Dekretua onartu zuen eta bertan irakaskuntzako hizkuntza-ereduak finkatu ziren:

- A eredia: irakasgai guztiak gaztelaniaz ematen dira eta euskara derrigorrezko irakasgaia da.
- B eredia: irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz da.
- D eredia: irakasgai guztiak euskaraz ematen dira eta gaztelania derrigorrezko irakasgaia da.
- X eredia: EAEn aldi baterako dauden ikasleei aukera ematen die irakaskuntza osoa gaztelaniaz egiteko, euskara ikasi gabe. Gaur egun, ikasleen %1ek baino ez du eredu horretan ikasten.

Gainera, euskara eta gaztelania ikastetxe-mota guztietan derrigorrez irakatsi beharreko irakasgaiak direla ezarri zuen.


Irakasteredu elebidunen garapena dela eta, A, B edo D eredutik kanpora ez dago gaur egun EAEn, ikasle askorik: ez Haur Hezkuntzan, ez Lehen Hezkuntzan, ez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ez Batxilergoan. Maila horietan dauden X ereduko ikasle apurrak legeak aurreikusten dituen salbuespen-kasuak dira gehienak. Horixe da azken mende-laurdenean izandako hezkuntza-aldaketen lehen elementua. Euskarak sarbide bezala izan du eskola-mundua. Ikasle gehienek euskararekiko kontaktu zuzena dute beren eskolaldi gero eta luzeagoan, eta euskararen presentzia horrek ondorio zuzenak izan ditu hainbat profesionalen esparruan: irakasleen artean, testugintzan ari diren enpresetan, hizkuntza normalkuntzaren alorreko hainbat aholkularirengan eta, nola ez, hezkuntza-administrazioan.

Hiru ereduei dagokienez, Haur Eskolatik Batxilergoan doan eskolaketaren aldian, azken hamarkadetako bilakaera oso berezia izan da. Oro har, A eredia behera dator. Irabazian ari direnak B eta, batez ere, D eredia dira. Urtetik urteko joera jarrai bat antzeman liteke, hiru ereduen arteko aukeren eta bilakaeraren kontuan. Irabazi portzentualak dira B eta D ereduen irabazi horiek, ez ezinbestean absolutuak. D ereduko ikasle-kopuruak mantentzen-edo ari dira askotan, ez nabarmenki ugaritzen. B ereduan, berriz, hazi ordez mehartzen ere ari dira kopuru horietako zenbait. Egia da A eredia bai portzentualki (nabarmen) eta bai absolutuki (izugarri) ari dela jaisten, baina batak (A ereduaren ikasle-galerak) ez du bestea (B eta D ereduen estabilizazioa-

edo) kentzen. Horren guztiaren oinarrian zera dago: 40.000 jaiotza-ingurutik 16.000 ingurura jaitsi izanak ondorio ezin bortitzagoak ekarri ditu eskola-mundura. Ikus ditzagun datuak.

Irakaskuntza ez unibertsitarioaren bilakaera (%)

EAE, 2003-2004



Inurria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritz

Hizkuntza-ereduen bilakaeran aldeak daude ikasmilaren edo ikastetxearen kokalekuaren zein izaeraren arabera. Halere, irakaskuntza ez unibertsitarioan oro har, azken hogeitun urteotan badira oinarritzko joera batzuk ikasturtez ikasturte berretsi egin direnak.


Batetik, A ereduak etengabe egin du behera. Beherakada hori ez da bat batekoa izan, hau da, ikasturte batetik besterako jaitsiera-eritmoa nahikoa erregularra izan da eta ia bat dator D ereduaren hazkundearekin. 1983/84 ikasturtean, A ereduak ikasleak lautik hiru baino gehiago ziren (%78,0). Kontuan hartu behar da sasoi horretan hizkuntza-ereduen zabalkundea txikia zela Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) ikastetxeetan eta, horren ondorioz, bilakaeraren irakurketa egiteko A ereduak

ikasleak eta X ereduak multzo berean sartu baditugu ere, X ereduak pisu handia zuela oraindik (%13,6). Hogei urte beranduago, 2003/2004 ikasturtean hain zuzen, A ereduak ikasleak herena baino gutxiago dira eta ia ez dago X ereduak ikaslerik. A ereduak nagusi izan da 1999/2000 ikasturtera arte eta hortik aurrera D ereduak nagusitu zaio.

Bestetik, B ereduaren bilakaerak, oro har, oso gorabehera txikiak izan ditu, baina pixkanaka gora egin du. 1983/84 ikasturtean ikasleen %8,0 ziren B ereduak, 2003/04 ikasturtean, berriz, %22 inguru. Azken lauzpabost ikasturteetan, matrikulazioa bere horretan mantendu da gorabeherarik gabe.

Azkenik, D ereduaren bilakaera A ereduaren kontrakoak izan da, baina, gorago esan bezala, haren erritmo bertsean gertatu da. 1983/84 ikasturtean D ereduaren matrikulatutako ikasleak %14,0 ziren eta hogeitun beranduago ikasle guztien ia erdia (%48,2) dira. Gaur egun, beraz, ikasle gehien duen ereduak da eta goranzko joerak bere horretan dirau.

Hizkuntza-ereduak, ikasmilaren arabera (%) EAE, 2003-2004



Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza

Hizkuntza-ereduen garapenean alde handiak daude ikasmila batetik bestera. D ereduaren garapenik handiena Haur Hezkuntzak izan du. Izan ere, 2003/04 ikasturtean Haur Hezkuntzako ikasleen %62,3k eredu horretan dihardu. Lehen Hezkuntzan D ereduaren matrikulatutakoen portzentajea %53,6koa da eta DBHn %44,4koa. Batxilergoan, bestalde, B ereduaren ikasteko aukera oso txikia da, beraz ikasleak A (%55,9) eta D (%42,3) ereduaren artean egin dute aukera.

X ereduaren ia erabateko desagertzeak badu EAEn bertan salbuespen nabarmena: Lanbide Heziketa. Maila horretan, izan ere, X eredia da orain ere nagusi. Lanbide Heziketako ikasle asko X ereduaren dabilte egungo egunean, estatistika aldetik ikasle horien eskolatzeko moldea "A eredu" gisa eman ohi bada ere. Grafikoak erakusten duenez, ikasle gehienak (%80tik gora) A ereduaren matrikulatuta daude eta %14 inguru D ereduaren.

Bi hizkuntza-ereduen arteko alde handia eskaintzarekin lotuta dago zuzen-zuzenean. Izan ere, Lanbide Heziketako hainbat eta hainbat modulu gaztelaniaz baino ez dira eskaintzen. Lanbide Heziketaren fragmentazio teknikoak, ikasleak hizkuntzaka biltzeko eragozpenak, irakasleen euskarazko prestakuntza-beharra eta materialen urritasuna aipatu ohi dira sarrien egungo egoera esplikatzeko orduan.

Sareen arabera begiratu gero (publikoa eta pribatua), ikasleen erdiak sare-publikoan dihardu eta beste erdiak pribatuan. Hala ere, bilakaera aztertzeko orduan kontuan hartu behar da 1993ra arte hirugarren sare bat bereizten zela, irakaskuntza osoa euskaraz eskaintzen zutenena, ikastolena hain zuzen. Urte horretan ikastolek aukera izan zuten sare publikoan ala, ordura arte bezala, zentro pribatu bezala jarraitzeko.

Hizkuntza-ereduek sarearen arabera izan duten bilakaera matrikulazioan izandako bertsua izan da. Oro har, A ereduak behera egin du bai publikoan baita pribatuan ere, B eta D ereduak gora egin duten bitartean. Hala ere, D ereduaren igoera handiagoa izan da ikastetxe publikoetan pribatuetan baino. Izan ere, gaur egun sare publikoko ikasleen erdia baino gehiago D eredukoak dira, pribatuan, herena inguru A eredukoak eta gainerako hamarrena pasatxo B eredukoak. Sare pribatuan, berriz, banaketa askoz orekatuagoa da. Izan ere, A ereduko ikasleak herena baino zertxobait gehiago dira, D eredukoak herena eta B eredukoak %30 inguru. Gainera, X ereduko ikasleak ere (%1 inguru) sare pribatukoak dira.

EGA: Euskararen Gaitasun Agiria

Gaur egun 15.000 lagun inguru biltzen dira azterketa egitera. Gehienak deialdi irekira aurkezten dira, multzo ohargarria itxira. EAEko saio honek bere uztarkidea du Nafarroan, bertako Hezkuntza Departamentuaren ildotik. Iparraldean ere egiten dira EGA azterketak, Euskaltzaindiaren arartekaritzaz. Bestalde, deialdi itxiei dagokienean, HABEk bere lekua du EGA azterketetan; Hizkuntza Eskola Ofizialak, EAEko Irakasle Eskolak eta abar kasuan kasuko baliokidetza jakinez uztarturik daude, orobat, EGArekin.

Matrikula-Kopurua	EAE	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	14.808	2.475	17	6.685	45	5.648	38
Irekiak (*)	9.416	1.553	16	3.164	34	4.699	50
Itxiak	5.392	922	17	3.521	65	949	18
1. deia	10.289	1.678	16	4.430	43	4.181	41
2. deia	4.519	797	18	2.255	50	1.467	32

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

(*) Labayru Ikastegiko azterketariak deialdi irekietako kopuruetan sartuta daude (74 lagun Bizkaiko datuetan).

Ikus dezagun orain zenbat jendek atera duen EGA agiria 2003an. 2003 urteko EGAdun berrien kopuruak daude ondoko laukian. Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkio datu horiek. Lurraldeko informazioa, dena den, EGAdun berri horien bizitokiaren arabera ordenatuta dago, matrikula zein lurraldetan egin zuten alde batera utzita.

Araba	449
Bizkaia	1.428
Gipuzkoa	1.601
Iparraldea*	65
Nafarroa**	373
Irakasle-eskolak***	269
GUZTIRA	4.185

*Iparraldean, Euskaltzaindiak D titulua, beste izen batez, hala ere, ematen jarraitzen du EGaren maila bera du agiri honek (bai lehengo D tituluak eta bai oraingoak) administrazio-ondorioetarako.

**Nafarroako Gobernuak antolatutako ega azterketak gainditu dituztenak: azterketari hauek eta iparraldekoak ez dira orri hauetako analisisetan jasotzen.

***Begiz jotako kopurua. Zenbair irakasle-eskolatan (EAEn zein Nafarroan) beren ikasketak osorik edo nagusiki euskaraz burutu ondoren EGA aitortzen zaie bertako maisu-maistra berriei; EGAdun berri horiek ez dira orri hauetako analisisetan jasotzen. Agertzen diren datuak EAEkoak dira.

HE1 eta HE2

Irakasleentzako lehen eta bigarren Hizkuntza-eskakizunak, 1993an eratuak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kudeatzen ditu, deialdi itxi eta irekiaren bidez. Hona 2004ko emaitzak:

HE1: deialdi irekia 2004 (2004/07/15)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Izena eman	513	1746	506	2765
Onartu	507	1742	499	2748
Ez aurkeztu	73	291	90	454
Aurkeztu	434	1451	409	2294
1.pr. gairiditu	283	956	257	1496
% gain/1. aurkeztu.	65,2	65,9	62,8	65,2
2.era ez aurkeztu	3	15	3	21
2.era aurkeztu	280	941	254	1475
2. pr. gairiditu	224	597	166	987
% gain/2. aurkeztu	80,0	63,4	65,4	66,9
3.era ez aurkeztu	2	4	0	6
3.era aurkeztu	222	593	166	981
3.pr gairiditu	185	389	124	698
% gain/3. aurkeztu	83,3	65,6	74,7	71,2
% gai/aurkeztu	42,6	26,8	30,3	30,4

HE2: deialdi irekia 2004 (2004/07/15)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Izena eman	190	636	191	1017
Onartu	168	601	177	946
Ez aurkeztu	22	83	30	135
Aurkeztu	146	518	147	811
1.pr. gairiditu	65	228	69	362
% gain/1. aurkeztu.	44,5	44,0	46,9	44,6
2.era ez aurkeztu	0	1	2	3
2.era aurkeztu	65	227	67	359
2. pr. gairiditu	40	89	26	155
% gain/2. aurkeztu	61,5	39,2	38,8	43,2

3.era ez aurkeztu	1	1	0	2
3.era aurkeztu	39	88	26	153
3.pr gainditu	23	52	15	90
% gain/3. aurkeztu	59,0	59,1	57,7	58,8
% gai/aurkeztu	15,8	10,0	10,2	11,1

HE1: deialdi itxia 2004 ekaina (2004/07/15 bbe)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Matrikulatu	47	153	33	233
Ez aurkeztu	3	20	2	25
Aurkeztu	44	133	31	208
azterketa gainditu	18	45	19	82
% gain/aurkeztu.	40,9	33,8	61,3	39,4
etengabekoa	1	5	0	6
HE lortu	19	50	19	88
% eteng/gainditu	5,6	11,1	0,0	7
% lortu/aurkeztu	43,2	37,6	61,3	42,3

HE2: deialdi itxia 2004 ekaina (2004/07/15 bbe)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Matrikulatu	76	212	96	384
Ez aurkeztu	9	7	2	18
Aurkeztu	67	205	94	366
azterketa gainditu	36	83	24	143
% gain/aurkeztu.	53,7	40,5	25,5	39,1
etengabekoa	7	16	5	28
HE lortu	43	99	29	171
% eteng/gainditu	19,4	19,3	20,8	20
% lortu/aurkeztu	64,2	48,3	30,9	46,7

IRALE: Irakasleak alfabetatu eta euskalduntzea

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan lanean diharduten irakasleak eta Heziketa Bereziko langileak euskaldundu edota alfabetatzea da IRALE programaren helburu nagusia.

Helburu nagusi horrek kasuan kasuko xedeak ditu, halere. Xede larriena, premiazkoena, irakasle-jendea euskara edo euskaraz irakasteko gaitzen laguntzea da. Egungo araudiaren arabera, HE2 maila egiaztatu behar dute irakasle horiek: irakasle-jende hori HE2rantz bideratzea da, beraz, xede konkretua. Gero eta nabarmenagoa da, bestalde, eskola-giro euskaldunagoa lortuko bada, euskaraz irakatsi behar ez duen hainbat irakaslek ulermenean eta mintzamenean, bederen, euskararen oinarritzko ezaguera eskuratu beharko duela: maila horren adierazgarria da HE1 eskakizuna.

Azkenik, oinarritzko prestakuntza-maila horiek gainditu dituztenei IRALE programa honek gehigarritzko ikasbideak eskaini nahi dizkie. Irakasleen eskabidea, gero eta neurri beteagoan EGA edo HE2tik gorako prestakuntza-aukerotara bideratzen ari da.

Urteetako ahalegin nagusia, beraz, EAEko ikastetxe publiko zein pribatuetako irakasleak HE1 edota HE2ra eramate aldekoa izan da.

EAEko irakasmila ez-unibertsitarioetarako irakasleen hizkuntza osaera honakoa zen 2002-2003 ikasturtean:

EAEko irakasleak	HErik ez	HE1	HE2
Guztira	%23,7	%6,4	%69,9
Sektore Publikoan	%17,4	%7,1	%75,5
Sektore Pribatuan	%33,3	%5,3	%61,4
Araban, Pub+pr	%31,3	%6,6	%62,1
Bizkaian, Pub+pr	%28,5	%7,0	%64,5
Gipuzkoan, Pub+pr	%13,5	%5,3	%81,2

- Herri-ikastetxeetako irakasleen batezbesteko euskalduntze-maila ikastetxe pribatuetakoena baino altuagoa da. Azken multzo horretan, bestalde, pribatu bidea hartutako ikastolek azpimultzo berezia osatzen dute: bertako irakasle gehienak, ia guztiak, EGAdunak edo HE2dunak dira.
- Gipuzkoa nabarmenki aurretik doa, irakasleen euskalduntasun mailan. Aldiz, Bizkaia eta beragandik hurbil, Araba atzerago datoz.
- Lurralde arteko diferentziak ez dira, ordea, bakarrak. Adinak ere zerikusi handia du, aitzitik, irakasleen euskalduntze-mailan:

EAEko irakasleen adina (X)	Ehuneko zenbat dira EGAdun edo HE2dun?
X ≤ 30 urte	%73,6
30 ≤ X < 39 urte	%82
40 ≤ X < 49 urte	%77,1
50 ≤ X < 59 urte	%41,4
60 ≤ X	%26,3

Adinean gora egin ahala euskaltasun-maila beherantz doa. Arau nagusi honek badu, partez, salbuespena: 30 urtetik beherakoetan, hain zuzen. Irakasle hasi berrien kopuru absolutuak txikiak dira, zinez, baina fenomeno adierazgarria da bestalde.

Hona azken ikasturteetako eskabideen bilakaera:

	IRALEren eskabide-kopurua			
	2000-01	2001-02	2002-03	2003-04
a1. udan	2.789	2.229	2.051	1.616
a2. kurtsoan	4.316	4.290	4.364	4.671
b1. UO+BT	1.631	1.280	1.040	1.055
b2. R	1.893	2.066	1.878	1.471
a2. + b2.	6.209	6.356	7.242	6.142
GUZTIRA	10.629	9.865	10.333	8.813

EIMA: Euskal Ikasmaterialgintza

Lau helburu ditu, funtsean, EIMA programak:

- Euskarazko ikasmaterial ugari, kalitate oneko eta erdal materialen pareko preziokoak sortzen laguntzea. EIMA 1 (869.136 euro), EIMA 2 (264.565 euro), EIMA 3 (500.000 euro) eta EIMA 4 (257.522 euro) laguntza-deialdiak eratzen dira horretarako, urtero.
- Ikasmaterialen kalitatea saritzea: Isaac Lopez-Mendizabal eta Migel Altzo sariak (35.409 euro).
- Ikasmaterialetako hizkuntzaren kalitatea (euskara zuzena eta egokia) zaintzea.
- Ikasmaterialen zabalkunde-lana eragitea. Katalogoen bidez orain artean eta Web-guneaz aurrerantzean.

Aipatutako lau deialdien bidez, urtean 300-350 material sortzen dira.

NOLEGA: Normalizazio Legea garatzea

Atal honen egitekoak bi arlo nagusitan gauzatu dira: Eskolagiroa euskalduntzea eta Hezkuntza Administrazioa euskalduntzea.

Eskola giroa: eskolagiroa hitza aipatzen denean, oso zentzu zabalean aipatzen da. Ikastetxean euskara ikasteko klase emankizun formaletatik kanpora geratzen den baina ikasleak euskara bereganatu, landu, sakondu eta erabiltzeko eragin handia duen une, ekintza eta esparru oro sartzen da bere barnean. Izan ere, eremu urriko hizkuntzen kasuan, soziolinguistikako adituek gero eta garrantzi handiagoa aitortzen diete ikaskuntza akademiko hutsaz aparte suspergarri eta lagungarriei. Ikasleek euskara erabiltzea dute xede inportanteena arlo honetan antolatzen diren ekimenek.

Hezkuntza Administrazioa: horren euskalduntzeari dagokionean ere hainbat ahalegin egin da azken urteotan. Hasieran Langiroko Trebakuntza izena izan zuen eta gerora ALET bilakatu zen planarekin. Gerora hizkuntz eskakizunen ezarpena egin da eta une honetan erabileraren erronkari aurre egiteko urratsak planteatzen ari dira.

Langintza osoak bi atal nagusi ditu: sari-lehiaketak eta laguntza-deialdiak batetik, eta ULIBARRI programa (ikastetxeetako hizkuntza normalkuntza) bestetik.

- Sari-lehiaketak eta laguntza-deialdiak: Euskal Girotze egonaldiak; Ahozko Adierazmena; Ikasgelaz Kanpoko ekintzak; IKastetxeen Arteko Blnakako Loturak; Euskal Girotze Barnetegiak; Abelino Barriola deklamazio saria; Urruzuno literatur lehiaketa; Idazleak Ikastetxeetan; Euskara zine aretoetara
- ULIBARRI: 313 ikastetxek jarraitzen dute programa honetan

Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak eta EBPN udal-ereduak uztartzea

Ikastetxeetako euskararen erabilera indartzeko planak eta udaletan garatzen ari den EBPN, bakoitzak, albokoa kontuan hartu gabe lortzen duena dezente indar daiteke komunean dauden eremuak eta kontuan har zein noranzko berean jarriz gero. Kezka horrek bultzaturik, Euskararen Aholku Batzordeak bi egitasmoak norabide berean jartzeko beharra mahai gainean jarri, eta aurrera begirako urratsak proposa daitezten, Geroratzearen Batzorde-atalaren 2003. urteko jarduketa-planean gaia aztertzea erabaki zuen.

Eskola da hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarrizkoenetakoa. Bere eginkizuna, ordea, erlacionatuta egongo da euskal gizarteko beste sektore guztiakin, interakzio-prozesu batean, non eskola izango baita euskalduntzearen bultzatzailea. Baina, aldi berean, gizarteak bere egoera egokitzen joan behar du hizkuntza errealitatera, bai gaurkora eta bai etorkizun hurbilekora. Administrazioa eta gizartea, orokorki, ezin dira mugatu gaurko eskaerari erantzuna ematera, planifikatu egin behar dute eta baldintza egokiak sortu gaur eskoletan euskalduntzen ari diren hurrek, bizitza sozialeko edozein esparrutan, beren ahalmenak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.

Horrela, lan honetan ikastetxeetan hizkuntzen esku-hartze eremuak definitzeko markoa proposatu da, halaber, marko horretatik abiatuta euskararen erabilera indartzeko lan-esparruak zein EBPN udal-ereduen lehentasunak aurreikusi dira, eta azkenik bi egitasmoak uztartu ahal izateko proposamenak egin dira.

Batetik, eta udalei dagokienez, EBPN udal-ereduak garatu ahal izateko, berariaz hartutako erabakiari EBPN garatu ahal izateko baliabide nahikoak gaineratzea proposatzen da. Horrekin batera ikastetxe eta udalen arteko lankidetzarako koordinazio gune iraunkorra sortzea ere ezinbestekotzat jotzen da.

Era berean, EBPN garatzeko udalei esleitutako laguntza deialdietan zein HUISek abian jartzen dituen bestelako deialdietan ere EABren batzorde berezian proposatu eta hobesten diren gomendioak ezartzeko neurriak har ditzaten proposatzen zaie HUISi eta HPSri.

Horri lotuta, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren arteko Hitzarmen-markoa sinatu da 2004ra bitartean haur eta gaztetxoaren artean euskararen erabilera indartzeko eta euskararen kalitatea aberasteko eskola nahiz eskola-orduetatik kanpo.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren altzora eta Euskararen Aholku Batzordearen irizpideei jarraiki, Euskal Herriko hainbat ikastolatan (Iparraldea, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) garabidean jartzea aurreikusi dira honako ekintzok:

- ✓ Planaren diseinua prestatu eta onartu. EBPN eta ikastetxeetako esku-hartze eremuak erkatu eta helburuak definitu
- ✓ Ezarritako helburuak lortzeko xedez diagnosirako erremintak sortu eta diagnosiak egin
- ✓ Ikastetxeetako euskara-planak eta EBPN uztartzeko markoa eraiki eta horren diseinua prestatu eta onartu. EBPN eta ikastetxeetako esku-hartze eremuak erkatu eta helburuak definitu

Egitasmoa martxan jartzerakoan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen ari diren udaletako ikastolak lehenetsi dira eta horretaz gain kontuan hartu dira gune soziolinguistikoa, udalerrriaren tamaina eta ikastolaren tamaina.

Egitasmoaren aurrekontua, guztira, 440.590,84 eurotako da.

VII. Euskararen erabilera

1. Herri-administrazioak

Lege-esparrua eta oinarrizko zenbait kontzeptu

Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilpena arauzkotzeko 10/1982 azaroaren 24ko Oinarrizko Legearen garapen gisa apirilaren 17an onartutako 86/1997 Dekretua atera zuen. Honen estalpean bideratu zen II Plana.

Aipatutako 10/1982 Euskararen legeak, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanetan euskaraz jarduteko eskubide osoa aitortzeaz gain, eskubideok gauzatzeko, herri-aginteak (Eusko Jaurlaritza eta baita beste gainontzeko Administrazioak ere), beren langileak arian-arian euskalduntzeko xedezko neurriak hartzera bultzatzen ditu.

Horrenbestez, III. plangintzaldiaren atarian, 86/1997 Dekretuari jarraituz azken plangintzaldiak (1997-2002) Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundietan eta Udaletan izan dituen emaitza nagusiak mahai gainean ipini ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Plana oinarri hartuta 2003-2007 urtealdirako prestatu diren lan-ildoen berri ematen da atal honetan.

Hona, labur-labur, 86/97 Dekretuaren oinarrizko kontzeptu nagusiak:

Hizkuntza-eskakizunak: 86/97 Dekretuak adieraztera ematen duen bezala hizkuntza-eskakizuna herri-administrazioetan dauden lanpostuetan lanean jardun edota lanpostua betetzeko euskaraz beharrezkoa den euskarazko gaitasun-maila dugu. Administrazioan lau maila bereizten dira. Lanpostua betetzeko nahitaezko izan daitezke edo ez.

Derrigortasun-datak: hizkuntza-eskakizun hori zenbait lanpostutan nahitaezko baldintza gertatzen da, hain zuzen derrigortasun-data ezarrita dutenetan. Derrigortasun-datak urte-egun jakin batetik aurrera hizkuntza-eskakizuna derrigorrezko baldintza bihurtzen dela esan nahi du. Langileak derrigortasun-data duen lanpostu jakin batean sartzeko edota lanpostu hori hornitzeko ezinbestekoa da hizkuntza-maila egiaztatua izatea.

Derrigortasun-indizea: plangintzaldi bakoitzean derrigortasun-datak zenbat lanposturi ezarri behar zaizkion finkatzen du derrigortasun-indizeak. Indize honek esaten du Administrazioako lanpostu guztietatik %ko zenbati ezarri behar zaien data. Indize hori administrazioa kokatuta dagoen esparruko euskaldunen portzentajea aplikatuz eratorritako kopurua dugu, erakunde horrek bete behar duen derrigorrezko hizkuntza-eskakizun kopurua, alegia.

Horrezaz gainera 86/97 Dekretuak lau helburu ezartzen ditu, indizearen arabera mailakatuak:

- a) % 0etik – % 25era denean: Lehenengo helburu mailakatua
- b) % 25etik – % 45era denean: Bigarren helburu mailakatua
- c) % 45etik – % 70era denean: Hirugarren helburu mailakatua
- d) % 70etik – % 100era denean: Laugarren helburu mailakatua.

Lehenengo helburu mailakatua, herritarrari zerbitzua euskaraz bermatzea da, ahoz nahiz idatziz. Helburu hori lortzeko JENDAURREKO atal elebidunak ezarriko dira. Bestalde GAZTERIAREKIN harreman zuzena eta OHIKOA duten ataletan ere administrazio-atal ELEBIDUNAK jarri behar dira.

Bigarren helburu mailakatua, lehenengoaz gain, administrazio-atal elebidunak jartzea da gizarte-izaerako ataletan.

Hirugarren helburu mailakatuaren arabera arinagoko bietan azaldutako guztiaz gainera izaera orokorretan administrazio-atal elebidunak jarri behar dira.

Amaitzeko, azken helburu mailakatuaren den tartean kokatuz gero, erakundeak orain arte esandako guztiak bete behar izateaz gain euskarazko administrazio-atalak ezarri beharko lituzke.

Orain arte esandako helburu mailakatuaz gain, Dekretuak derrigortasun-datak ezartzerakoan lehentasunak ere zehazten ditu eta beraz administrazio-atalez jardutean ondorengo sailkapenak adierazten ditu lehentasunak ere, derrigortasun-datak jartzerakoan batez ere, ezinbestean hurrengoak izanez eta hurrenkera horri jarraituz jardun beharra izanez:

- Jendaurrekoak: Euren zeregin nagusia, herritarrarenganako (ahozko nahiz idatzizko) harreman zuzenean oinarritzen diren administrazio-atalak ditugu.
- Gizarte izaerakoak: Administrazio-atalon jardunean administrazioaren harreman arloa nabarmena denean, gizarte izaerakotzat jotzen dira atalak
- Orokorrak: Beraien zeregin nagusia administrazio barruko alorrean gertatzen da
- Bereziak: Bitarteko eta baliabideak eskaintzen dituzten administrazio-atal zein zerbitzu ditugu.

II. Plangintzaldiaren (1997-2002) ebaluazioa: helburuak eta emaitzak

Helburuak


I. plangintzaldiaren helburu nagusia herritarrek Euskadiko edozein herri-administrazioerikiko harremanetan hizkuntza-eskubideak bermatzea izan zen. Helburu hori betetzeko oinarriak finkatu ziren; hots, lanpostuei hizkuntza-eskakizuna ezarri zitzaien, eta derrigortasun-data ere hala zegokionean, administrazioetako langileak euskaldundu edo alfabetatzeko eskaintza antolatu zen eta, azkenez, eskuratutako hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko sistema eratu zen.

II. plangintzaldian, berriz, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzetik haratago joan nahi izan zen, poliki-poliki euskara zerbitzu hizkuntza ez ezik lan hizkuntza ere izatera iristeko. Horretarako, atal elebidunen kopurua gehitzea jarri zen helburu, besteak beste herri-administrazioetako langileek hizkuntza jakitetik erabilerarako jauzia eman zezaten.

II. Plangintzaldiaren emaitza adierazgarrienak

Euskararen ezagutza Administrazio Orokorrean (Eusko Jaurlaritza)

a) *Hizkuntza-eskakizunak*: Hizkuntza-eskakizunen sistema erabat hedaturik dago EAeko Administrazio Orokorrean eta lanpostu gehienek esleitua dute beren hizkuntza-eskakizuna.




ITURRIA: Euskara Planen zuzendaritza

b) Derrigortasun-datak

Atal elebidunak lortze aldera, alde zuzenetik lehenetsi diren ataletako lanpostu guztiei hizkuntza-eskakizuna ezarri ondoren, horietako denei edo ia denei derrigortasun-data ezarri behar izan zaie, Erroldako edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoaren arabera derrigortasun-indizeari jarraituz. II. plangintzaldiaren amaieran, 6261 lanpostutatik 2.185ek zuten derrigortasun-data ezarrita, behar baino 365 gutxiagok. Batetik, Eusko Jaurlaritzako lehiaketa eta oposizio prozesuak tarteko, atzeratu egin dira derrigortasun-data berriak ezartzeko lanak; prozesu horiek burutzen ziren bitartean eginiko ebaluazioak, gainera, neurri zuzentzaileak hartzea gomendatzen zuen. Gauzak horrela, neurri zuzentzaile horiek sailez sail adosteari ekin zaio, txosten honen azken puntuak ezagutzera emango diren neurriok lehenbailehen aplikatu daitezkeen.

Hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak Administrazio Orokorrean eta bere Erakunde Autonomoetan



ITURRIA: Euskara Planen zuzendaritza

c) *Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea*


Lehen esandakoari jarraituz, administrazio-atal elebidunak lortzeko, derrigortasun-datadun lanpostuetako hizkuntza-eskakizun denak edo ia denak egiaztatzea behar da. Egiaztatze horri dagokionez, hainbat aurreratu du Eusko Jaurlaritzak ondoren ikusiko dugunez:

- II. plangintzaldiaren amaieran, lanpostuen titularretatik 913k (%41,78) zuten egiaztaturik beren lanpostuen hizkuntza-eskakizuna.
- 275ek (%12,59), egiaztatu gabe zuten lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna, baina hauetatik 121ek (%5,54) egiaztaturik zuten beste eskakizunen bat, beren lanpostuari dagokionaren aurrekoa, gehienetan.
- Gainerako lanpostuei dagokienez, 834 (%38,17) hutsik daude, eta 163 (%7,46) salbuetsita, titularraren adina dela eta.
- Aipagarria da, bestalde, 876 langilek egiaztatua dutela hizkuntza-eskakizunen bat, derrigortasun-datarik izan ez arren.

Emaitza horiek eta plangintzaren lehenengo aldiaren amaieran, hots, 1995. urtean lortu zirenak alderatuz gero, gehitu egin dira derrigortasun-data duten lanpostuak: 2.040 izatetik 2.185 izatera igaro dira.

Egiaztapenen kopuruak ere gora egin du: 581etik 913ra. Portzentajeei begiratuta, gehikuntza oso nabarmena izan da, %28,48tik %41,78ra.

**HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA ETA DERRIGORREZKO DATA DUTEN LANPOSTUAK
ADMINISTRAZIO OROKORREAN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOETAN**




ITURRIA: Euskara Planen zuzendaritza

Euskararen ezagutza Foru-Administrazioan (hiru foru-aldundiak)

Foru-Administrazioak dituen 7.650 lanpostuetatik 3.001ek (%39,2) dute derrigortasun-data. 1995eko emaitzen aldean, nabarmen igo da egiaztapenen kopurua, 1.111tik 1.489ra hain zuzen. Baina, aldi berean, lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztaturik gabe duten titularren kopurua ere (362tik 598ra) hainbat igo da, eta hori gertatu da hainbat lanposturi derrigortasun-data esleitu zaielako, derrigortasun-indizea 1996ko Erroldako datuen arabera berritu eta gero.

**HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA ETA AGINDUZKO DATA DITUZTEN
LANPOSTUAK FORU ADMINISTRAZIOAN**



ITURRIA: Euskara Planen zuzendaritza


Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartuta eta osatuta dute erabilera-plana. Horren garapen eta jarraipenerako hainbat ekintza bideratzen dira: ALET programa; departamentuetako erabilera planak; langileen prestakuntza plana; dokumentuen itzulpen eta zuzenketa, eta hizkuntza aholkularitza zerbitzua ematea; udaletako normalizazio-planak koordinatzeko programa; udaletako euskara teknikarientzako heziketa plana, eta abar.

Euskararen ezagutza Toki-Administrazioan (udalak)

15.924 lanpostutatik, 6.945 lanpostuk (%43,6) dute esleitua derrigortasun-data, eta titularren %50,15ak egiaztatuta du bere lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna.

Emaitzak aldatu egiten dira erakunde batetik bestera. Dena den, 1995eko emaitzen aldean, egiaztapenak asko gehitu dira. Eta lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten titularren kopurua, aldiz, gutxitu egin da. Gorakada hori gertatu da, alde batetik, derrigortasun-indizeak berriro ondoren zenbait lanposturi derrigortasun-data esleitu zaiolako, eta bestetik, hizkuntza-eskakizunen sistema garaturik duten erakundeak gero eta gehiago direlako.

**HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA ETA AGINDUZKO DATA DITUZTEN
LANPOSTUAK TOKI ADMINISTRAZIOAN**



ITURRIA: Euskara Planen zuzendaritza

Eusko Jaurlaritzaren Plana (1998-2003)

Euskararen erabilera

II Plangintzaldiaren helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea izaki, atal elebidunak ezartzea aurreikusi zen. Atalok elebidun izendatzerakoan kontuan izan beharreko lehentasunak ere aurreikusi ziren, atal hauei atxikirik dauden lanpostuei derrigortasun-datak ezartzeko lehentasunekin batera.

Jendaurreko eta Gizarte izaerako atal elebidunak ezartzea aurreikusi zen Planean. Atal elebidun hauetan euskarak zerbitzu-hizkuntza izan behar du. Horretarako, atalburuak eta ataleko kide guztiek edo ia guztiek derrigortasun-data ezarria behar zuten eta lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatua. Hori dela eta, sailkatu egin ziren elebidun izan beharreko atalak, bakoitzaren lehentasun-mailaren arabera.

Baina azkenean ez da hasieran zeuden atal elebidunez gain atal elebidunik sortu. Beraz, II. Plangintzaldian zehar ez da urrats handirik egin atal elebidunak sortzeari buruz.

Horrenbestez, euskararen erabilerak ere, lan hizkuntza bezala, ez du behar adina aurreratu. Gainera, hizkuntzen erabilpenaren jarraipenik ez dago.

Emaitzen balorazioa

Administrazio Orokorreko Planaren ezarpena oso poliki doa, batez ere atal elebidunei dagokionez. Arrazoiak era askotakoak dira; hala nola:

- Ezarritako helburuak handiegiak
- Eusko Jaurlaritzako lanpostuen ia erdia administrazio-atalka sailkatu barik (Hezkuntza Saila, Herrizaingo Saila eta Polizia Akademiari dagozkienak)
- Ataletako hizkuntza-egoera ez behar bezain egokia, derrigortasun-datak ezartzerakoan atalka jokatu ordez lanpostuka jokatu izan delako zenbait kasutan
- Derrigortasun-data gehiago ezartzeko zailtasunak
- Planaren gaineko komunikazio politika argirik ez
- Zenbaitetan Planari eragiteko bitartekoak falta

III. Plangintzaldia (2003-2007)

II Plangintzaldia 2002ko abenduaren 31n amaitu zen. 86/1997 Dekretuaren arabera, 2003ko urtarrilean jarri zen abian III Plangintzaldia. Hala ere, urtebeteko epea ematen du Dekretu horrek Plan berria egiteko nahiz aldaketak egiteko.

Gauzak behar bezala aztertu ondoren, Dekretua ez aldatzea erabaki zen. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzaren III Plana prestatzeari ekin zitzaion, II Plangintzaldiaren ebaluazio txostenean aipatzen ziren akatsak zuzentze bidean jarriz, eta bete zitezkeen helburuak formulatzen saiatuz.

Plangintzaldi honetan landu beharreko alorrak:

- Aplikatu beharreko derrigortasun-indizea 86/1977 Dekretuari jarraituz, 1996 erroldaren araberakoa da, %40,74koa, alegia.
- Indize horri jarraituz derrigortasun-data beharko duten lanpostuak aukeratzekoan, lehentasunezko ataletara joko da, hau da, jendaurreko eta gizarte-izaerako ataletara, bertako langileek hizkuntza-eskakizunak egiaztatu ahala atalok elebidun izendatuz joango daitezten.
- Oro har, 31 atal elebidun berri izan daitezkeela aurreikusi da. Dagozkien sailen oniritziarekin finkatu dira. Atal horietan euskarak, zerbitzu hizkuntza izateaz gainera, lan hizkuntza izatera ere iritsi behar du.
- Gaur egun ez, eta epe laburrean ere ez, derrigortasun-datak behar den tokietan jarrita ere, atal gehienak ez daude elebidun izendatzeko moduan. Atal gutxi batzuekin lanean hastea behar beharrezkoa da, beraz, horietan euskaraz lan egiteko baldintzak eta laguntzak ezarriz, gainerako atalek erreferentzia argia izan dezaten. Horrela, garatuz joango da poliki-poliki, baina eten gabe, hiritarrek administrazioan ere euskara erabiltzeko duten eskubidea.
- EAEko Herri Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak hizkuntza-gaitasuna lortzeko ohiko neurrien ondoan beste neurri osagarri batzuk izan beharko ditu kontuan. Besteak beste, honako hauek:
 - Hizkuntza-eskakizunak lanpostuen zeregin nagusietara ahalik eta ondoen egokitzea.
 - Helburuekin bat datozen euskalduntze-alfabetatze irizpideak erabiltzea.
 - Hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibide zehatzak finkatzea.
 - Itzulpen-politika osagarria finkatzea.
 - Erabilera sustatzeko eta erabileraren aldeko jarrerak eragiteko neurri osagarriak ezartzea.
 - Erakundeetan planari lotutako hizkuntza-normalizazioaren alorreko eginkizun zehatzak beteko dituzten giza-baliabide espezializatuak izatea.
 - Helburuen betetze-maila hurbiletik jarraitzea eta behar diren neurri zuzentzaileak aplikatzea.
 - Administrazio honek beste batzuekin euskarazko harremanak izateko adostasuna lortzea.

- Administrazio honen ekintza-eremu desberdinetan hizkuntza-irizpideak erabiltzea: kontratazio administratiboetan, dirulaguntza eta laguntzetan, argitalpenetan, administrazioaren irudiaren alorrean, ekitaldi publikoetan eta lagapen administratiboetan.

Helburu nagusiak

- Euskara, zerbitzu-hizkuntza herritarrekiko harremanetan: horretarako behar diren bitartekoak jarriko dira, euskara ere ahozko zein idatzizko komunikaziorako hizkuntza izan dadin Administrazio honek herritarrekin dituen harremanetan, idatzizkoetan zein ahozkoetan.
- Euskara, beste administrazio batzuekiko harremanetako hizkuntza: Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen arteko harremanak bi hizkuntzatan izan behar duten arren, adostasuna tarteko bada, ez dago euskara hutsezko harremanen kontrako legezko arrazoirik. Plan honen beste helburuetako bat, beraz, Administrazio honek beste batzuekin euskarazko harremanak ahalbidetzeko adostasuna lortzea da.
- Euskara, administrazio barruko lan-hizkuntza: euskara lan-hizkuntza izateko behar diren baldintzak betetzen dituzten administrazio-ataletan jarraibideak emango dira eta dagozkion neurriak hartuko dira, hizkuntza-gaitasun egokia duten langileek euskaraz lan egin dezaten. Administrazioa langileen euskalduntzean urte hauetan zehar egindako ahaleginari etekina atera behar zaio. Horretarako, euskaraz gero eta gehiago arituko diren atal elebidunak sortzea nahitaezkoa da.
- Administrazio honen ekintza-eremu desberdinetan hizkuntza-irizpideak erabiltzea: herritarren hizkuntza-eskubideak zaintzeak funtzio publikoaren eremua gaintitu egiten du. Zenbait alorretan hizkuntza-irizpideak ezarri beharra dago, hizkuntza ofizialen erabileraren ikuspegitik duten garrantziagatik. Hortaz, Eusko Jaurlaritzaren planaren helburuen artean funtzio publikoaren alorreko neurriekin bat datorren hizkuntza-politika proposatzen da, dela kontratazio administratiboen alorrean, dirulaguntza eta laguntzen alorrean, argitalpenen alorrean, nahiz administrazioaren irudiaren alorrean, ekitaldi publikoen alorrean edo baimen eta lagapen administratiboen alorrean.

Eragin eremua eta epea

Plan honen eragin-eremuan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta honen erakunde autonomoak daude (Jaurlaritzako sail guztiak eta Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea-SHEE, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea-HAEE, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea-HABE, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia, Euskal Estatistika Erakundea-EUSTAT, Emakumearen Euskal Erakundea-EMAKUNDE eta Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea-OSALAN).

Planaren eragin-aldia, berriz, 2007ko abenduaren 31n bukatuko da.

Plana osatzea eta ebaluatzea

Egitasmoak erabilera-plana ezartzeko jarduera-epeak, planaren erantzukizuna duten erakundeak, azpiegiturak eta baliabideak jasotzen ditu. Planaren jarraipena eta ebaluazioa horretarako sortutako jarraipen-batzordearen esku izango da, adierazleen bidezko ebaluazio-sistema etengabe eta osatua aplikatuz. Hain zuzen, garrantzi handikotzat jotzen da jarraipen batzordearen lana. Batzordeak aldioro izango du informazio zuzena planean ezarritako helburuen betetzeaz eta, horrela, behar denean, neurri egokiak hartu ahal izango dira.

Gainera, goi-karguek, zuzendari zein sailburuordek, inplikatu egin beharko dira, Planean aurreikusitako helburu eta neurriak bere eginez.

Komunikazio plana.

Komunikazio plan egoki bat ere abian jartzea guztiz beharrezko ikusten da eta horri berehala ekingo zaio planak ukitzen dituen atalek, zuzendaritzek, sailek eta abarrek dagozkien erantzukizuna har dezaten.

Laburbilduz

III Planaren helburu nagusia Administrazioan euskararen erabilera sustatzea da, beti ere, herritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera. Horretarako, nahitaezkoa da poliki-poliki atal elebidunak izendatzen joatea. Horretarako, ataleko %80-k derrigortasun-data izatea eta lanpostu horietan dauden langileek dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izatea nahitaezkoa denez, ezina da epe laburrean atal gehienak elebidun egitea. Horregatik, bete daitekeen helburua ezarri du Plan honek: lehenaz gain, beste hogeita hamaika atal elebidun izendatu ahal izatea plangintzaldian zehar. Horretarako, indizeak uzten dituen derrigortasun-data guztiak ezartzeaz gainera, derrigortasun-data horiek lehentasuneko lanpostuetan ezarri behar dira, eta oker daudenak berrikustea ere nahitaezkoa izango da.

Euskararen erabilera bultzatu nahi bada, langileen prestakuntzarekin segitu beharko da, jakina, baina bestelako formazioan eta laguntzetan ere saiatu beharko da. hizkuntza-eskakizuna egiaztatua dutenek ere, behar dituzte laguntza eta baliabideak. Horiek eskuratzea nahitaezkotzat jotzen dugu, III Plan honek bere helburua beteko badu.

1- ATAL ELEBIDUNAK GAUR EGUN

Lehentasuna	Saila	Departamento	Atalak	Lanpostuak
E Atal Elebiduna k	Jaurlaritzaren Lehendakariordetza	Vicepresidencia del Gobierno	1	11
	Ogasun eta Herri Administrazioa	Hacienda y Administración Pública	1	20
	Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	Vivienda y Asuntos Sociales	1	2
	Kultura	Cultura	9	40
	Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea	Instituto Vasco de Administración Pública	4	52
	Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako E.	H.A.B.E.	3	67
E	GUZTIRA	TOTAL	19	¹192

2.(1). 2007rako ATAL ELEBIDUNAK (Gizarte izaerakoak)

Lehentasuna	Saila	Departamento	Atalak	Lanpostuak
II L Gizarte izaera	Jaurlaritzaren Lehendakaritza	Presidencia del Gobierno	2	15
	Ogasun eta Herri Administrazioa	Hacienda y Administración Pública	3	8
	Herrizaingoa	Interior	2	40
	Industria, Merkataritza eta Turismoa	Industria, Comercio y Turismo	1	4
	Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	Vivienda y Asuntos Sociales	1	9
	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza	Justicia, Empleo y Seguridad Social	5	30
	Osasuna	Sanidad	3	15
				2

2.(2).2007rako ATAL ELEBIDUNAK (Gizarte izaerakoak)

Lehentasuna	Saila	Departamento	Atalak	Lanpostuak
II L Gizarte Izaera	Kultura	Cultura	5	35
	Lurralde Antolamendu eta Inguramena	Ordenación del Territorio y Medio Ambiente	4	19
	Garraio eta Herrilanak	Transportes y Obras Públicas	2	4
	Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea	Instituto Vasco de Educación Física	2	20
	Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea	Instituto Vasco de Administración Pública	1	7
	II L Gizarte Izaera	GUZTIRA	TOTAL	31
				3

Toki-erakundeetan EBPN garatzeko laguntzak

Bestalde, toki-erakundeetan euskararen erabilera sustatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak laguntza teknikoa nahiz ekonomikoa eskaintzen ditu. Hori horrela, 2003. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateetan EBPN garatu edota entitateotako administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak onartzeko diru laguntzak emateko deialdia moldatu egin da eta diru-kopurua areagotu. Deialdiaren bidez, 93 udal lagundu dira, guztira, 1.742.935 euro jarritz.

Halaber, Udal euskaltegietako zenbait irakasle Udaletan EBPN garatzeko plangintza-lanetan jartzeko dirulaguntza-deialdi berria eratu da. Guztira 14 udal lagundu dira eta 580.842,00 euro esleitu dira.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak 2003. urtean euskara sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak burutzen dituzten udalentsat, erakunde lokabeentzat eta mankomunitateentzat diru-laguntza deialdiaren bidez, 460 proiektu onetsi dira, eta emandako diru-laguntza, guztira, 799.346 eurotakoa izan da.

Inmigratioari buruzko Euskal Plana

Eusko Jaurlaritzak berrikitan onartutako Inmigratioari buruzko Euskal Planean jasotako lan-arloen artean, bereziki aipatu behar Hezkuntza-arloa eta Kulturartekotasun-arloa.

Planak dioenari jarraiki, atzerritarrek euskal kultura baliatzeko aukera ziurtatzea eta erraztea da helburua, batez ere EAEko bi hizkuntza ofizialak ikastea gizarteratze-prozesuaren atal gisa.

Datozen urteotan garatzen joateko, besteak beste, lerro eta ekintza-proposamenok jaso dira:

- Eskola bidez, gazte atzerritarren hizkuntza mailako gizarteratzea bultzatzea, euskararen ikaskuntza bereziki kontuan hartuta.
- Ikastetxeetan etorkinei euskara eta gaztelania irakasteko aukera sustatzea
- Atzerritar helduen artean EAEko bi hizkuntza ofizialen ikaskuntza bultzatzea.

Horri lotuta, euskalduntze-alfabetatze atalean esan bezala, *Aisa* izeneko ikasmaterial sorta eta etorkinentzako modulu bereziak egin dira.

OSAKIDETZA: planaren onarpena eta horren osteko jarduerak

Euskeraren erabilera Osakidetzan normalizatzeko Dekretua 2003ko martxoaren 18an (67/2003 Dekretua; EHAA, 64. zk., 2003-03-31) onartu da. Horren ostean, hainbat jarduera garatu dira eta, besteak beste, honako hauek dira azpimarragarrienak.

- *Baliokidetzak:* Osakidetzak epe jakin bat ezarri zuen bertako langile finkoek eta bitarteko langileek euren Hizkuntza Eskakizunak Osakidetzan baliokidetu ahal izateko, Giza Baliabideetako zuzendariaren 4/2003 Jarraibideen bidez. Prozesu horren bidez 712 langileri aitortu zaio baliokidetzak.
- *Salbuespenak:* Giza Baliabideetako zuzendariaren 7/2003 Jarraibideen bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko hizkuntza eskakizunen derrigortasun-araudi orokorra betetzetik salbuesteko prozesuari hasiera eman zaio. Horretarako ere epe jakin bat eman zaie langileei. Epe horren barruan, guztira, 2.357 langilek eskatu du salbuespena.
- *Prestakuntza:* Osakidetzak urteak daramatza langileen hizkuntza prestakuntza bideratzen, IVAPekin lankidetzan. Langileak aukera desberdinak ditu hizkuntza prestakuntzari dagokionez: lanorduetako ikastaroak: bi ordukoak, bost ordukoak, barnetegiak eta alfabetatzen (azken hiru hauek liberazioak dira); lanorduz kanpokoak: matrikula ordaintzen zaie; autoikaskuntza (Erakunde Zentralean, esperientzia piloto gisa 2001ean jarri zen martxan). Erakunde Zentralean orain 31 langile ari dira ikasten; udako ikastaroak urtean zehar euskera ikasten ibili direnentzat. Autoikaskuntza sistema Osakidetzako sare osora hedatuko da 2004an. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak aurten 7.000.000 euroko aurrekontua dauka langileen hizkuntza-prestakuntzako kostuari aurre egiteko.
- *Euskararen plana gestionatzeko sistema informatikoa:* Euskararen Plana kudeatzeko sistema informatikoa martxan dago jada Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan, SAP programaren barruan. Zerbitzu erakunde bakoitzak arduradun bat izendatu du jada bere zentroko euskararen plana egin eta aurrera eramateko. Horretarako aholkulari bat izanen du laguntzeko (normalean Euskera Zerbitzuko teknikaria).

Bestalde, Giza Baliabideetako Zuzendaritzak dokumentu bat egin du zerbitzu-erakundeetako euskera-planen sortzea bideratzeko, Mahai Sektorialeko sindikatuei aurkeztu zaiena, ekarpenak egiteko. Dokumentu hori Zuzendari Nagusiaren ebazpen gisa zabalduko da.

- *OSAKIDETZAKO Mahai Sektorialaren Euskara-Batzordea:* Batzorde horren eginkizuna hizkuntza-normalkuntzaren gaineko gaiak lantzea da. Zerbitzu erakunde bakoitzean ere euskera batzordeak antolatuko dira, planaren segimendua egiteko.

- *E-LEARNING euskara-ikastaroak Osasun arloko profesionalentzat: HABEk antolatuta eta euskaltegiekin lankidetzan euskara ikastaroak antolatuko dira osasun arloko profesionalentzat (medikuak, erizainak...), euskaraz nola edo hala moldatzen direnentzat. Ikastaro hori eginda 2. HE ateratzeko bidean izanen dira. Ikastaro horiek osagarriak izanen dira, aurrez euskarako ikastaroak egin dituztenentzat baitira. Ikastaro horien helburua hauxe da: euskaraz nola edo hala moldatzen diren sanitarioek euskara erabiltzen konfiantza hartzea, lanean ere euskara txukun erabiltzeko gauza direla kontura daitezen, eta bereziki lan arloko gaitasun linguistikoak garatzea. Jorratuko diren gaiak eta eginkizunak osasunarekin lotutakoak izanen dira. Halaber, HABErekin batera, gai espezifikoak prestatu dira, Osakidetzako langileek euskera ikasteko material egokituak izan ditzaten.*

Justizia Administrazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren hizkuntza normalizazioaren esparruak hainbat jarduera alor hartzen ditu eta guztiok jorratzeko hainbat ekintza proposatzen dira. Horietako batzuk zuzenean 117/2001 Dekretuan aipatzen dira, ekainaren 26koan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza-normalkuntza neurriak finkatzen dituenean eta beste batzuk, dekretuan aipatzen ez badira ere, beharrezkoak dira hizkuntza normalizaziorako edota hori lortzeko proposatutako neurriak aplikatu ahal izateko. Jarduera guztien sailkapena egiteko bi alor nagusi nabarmenduko ditugu:

- 1) 117/2001 Dekretua, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza-normalkuntzarako neurriak finkatzen dituen garatzeko burutzen diren jarduerak.
- 2) Euskara juridikoaren normalizazioaren inguruko jarduerak.

Hizkuntza normalkuntzarako 117/2001 Dekretua garatzeko burutzen diren jarduerak

2003ko plantilla proposamenean oinarritutako hizkuntza-eskakizunen esleipen proposamena

Konstituzio Auzitegian aurkeztutako eskumen gatazka positiboan 117/2001 Dekretuko, ekainaren 26ko, EAEko hizkuntza-normalkuntzarako neurriak finkatzen ditueneko hainbat manuren aplikazioa eta indarraldia eten ziren. Aurrerago, 2002ko ekainaren 5eko auto bidez, Konstituzio Auzitegiak aipatutako etetea altxatu zuen. Ondoren, 117/2001 Dekretuan aurreikusten denari jarraiki, Justizia Administrazioko agente, laguntzaile eta ofizialentzat hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-daten proposamena prestatu zen.

Eginda dagoen hizkuntza-eskakizunen esleipen proposamena prestatzeko orduan kontuan hartu ziren Dekretuak zehazten dituen ildoak:

- Hasteko, organo bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanda erritmo desberdinak ezartzeko aukera ematen du. Horrela, bi organo mota bereiztu dira, lehentasunezkoak (herritarrekin harreman zuzenagoa dutenak eta euskaldun indize altuena duten herrietan kokatuta daudenak) eta lehentasunik gabekoak (beste guztiak). Lehentasunezko organoak: Erregistro Zibila; Informazio bulegoak dituzten organoak; Bake epaitegiak; Adingabekoen epaitegiak; Betearazpen eta komunikazio egintzen zerbitzu orokorra; nahitaez bete beharreko indizea %50etik gorakoa duten lurraldeetan kokatutako organoak.

Era berean 117/2001 Dekretuak 6. artikulua 1 atalean derrigorrezko hizkuntza eskakizunen esleipena 10 urteko plangintzaldian antolatuko dela ezartzen du, plangintzaldi horrek 5 urteko bi epe izanez. Egindako proposamenean esleitutako hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko (2003, 2006 eta 2011) hiru epe zehaztu dira, organo bakoitzak nahitaez bete beharreko indizearen ehuneko ehuna era progresiboan ezarrita. Horrela, lehentasunezko organoentzako progresibotasuna ondorengo eran ezarri da:

- a.- Indizearen %50 bete beharko dute 2003ko ekainerako
- b.- %75 2006ko ekainerako
- c.- %100 2011ko ekainerako.

Lehentasunik gabeko organoentzako, ordea :

- a.- Indizearen %30 bete beharko dute 2003ko ekainerako
- b.- %60 2006ko ekainerako
- c.- %100 2011ko ekainerako.

Dena den, plangintzaldia bukatutakoan nahitaez bete beharreko indizearen %100 izango da derrigorrezko hizkuntza eskakizunen esleipena era bateko zein besteko organoetan. Bestalde, nahasterik egon ez dadin, derrigorrezko hizkuntza eskakizunen esleipen proposamena honako kolektibo hauek betetzen dituzten lanpostuetan egin dela aipatu behar da: karrerako funtzionarioak eta lanpostu hutsak betetzen dituzten bitarteko funtzionarioak.

- Bigarrenez, lanpostu bakoitzaren ezaugarrien ikuspuntutik egon daitezkeen irizpideak ere aztertu dira. Horri dagokionez Dekretuak 10. artikuluko 1 puntuan honako hau aipatzen du: “Organo baten barruan (...) hizkuntza eskakizunak zeintzuk lanposturi esleitu behar zaizkien ebazteko alderdi hauek hartu dira kontuan: laneko jardueran hizkuntza zenbat erabiltzen den, lanpostuak autonomia handia izatea eta laneko jardueran harreman ugari izaten den eta harreman horiek nolakoak diren”.

Justizia Administrazioako langileen Erregelamenduak, eginkizunei buruz diharduenean kidegoka bakarrik zehazten ditu. Bestalde, Justizia Administrazioako langileen egitura, orain artean, plantila sistemaren bidez antolatu da, beraz, dotazio

mailako bereizketarik ezin egin daiteke. Bereizketa hori egiteko ezinbestekoa izango litzateke lanpostu beraren dotazio desberdinak bereiztea, Administrazio Orokorrak Lanpostu Zerrendan (LPZ) egiten duen bezala.

Arestian aipatutako arrazoiak traba handia dira maila honetako irizpideak behar den moduan ezartzeko harik eta Justizia Administrazioko LPZ onartu arte. Dena den, lanpostuen identifikazio sistema bila daiteke irizpideak ezarri ahal izateko. Edonola ere HEen esleipena egiterakoan organo judizialak kidego bakoitzeko dituen langile kopurua kontuan hartu da; kidegoen arteko banaketa proportzionala lortzeko saiakera egin da.

- Hirugarrenez, etorkizunean lanpostu beraren dotazio desberdinen artean aukeratzeko dauden irizpideak aipatzen dira:
 1. Dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten titularren dotazioak.
 2. Hizkuntza-eskakizuna ezartzeko eskatu duten titularren dotazioak. Eskari asko egonez gero, funtzionarioik gazteenek izango dute lehentasuna.
 3. Hutsik dauden dotazioak.
 4. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharrik ez duten titularren dotazioak (lehentasuna izango dute titular zaharrena duten dotazioak).
 5. Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna kontuan hartuta, euskara maila altuena duten titularren dotazioak.
 6. Titular gazteenak dituzten dotazioak.
 7. Lanpostuan antzintasun gutxien duten titularren dotazioak.

Gaur egun dotaziorik ez dagoenaz jabetuta, irizpide hauek organo bereko funtzionarioen artean derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleitzeko erabili dira. Oraingoz, bigarren irizpidea ezin erabili izan da, inork bere lanpostuari hizkuntza-eskakizuna esleitzeko eskatzeko aukerarik izan ez duelako.

Hirugarren irizpidea ezartzerakoan (hutsik dagoen lanpostua), sarritan hutsik dagoen lanpostu bat baino gehiagoren artean aukeratu beharra. Kasu hauetan lanpostu hutsak betetzen dituztenen artean (bitarteko funtzionarioak), euskara mailarik jasoena daukana aukeratu da. Ikerketa hau BJLOren erreforma indarrean sartutakoan berrikusi egin beharko da.

Euskara ikasteko ikastaroak.

Justizia administrazioko funtzionarioei zuzendutako ikastaroak.

Bigarren eta hirugarren hizkuntza-eskakizunak lortzera bideratuta dauden ikastaroak, HABE erakunde autonomoarekin batera antolatzen dira. Laugarren hizkuntza-eskakizuna lortzera bideratuta dauden ikastaroak HAEEREkin batera antolatzen dira.

Urtero euskara eskoletara joan ahal izateko eskaerak aurkezteko bi deialdi argitaratzen dira. Alde batetik urte osoko ikastaroetara joateko deialdi orokorra egiten da, eta bestetik, azaroan, bigarren lau hilabeteko ikastaroetara joateko deialdi osagarria egiten da.

Euskara ikastaroetako parte-hartze datuak:

	Baimenak		2 ordu		5 ordu		Uda	4. H.E.
	Orokor	Osagar.	Orokor	Osagar.	Orokor	Osagar.	Orokor	Orokor
2001/02	567	48	413	5	85	43	48	21
2002/03	528	56	367	9	104	47	38	19
2003/04	476		326		102		33	15

2003-04 ikasturterako deialdi orokorreko datuak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko hizkuntza-normalkuntza neurriak finkatzen dituen ekainaren 26ko 117/2001 Dekretuaren indarraldiaren etetea altxatu zenetik, deialdietan sartu diren berrikuntza garrantzitsuenak honako hauek dira:

1. Banakako hizkuntza-prestakuntza planak;
2. Euskara lan esparruan erabiltzeko konpromisoak.
3. Norberaren lanpostuari derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleitzea eskatzeko aukera.

Halaber, Justizia Administrazioiko langileak euskalduntzeko material didaktiko espezifikoa sortzen hasi da, euskara ikastetik lanean erabiltzerako dagoen jautzia ematen laguntzeko langileei..

Karrera judizial eta fiskaleko eta idazkari judizialen kidegoko partaideei zuzendutako ikastaroak

Eusko Jaurlaritzaren eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Justizia Administrazioiko Ikasketa Juridikoen Erakundearen artean 1999an sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren bitartez, karrera judizial eta fiskaleko eta idazkari judizialeko kidegoko partaideei zuzendutako hizkuntza-trebakuntza lantzeko jarduerak burutzen dira. Bi deialdi egiten dira, bai epaile eta magistratuentzat bai fiskal eta idazkariarentzat

Trebakuntza-jardueretan parte-hartzeari dagokionez, 2000. urtera arte parte-hartzaileen kopurua urterik urte igo egin da. Hala ere, 2001. urtetik aurrera nabarmen jaitsi dira hizkuntza-trebakuntzako modulu hauetako partaideak:

Kidegoa	2000-2001	2001-2002	2002-2003	2003-2004
Karrera Judiziala	64	58	29	24
Karrera Fiskala	11	10	4	1
Idazkari Judizialak	48	38	30	29
Bake-epaileak	11	11	5	9

2002-2003 ikasturtean zehar eskainitako ohiko eskolez gain, autoikaskuntzarako HEZINET sistema eskaini zen, ordutegi jakinen menpe ez egoteko. Aurton 21 izan dira HEZINETeko moduluetan aritzeko eskaria bideratu duten langileek. Autoikaskuntzako sistemaz gain, euskalduntze-prozesuan arrakasta izateko baldintzarik nagusienetakoa jarraipena dela egiaztatuta, 2003-2004 ikasturtean hizkuntza-trebakuntzako banakako planak ere eskaini dira. 2003-2004 ikasturtean 11 izan dira eskatu eta diseinatu diren banakako trebakuntza-planak.

Autonomia Erkidegoko abokatuen euskalduntze sustapena

Urte osoko iraupena duten jarduera bi daude abian: Kidegoari zuzenduta dauden trebakuntza ikastaro bi burutzea urtero euskara hutsean, eta, abokatuek burututako euskalduntze ikastaroak ordaintzeko Legekarien Euskal Kontseiluari dirulaguntza (orain arte dirulaguntza hau eskatzaile guztiei heldu zaie).

Euskararen erabilera sustatzeko esperientzia pilotuak organo judizialetan

Hizkuntza Normalizazio Atalean kide berriak sartu ondoren, euskararen erabilera sustatzeko Esperientzia Pilotuak jarri dira abian. Aldez aurretik bai organo judizialen artean bai langileen artean, egokienak hautatu ziren beroietan parte hartzeko.

a) Esperientzia Pilotuetan parte hartzen duten organo judizialak

BIZKAIA	GIPUZKOA
Bake Epaitegiak	Bake Epaitegiak
Lekeitio	Azkoitia
Ondarroa	Ibarra (Udalen Elkarteak)
Igorre (Udalen Elkarteak)	Lazkao (Udalen Elkarteak)
Zamudio (Udalen Elkarteak)	Legazpia
Gainerako organo judizialak	Gainerako organo judizialak
Durango: Dekanotza, Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1, 2, 3 eta 4 Zk.ko Epaitegiak, Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1, 2, 3 eta 4 Zk.ko Epaitegiak, Erregistro Zibila eta Laguntza Zerbitzu Erkidea	Tolosa: Dekanotza, Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1, 2, 3 Zk.ko Epaitegiak, Erregistro Zibila eta Laguntza Zerbitzu Erkidea
Bilbo, Auzitegi Nagusiko Zibileko eta Zigor arloko Sala,	Bergara: Dekanotza, Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1, 2, 3 eta 4 Zk.ko Epaitegiak
Barroetako informazio atala, Bilboko Dekanotza	Donostia, Zigor arloa, Exekutoriak Izapidetzeko Bulego Orokorra, (Bisita Gidatuak barne)
Buenos Airesko informazio atala, Bilboko Dekanotza	Informazio Zerbitzu Orokorra, Donostiako Dekanotza
Bisita Gidatuak, Bilboko Dekanotza	Lurralde Entzutegiko 3. Sekzioa, Donostia
Lehen Auzialdiko 8. Zk.ko Epaitegia, Bilbo	Lurralde Entzutegiko 1. Sekzioa, Donostia
Bilboko Instrukzioko 6. Zk.ko Epaitegia	Lehen Auzialdiko 4 Zk.ko Epaitegia (Erregistro Zibila) Donostia
	Instrukzioko 3. Zk.ko Epaitegia, Donostia

b) Esperientzia Pilotuetan parte hartzeari buruzko datuak : Esperientzia Pilotuetan parte hartzeko eskaintza luzatu zitzaien 114 langiletatik, 99k jardun dute beraien, beraz parte-hartzea %85etik gorakoa da.

c) Esperientzia Pilotuetan planteatutako jarduera orokorrak

Idatzizko agiriak

- Parte hartzen duten organoetako langileek beraiek lehentasunezkoztat jotzen dituzten agirien itzulpena, normalizazioa eta diseinu elebiduna zutabe bitan, era berean, berauek terminaletan ezartzea.

- Bake-epaitegientzako aplikazio informatikoa sortzea eta mailakako ezarpena, agiri elebidunak emititzeko zutabe bitan.

Terminaletako agiriak	GAZTELANIAZ		EUSKARAZ		ELEBIDUNAK	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Terminaletako agiriak	19.129	%100	1.406	%7,35	274	%1,43
Bake-epaitegietako agiriak	445	%100	445	%100	363	%81,57

Ahozko harremanak

Aukeratutako organo batzuetan telefonoa hartzean eta jendeari harrera egitean langileek herritarrari honek aukeratzen duen hizkuntzan erantzuteko konpromisoa hartu dute. Bide horretatik, 2003. urtea bukatu aurretik ahozko gaitasuna hobetzea helburu duen egitasmo berri bat gauzatu da; esperientzia hau herritarraren aurreko egoerak alde aurretik prestatzean datza, etorkizunean herritarren aurrean langileek eduki ditzaketan ahozko harremanak hobetzeko asmotan. Esperientzia hau Donostian burutuko da lehengo aldiz bertako talde batekin, gerora lortutako emaitzak aztertuta, beste talde batzuekin aritzeko.

Hizkuntza Paisajea

Organo parte-hartzaile ezberdinetako errotulazioaren berrikuspena eta zuzenketa-proposamena burutu da. Batzuetan, errotulu normalizatuak jarri ahal izateko alde aurretiko ikuskatzea egina dago. Bestetik, herritarrari harreran dagoen pertsonak euskaraz dakiela jakinarazteko, kartela diseinatu da eta dagoeneko erabilgarri dago hala nahi duten eta Esperientzia Pilotuetan parte hartzen ari diren guztientzat. Honako hau da leloa: “Justizian Euskaraz ere bai”.

Bitarteko informatikoak

ExtraNet-en (Bake-epaitegietarako) eta IntraNet-en (gainontzeko organo judizialerako) Esperientzia Pilotuetan parte hartzen duten organo judizialerako atal berezi bana sortu da: esperientzien gaineko informazioaz gain, parte hartzen duten langileei laguntza eskaintzen zaie (hizkuntzari buruzko zalantzak, agiriak “formalizatzea”, interesgarritzat edota erabilgarritzat jotzen diren beste web orri batzuetarako estekak...).

Esperientzia Pilotuen Ebaluazioa

- 1.- *Parte hartzaileen ebaluazioa:* balorazioa positiboa, batez ere proiektuari, metodologiari eta aurreikuspenei dagokienean.

2.- *Agiriak bi zutabetan euskaraz eta gaztelaniaz emititzea*: bi zutabetan emateko moduan dauden agirien bilduma txikia da: Bake Epaitegietarako 205 eta gainontzeko organo judizialeterako 274. Dena dela, euskaratu, normalizatu eta bi zutabetan diseinatu beharreko agiriak aukeratzeko erabili diren irizpideak kontuan hartuz gero, esperientziotan partaide izan diren Bake Epaitegietan eman diren agirien %90 gutxi gorabehera eta gainontzeko organo judizialen %50 ematen dira gaur egun, euskaraz eta gaztelaniaz, bi zutabetan

3.- *Jarduera-planen ebaluazioa*: ebaluazioa ere positiboa izan da, nahiz eta prozesua hasieran aurreikusitakoa baino geldoagoa izan hainbat arrazoi direla medio: organo judizialean proposatutako agiri guztien itzulpena, normalizazioa eta diseinua (Zigor Kodearen aldaketa...), proposaturiko errotulu guztien zuzenketa (aurrekontuko partidak), e.a. Arlo honi dagokionez, jarduera-plan hauetan agiri elebidunen ezarpenak jauzi kuantitatiboa zein kualitatiboa suposatuko duela azpimarratzekoa da. Une honetan Durangoko barruti judizialean ari da burutzen prozesua eta ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako organo judizialetera hedatuko da.

Euskara juridikoaren estandarizazioa, agirien normalizazioa eta hizkuntzaren kalitatea

Lehenago normalizatutako agiri guztiez gain, euskararen erabilpenerako esperientziak ezarri zirenetik, Euskara Batzordetik 274 agiri normalizatu dira elebidun izateko, eta gaur egun terminaletatik eman daitezke..

Bestalde, Justizia Administrazioaren esparruan euskara ezartzen joateko, Justizia Sailak Deustuko Unibertsitatearekin lege-testuak euskaratzeko (Aurki Adingabekoen Erantzukizun Penaleko Legea eta Prozedura Zibileko Legea) lankidetzaren hitzarmena sinaturik dauka. Horri esker, oinarritzko prozedura arauak euskaraz ezagutu eta hedatu ahal izango dira, Justizia Administrazioaren esparruan ez ezik abokatu, prokuradore eta gainerako eragile juridikoen jardunean ere erabilgarri izan daitezten. Era berean, laster Euskal Herriko Unibertsitatearekin lege-testu elebidunak ahalik eta lasterren eskuragarri izan daitezten antzeko lankidetzaren hitzarmena izenpetzeko asmoa dago.

Aurrekoarekin lotuta, Legekariaren Euskal Kontseiluarekin izenpetutako hitzarmenari esker, Justizia Administrazioak Legekariaren Kontseiluari fondo bibliografikoak, material normalizatuak, argitalpenak, fraseologia eta terminologia-glosarioak... ematea erabaki du.

Nolanahi ere, Justizia Administrazioaren atalari amaiera eman baino lehen, aipatu behar administrazio honen konplexutasunak zaildu eta batzuetan eragotzi egiten duela bertako euskalduntze-lana. Konplexutasun horren erakusgarri: agente-aniztasuna; lurraldetasuna; hierarkia; Estatuaren aginte-esparrua; langile transferituak baina kidego nazionalerako jotzen direnak eta Aginte Judizialaren Lege Organikoaren erreforma, besteak beste.

2. Informazioaren eta Komunikazioaren teknologia berriak eta internet

Gaurko gizartean ematen den komunikazioa gero eta elektronikoagoa da, gero eta globalagoa; gainera komunikazioa testuinguru eleaniztun batean gertatzen da. Internet da, zalantzarik gabe, horren arrazoi nagusia. Izan ere, Internetek hizkuntza desberdinetan dauden edukietara iristea ahalbidetzen du, batetik, baina, bestetik, itzulpen automatikoarekin eta hizkuntza-teknologia eleaniztunarekin zerikusia duten erreminten beharra sortarazi du.

Garapen teknolinguistikoko horri esker mantenduko da eta sustatuko da Europako hizkuntza-aniztasuna, eta hori oso garrantzitsua izango da hizkuntza gutxituentzat. Horrela, esaten da datozen hamar urteotan Interneten presentziarik ez duten hizkuntzak galdu egingo direla; beraz oso inportantea da hizkuntzentzat espazio linguistikoko berri horretan egotea (espazio sozial elektronikoa, telematikoa, digitala, retikularra). Eta nola lortzen du hizkuntza batek espazio berri horretan egotea? Ba ingeniari linguistikoa garatzen, hau da, hizkuntzak giza lengoaiaren forma guztiak ezagutu, ulertu, interpretatu eta sortzen dituen sistema informatikoak garatu behar ditu. Informazio-gizarteak eragozpen kulturalak, linguistikokoak eta teknologikoak ezabatzea du helburu. Gainera, ez da ahaztu behar hizkuntzen industriek egun eragiten duten inpaktu ekonomikoa eta aurrerantzean eragingo dutena.

Hauek dira labur-labur ingeniari linguistikoko teknologiak:

- Ahotsaren sintesia (Text-To-Speech)
- Ahotsaren ezagutza automatikoa (ASR)
- Itzulpen automatikoa (testu librea, web guneak, posta elektronikoa, txat-ak, foroak...)
- Dokumentazio-multzo handietan bilaketak egitea (data/audio mining)
- Karaktereen Ezagupen Optikoa (OCR)
- Ahozko datuen konpresioa
- Komunikazio-bide berriak (hiperestekak, metalengoaiak,...)

Informazio eta Komunikazioaren Gizarteak toki garrantzitsua hartu du gobernu gehienek politikan. Horren ildotik, Eusko Jaurlaritzak hainbat plan du abian teknologia berriak sustatzeko:

- 1999, *Euskadi 2000 Hiru Ekimena*, oinarriak jarri zituen plana, hain zuzen.
- 1999, *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*.
- 2001-2004 *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana*.

- 2002, *Euskadi Informazio Gizartean Plana*: azken hau 2005a arte egongo da indarrean eta "Euskadi sarean" jarduerarekin esparruaren barruan finkatzen ditu jarduerak eta programak euskarari dagokionez.

Ikus ditzagun euskarak teknologia berriak direla eta egin dituen aurrerapen nabarmenenak:

- Prentsa idatzia on line: egunkari bat osorik euskaraz eta era askotako aldizkariak.
- Euskara ikasteko eta euskarazko edukiak dituzten CDak.
- Web-gune multidisziplinarrak, bilatzaileak euskaraz (www.kaixo.com, www.aurki.com, www.jalgi.com) eta gaikako informazio-boletín elektronikoak eta eztabaida-foroak (www.sustatu.com eta www.erabili.com)
- Sarean dauden corpusak, datu-baseak, hiztegiak eta bestelako erremintak, teknohiztunei begirakoak:
 - XUXEN, euskararen zuzentzaile ortografikoa, EHUko IXA taldeak egin. Saretik doan deskarga daiteke: www.euskadi.net/euskara_hizt helbidetik PC eta Macintosh-eko bertsioak eta www.euskadi.net/euskara_soft helbidetik Linux eta Windowserako OpenOffice.org-erako bertsioak.
 - EUSKALTERM, Euskal Terminologia Banku Publikoa (UZEIk 1987an sortutako bankua du oinarrian; egun, Eusko Jaurlaritzarena da): www.euskadi.net/euskalterm
 - Hiztegi elektronikoak:
 - Elhuyar hiztegia es-eu/eu-es: www.euskadi.net/hizt_el
 - 3000 Hiztegia es-eu/eu-es: www.euskadi.net/hizt_3000
 - Sinonimo eta antonimoen hiztegia: www.euskadi.net/hizt_sinon
 - Morris hiztegia en-eu/eu-en: www.euskadi.net/morris
 - Harluxet hiztegi entziklopedikoa: www.euskadi.net/harluxet
 - Elhuyar eu-es hiztegiaren plugina, Word 2000 eta 2002 eta Internet Explorer-en integratzen dena: www.euskadi.net/euskara_soft
 - Hiztegi Batua, Euskaltzaindiak egin: www.euskaltzaindia.net
 - XX mendeko euskararen bilketa sistematikoa: www.euskaracorpUSA.net
 - Euskararen datu-base lexikala (EDBL), IXA taldeak egin: <http://ixa2.si.ehu.es/edbl/>
 - EAEko toponimiako datu-basea: www.euskadi.net/euskara_eaetoponimia
 - EAEko Biztanle-entitateak, Euskal Deituren Izendegia, Ponte Izendegia, Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia (euskalkien grabazioak): www.euskaltzaindia.net
 - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria: www.euskadi.net/bopv eta gainerako aldizkari ofizialak
- Softwarea euskaraz:
 - Windows 95, Windows 98; eta Windows XPko interfazea: www.microsoft.com/spain/windowsxp/euskera
 - Word 6 eta Office 2000 (Word, Excel eta Outlook)

- Internet Explorer 4 eta 5, eta Outlook Express 5
- Mandrake Linux 8.2: www.euskadi.net/euskara_soft (CDa eskuratzeko: 945 - 018112)
- Mandrake Linux 9.1 bertsioa
- OpenOffice.org 1.0.2 Windowserako eta Linuxerako: www.euskadi.net/euskara_soft (CDa eskuratzeko: 945 - 018112)
- Panda Titanium: www.pandasoftware.es/titanium/euskara eta Panda Platinum: www.pandasoftware.es
- Autoikaskuntzarako Wit ikastaroak (Word 2000 eta Internet 2000)
- SAPEko kudeaketako bost modulu : www.euskadi.net/euskara_soft
- Contawin, enpresa txiki eta ertainentzako kontabilitateko softwarea
- Optenet: Interneteko iragazkia : www.optenet.com
- OCR: Omnipage 11. eta 12. bertsioak eta PCko Word eta Mac-eko Word: www.euskadi.net/euskara_soft (doan deskarga daiteke)
- Prisma II: enpresa txikientzako kudeaketako softwarea



- Bestalde, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kudeatzen duen EIMA programaren bidez, eskola-softwareari loturiko hainbat eta hainbat produktu zabaltzen dira urtero.
- Eszenatoki birtualak:
 - HABENET, HABEren sarea (euskaltegiak, irakasleak, ikasleak): material didaktikoaren homologazioa, didaktika on line, irakasleen etengabeko prestakuntza eta administrazio-kudeaketa.
 - HIZNET, Eusko Ikaskuntzak antolaturiko hizkuntza-plangintzari buruzko ikastaroa. Interneten bidez egiten da ikastaroa.
 - Prestakuntza bidean: LINGUANET internet bidezko ikastaroa esparru sozioekonomikoan diharduten euskara-teknikarientzat eta EAeko zinegotzientzako PRESTAKUNTZA-MODULUAK, EUDELeK eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskainiko dutena 2004an.
- Dokumentazioa biltzeko, berreskuratzeko eta bilatzeko (kudeatzeko) softwarea:
 - Kapsula: lematizazioa eta indexazioa erabiltzen ditu. Ametzagaina eta ASP enpresek garatutakoa eta Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren Intek programaren bidez finantzatua. www.kapsula.com
- Ahotsaren errekonozimendua eta sintesia
 - Eusko Jaurlaritzak, 2003ko urtean, lankidetzaz hitzarmena sinatu du Scansoft Belgium enpresarekin, ahotsaren sintesi eta errekonozimenduko motoreak eta elkarrizketak kudeatzeko euskaraz garatzeko. 2005ean amaituko den proiektuaren helburua da ahots-teknologiak erabiltzen dituzten aplikazioak garatzen dituzten enpresek euskara beren produktuetan txertatzeko aukera izatea.
 - Ahots-motoreak direla eta, Euskal Herriko teknologia-agenteak (enpresak eta unibertsitateak) proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren hizkuntza-baliabideak ari dira garatzen:
 1. bi datu-base akustiko
 2. lexiko fonetiko
 3. testu-corpora
 - Telefónica-k EHUrekin lankidetzan hizkuntza-gaitasunen garapenerako hainbat proiektu garatu du euskaraz, ahotsa interpretatu eta soinu bidezko mezuen sintesia egiteko.
 - EHUko Informatika Fakultateko IXA ikerketa-taldeak Hizkuntza Injeniaritzaren oinarriko teknikak, esaterako analizatzaile morfologikoa, lematizatzailea eta abar garatu ditu. www.ixsi.ehu.es:
 - MORFEUS analizatzaile morfologikoa
 - EUSLEM lematizatzailea/etiketatzailea
 - Gain: Internet eta intraneterako bilatzaile aditua

- Multimeteeo-euskara: pronostiko metereologikoak sortzeko

Aipatu behar ere Deustuko Unibertsitateko DELi ikerketa-taldearen lanak: www.deli.deusto.es

- Itzulpengintzari laguntzeko erremintak
 - Itzulpen-memoriak: HAEE-IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala itzulpen juridiko-administratiboen memorien-corpora sortzen ari Trados teknologia erabiliz.
 - EHUko IXA taldeak itzulpengintzari laguntzeko erreminten prototipoak garatu ditu.
 - Eusko Jaurlaritzaren eta Kataluniako Automatic Trans enpresaren arteko lankidetzak dela eta, ATS teknologia euskarari aplikatzeko zenbait frogak egin dira.
- Hizkuntza-injeniaritza laguntzeko programak:
 - ETORTEK 2002-2005 programa, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailarena: hainbat agente teknologiko (enpresak eta unibertsitateak elkarturik) HIZKING 21 proiektua ari dira garatzen (XXI. mendeko hizkuntza-injeniaritza).
 - INTEK programa, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailarena: programa honen barruan ACOTE proiektua garatu zen eta horretan oinarriturik ari da gauzatzen AMETRA proiektua. Biotan itzulpengintzari laguntzeko erremintak ikertzen dira.
- Hizkuntza-oinjeniaritzarako enpresen eraketa: ELEKA; esparru horretan ari dira, halaber: Adur Software, Ametzagaina eta CodeSyntax.
- Irakaskuntzara aplikaturiko hizkuntza-teknologiak: HIZTEK graduondoko ikastaroa, Udako Euskal Unibertsitateak antolatua.
- Euskara Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrietan txertatzeko dirulaguntzak:
 - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei baliatzen diren pertsona juridiko pribatuei dirulaguntzak kudeatzeko modua arautzen duen Agindua argitaratu du. 1996. urtetik hona ez da honelako deialdirik argitaratu. Bost urte pasatu ondoren, arlo honi ekin zaio berriro. Horretarako 900.000,00 euro banatu dira onartu diren 99 eskabideen artean. Guztira, 185 aurkeztu dira.
 - Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza-deialdia du informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan euskararen presentzia areagotzea dakarten ekoizkinak gertatzen dituzten enpresentzat. 2003an 19 proiektu onetsi ditu eta 204.990 euro bideratu ditu.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak ere honako hauek bideratu ditu: Autoikaskuntza sistema multimediararen bitartez euskara ikasteko programa; euskarazko kultur edukiak informazio teknologien bidez hedatzeko proiektuetarako diru laguntzak emateko deialdia; Xenpelar dokumentazio zentrorako laguntza.

Ondorio gisa, esparru honi dagokionez, esan behar bide luzea dugula oraindik aurrean baina beste hizkuntza minoritario batzuekin konparatuz gero hobeto gaudela. Behar duguna da aurrera egin eta duguna erabili. Euskaraz ez dago merkatu handirik, baina dauden produktuak ezagutu eta kontsumitu behar ditugu, pixkanaka-pixkanaka eskaria handituz joan dadin.

Infoingeniaritza linguistikorako behar diren hizkuntza-baliabideei dagokienez, ikusiko denez baditugu hainbat baina gehiago beharko ditugu. Gainera daudenen azterketa sakona egin behar da, izan ere gehienak etiketatu gabe baitaude eta teknologia horietarako egon behar baitira prestatuta (kasurako itzulpen automatikoan testu elebidunak lerrokatu behar dira eta lexiko etiketatua behar da). Produktu sendoak egiteko dudarik gabe hizkuntza-baliabide onak, anitzak eta behar bezala eginda behar ditugu.

3. Esparru sozioekonomikoa

Euskararen presentzia esparru sozioekonomikoan

Euskararen Aholku Batzordearen iritziz zentzuzko bezain beharrezko dirudi alor sozioekonomikorako orain arte diseinatu eta gauzatu den programa baloratu, berrikusi eta doitzea, egun arteko probazko izaera atzera uzteko, bateko, eta hizkuntza-plangintzaren ikuspuntutik modu sistematikoagoan eta hedapenez zabalagoan eragin ahal izateko etorkizunean, besteko.

Hori lortu ahal izateko hainbat alderdiren gaineko hausnarketa egin behar dela aurreikusi du. Hori horrela, 2003. urtean diagnostiko fasea gauzatu da, 2004ean esparru honetan eragiteko estrategiak definitu ahal izateko.

Esparru sozioekonomikoan euskarak duen egoera hobeto ezagutu eta aurrerantzean adierazle sendoak izateko, hiru azterketa burutu ditu Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Horietan, euskararen erabilera zertan den aztertu da EAEko enpresa handietan batetik, eta saltoki, jatetxe eta tabernetan, bestetik; azkenik euskararen egoerari buruzko azterketa kualitatiboa EAEko esparru sozio-ekonomikoaren eremuan egin da. Hona hemen azterketa horien emaitzarik esanguratsuenak:

Euskararen erabilera EAEko enpresa handietan

- EAEko 100 langiletik gorako enpresetan, langileen %35, batez beste, euskaldunak dira
- 0 eta 10 arteko eskalan (0k euskara inoiz ez dela erabiltzen esan nahi du, eta 10ek euskara beti erabiltzen dela), euskararen erabilera orokorra EAEko enpresa handietan batez beste 2,9koa da. Batez besteko horren azpian egoera anitza ageri da:
 - Enpresen herenek ez dute inoiz edo ia inoiz erabiltzen (0-1 puntu eskalan).
 - Enpresen laurdenek gaztelania baino gehiago erabiltzen dute (2-3).
 - Beste laurden batek proportzio berean erabiltzen ditu biak (4-6).
 - %6k soilik erabiltzen du euskara gaztelania baino gehiago (7-10), eta %2k beti edo ia beti erabiltzen du euskara (9-10).

Ondorioz, esan daiteke euskara gutxi erabiltzen dela enpresa handietan, salbuespen jakin batzuk, salbuespen. Argi islatzen da gainera, enpresa kokatuta dagoeneko gune soziolinguistikoak eragiten diola gehien euskararen erabilera mailari, ahozkoari batik

bat. Kanpo-komunikazioari dagokionez, jardun-alorra, merkatu geografikoa eta zerbitzuen hartzaileak erabakiorrak dira, idatzizkoan batez ere.

Euskararen erabilera EAEko saltoki, jatetxe eta tabernetan

- EAEko saltoki, jatetxe eta tabernarik gehienak oso establezimendu txikiak dira, langile bat edo bikoak, eta oso gutxi erabiltzen dute euskara, bai ahozko komunikazioan (0 eta 10 bitarteko eskalan, 1,5 punturekin) eta bai idatzizkoan ere (2,2, punturekin). Izan ere, establezimendu hauetarik hirutik bitan, %64tan, inork ez daki euskaraz.
- Erdiak, gutxi gorabehera, ez du inoiz ere euskara erabiltzen eta lautik hiruk oso gutxi edota batere ez. Kontrako muturrean, ordea, %7 bakarrik dira beti edo ia beti erabiltzen dutenak. Kolektiboen arabera, erabilera saltoki edo tabernetan baino pitin bat handiagoa da jatetxeetan.
- Erabilera enpresa handietan (3,0 puntukoa ahozko nahiz idatzizko komunikazioan) baino nabarmen txikiagoa da. Aipaturiko enpresa handien heren batek ez du inoiz euskara erabiltzen, eta erdiak gutxi edo batere ez.
- Saltoki, jatetxe eta tabernetan ez ezik enpresa handietan ere, funtsean euskararen erabileraren argigarri den faktorea establezimenduek kokaleku duten gune soziolinguistikoa da; saltokien, jatetxeen eta tabernen kasuan, gainera, erabilera zehazten duen ia faktore bakarra da hau, ahozko komunikazioan bereziki. Eguneroko hizkuntza euskara duten establezimenduak erabilera honetarako baldintza idealak dituzten haiek direla esan behar da, hau da, langile guztiak edo ia guztiak eta bezerorik gehienak euskaldunak dituztenak.
- Gune soziolinguistikoarekin batera, saltoki, jatetxe eta tabernen neurri txikiak ere garrantzi handia du, ez handiagoetan askoz gehiago erabiltzen delako, gunerik erdaldunenetako langile bat edo biko establezimendurik gehienetan, logikoa denez, inork euskaraz ez dakielako baizik (guztizkoaren %64tan) eta, ondorioz, ahozko komunikazioan ematen zaion erabilera ia hutsaren hurrengoa da. Enpresa handietan, aitzitik, langile-kopurua handia denez, 100 baino gehiagokoa, ia inork (<%5) euskaraz ez dakien enpresen portzentajea askoz txikiagoa da, %22koa.
- Azkenik, saltoki, jatetxe eta tabernen %3k bakarrik du establezimenduan euskararen erabilera sustatzeko neurri edo arauren bat. Enpresa handietan, ordea, portzentajea %31koa da.
- Azken bi faktore hauek dira, neurriarena eta hizkuntza-normalkuntzarako neurriena alegia, enpresa handietan euskararen erabilera nabarmen handiagoa izatea ahalbidetzen dutenak. Kasu honetan, hortaz, saltoki, jatetxe eta tabernetan ez bezala, euskararen erabilera ez da soilik gune soziolinguistikoaren araberakoa.

Euskararen egoerari buruzko ikerketa kualitatiboa EAEko esparru sozioekonomikoan

Azterketaren helburuak honakoak izan dira: euskararekiko iritzi eta jarrerak aztertzea; euskararen balore razional-ekonomikoak nahiz afektibo-sozialak antzeman eta ikertzea; euskararen ezagutza, erabilera eta irudiari buruzko ikerketa kualitatiboa egitea, eta hizkuntza-normalkuntzako estrategietan EAEko enpresak multzokatzeko alderdi kualitatiboak identifikatzea. Horretarako, zeharkako informazio kuantitatiboa eskuratu eta datuen gaineko ustiaketa egin dira lehenik; 160 enpresekin gauzatu dira harremanak, horien arteko hainbat ordezkari 8 taldetan (lagin estrategikoak) antolatzen. Horien osaketarako honako aldagaiak hartu dira oinarri gisa: enpresaren tamaina, jarduera-alorra, ingurune soziolinguistikoa, kokapena, eta abar... Taldeok Gasteiz (2), Bilbo, Zamudio, Durango, Arrasate, Donostia eta Tolosan eratu dira.

Azterketaren ondotik hizkuntza-normalizaziorako erronka eta eragin-ildo garrantzitsuenei buruzko proposamenak landu dira, honako oinarriekin jarraiki: zerbitzu eta baliabideak; zertifikaziorako prozesuak; plangintzaren diseinurako oinarriak eta lan-ildo estrategikoak.

Euskararen sustapena esparru sozioekonomikoan

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Entitate pribatuetan eta zuzenbide publikoko korporazioetan euskara planak garatzeko diru-laguntza deialdira 35 enpresa aurkeztu dira eta esleitutako diru-kopurua 361.662,45 eurotako izan da. Kontuan izan behar da 2003ko dirulaguntza deialdian ezin izan zutela parte hartu 2002ko deialdian diruz lagundutakoak, urte anitzeko deialdia zelako 2002koa.

Bizkaiko Foru Aldundiak, halaber, sustapen-neurriak bideratzen ditu deialdi bidez, euskararen erabilera sustatzeko planak burutzen dituzten enpresentzat. Bestalde, laguntza bereziak eman dizkie jarduera txit eragingarriak burutzen dituzten enpresei. Guztira 2003. urtean 14 proiektu diruz lagundu dira eta esleitutako diru-kopurua 200.000 eurotako izan da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak merkataritza esparruari begirako sentsibilizazio-kanpaina bideratu du “Euskara da oparirik onena” lelopean.

Bestalde, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aplikazioa sortu da enpresei plangintzan laguntza gehiago emateko. Halaber, 40 enpresei eskaini zaie erabilera-planak abian jartzeko aholkularitza.

Azkenik, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Elhuyar Elkarteak ekoizturiko “ Enpresan Euskaraz” CDak banatu ditu Sailaren menpeko Sozietate Publikoetan, Zentro Teknologikoetan etab. CD horietan, enpresetan euskaraz lan egiteko erremintak jasotzen dira (gutun, akta, faktura eta abarren ereduak).

4. Aisia eta Kirola

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian kirola esparruan zehaztutako neurriei erantzuteko asmoz, esparru horretan ardura duten administrazioek hainbat egitasmo jarri dute abian.

Kirolaren Euskal Plana onartu da; bertan espreski jaso da euskararen presentzia areagotu beharra Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak dioenari jarraiki.

Bestetik aipatu behar da kirolaren inguruan sortutako euskarazko materiala, (kirol-eskolarako materiala, ikerketa-lanak, liburuak, CD-Romak...) eta euskaraz lan egin ahal izateko egokitutako aplikazio informatikoa.

Eusko Jaurlaritzak egindako lanik aipagarrienak, besteak beste, honako hauek dira: kirol politikak eta jarduerak nazioartean; goi mailako kirolarien nazioarteko eta liga profesioaletako partaidetza; kirolak ekonomian duen eragina eta arraunari buruzko plan estrategikoa.

Horrekin lotua ere aipatu behar da Kirolaren Euskal Eskolako jarritako baliabideak eta Kirola Euskaraz programaren barruan argitaratutako liburuak (Pilota: entrenatze fisikoa eta teknikoa; Pilota: trinketak eraikitze teknika eta kirol irizpideak; Kirol Errendimendua, ikasketak bikaintzeko giltzarriak; eta, azkenik, Gaitasun Motorra, Eskolako heziketa fisikoaren ikasketa eta motorra ulertzeko elementuak).

Bestalde, aisialdiaren esparruan eta bereziki gazteei zuzendutako eskaintzari dagokionez, hainbat ekintza jarri dira abian euskararen erabilera areagotzeko. Batetik, Gazte informazio eta dokumentazio sarean euskarazko zerbitzuak sustatu eta handitu dira; bestetik, dirulaguntza deialdietan eta Gazte Planean hizkuntza irizpideak txertatu dira.

Horrekin batera aipatu behar da zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen diren aplikazio informatikoak ere euskaraz erabilgarri jarri direla (Informazio bulegoak, Gazteaukera.net, Behatokia, Aterpetxeak, Gazte-txartela...)

Halaber Auzolandegien urteko kanpainari dagokionez esan behar da begiraleak hartzeko baldintzetan hizkuntza irizpidea sartu dela, eta, beraz, begiraleak euskaldunak izatea bermatzen dela.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, euskaraz garatutako haur eta gazteen aisialdirako proiektuetarako dirulaguntzak emateko deialdia kaleratu da 2003an ere. Horrekin batera, "Hire esku" egitaraua garatu du. Orioko aterpetxean, bost eta hiru eguneko egonaldien bidez, ongi pasatuz euskararen erabilera sendotzea eta euskara kontestu berrietan ezagutzea eta erabiltzea du helburu egitarauak. Horrela, egonaldi hauetan gazteek, gogoko dituzten eta normalean egiten ez dituzten jarduerak eta kirolak (eskalada, piragua, orienting, txangoak, internet, tailerrak,.....) egiten dituzte euskaraz. Garrantzi berezia ematen zaie teknologia berriei eta inguruko aberastasun antropologikoa ezagutzeari.

Kirolari dagokionez, honako programok gauzatu ditu GFak:

- "Euskaraz kirolari" kirol munduan euskararen sentsibilizazioa lantzeko programa
- Kirol prestakuntzaren edo hedakuntzaren esparruan monografiak, azterlanak eta gisa horretako materialak euskaraz argitaratzeko diru laguntzak emateko deialdia
- Felix Iñurrategi saria
- Kirola euskaraz
- Kirolarte
- Euskara Zerbitzua Gipuzkoako kirol federazioentzat
- Gipuzkoako kirol federazioetan euskararen erabilera sustatzeko planak egiteko diru laguntzak

Arabako Foru Aldundiari dagokionez, aisialdi-monitore eta zuzendarien ikastaroak euskaraz izan daitezen sustatu eta bermatu du. Horrekin batera honako aisialdi-jarduerok eskaini ditu euskaraz: udalekuak, barnetegia, Arabaz Blai, Gelak, Hala bada Araba da. Azkenik, eskola-kirolarekin zerikusia duten jardueretan euskararen erabilera sustatzeari begira, teknikoak hezi eta eguneratzeko materialak erredaktatu eta zabaltzeko laguntza eskaini du.

Ezin ahaztu, udalez udal eragile publiko zein pribatuen eskutik kirola eta aisialdia euskaraz goatzeko antolatzen diren egitarau eta ekintza guztiak, udal bakoitzaren plan estrategikoan eta urteko kudeaketa-planean jasota daudenak hain zuzen.

VIII. Euskararen elikadura

1. Corpus-plangintza

Hizkuntzaren deskribapena eta ezaguera sakonean, estandarizazioan eta modernizazioan egindako urratsak kontuan, esan dezakegu corpus-plangintza nahikoa landuta eta bideratuta dagoela Euskal Herrian, nahiz eta, oraindik, bide horretan urratsak egiten jarraitu behar den.

Euskaltzaindiak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginteekin, Eusko Jaurlaritzarekin, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiekin duen hitzarmen-markoaren baitan honako egiteko hauek jaso dira 2003ko protokoloan:

Hiztegigintza

1. Orotariko Euskal Hiztegia: XV. liburukiaren idazketa-lanak amaitu.
2. Hiztegi Batuko Lantaldea: Hiztegi Batuan txertatzeko bigarren itzuliko A – Z bitarteko 4.000 hitz edo forma berri aztertu; forma horiei buruzko argibideak sistematikoki jasotzen dituen irizpideen dokumentua etengabe eguneratu; euskaltzainei eta iritzi-emaleei lantaldeak aztertutako B letrako 2.000 inguru hitzeko zerrendak bidali, oharrak egin ditzaten; hiztegi kontsultei erantzun, Jagonet zerbitzuaren bitartez.
3. Hiztegi Batuari dagokion aurrelana prestatu.

Gramatikagintza

1. Menderakuntzari buruzko hirugarren liburuaren eskema orokorra eztabaidatu (aditz jokatu gabea duten mendeko perpausen liburuarena, EGLU VIIrena).
2. Jagonet zerbitzutik gramatikari buruz iristen diren kontsultei erantzun.

Dialektologia

Euskararen Herri Hizkeren Atlas: Laugarren A ataleko datu sarrerarekin jarraitu 20 herri inguru sartuz; datu-sarrerako datuen zuzenketak sartu; lehen liburukia argitaratu; laugarren liburukiko mapak eratzen hasi; informatika bateratzea burutu.

Onomastika

1. Udalen euskal izendegiak berrikusi eta aldagarriak aurkeztu arau maila ematen hasteko
2. Batzordera iristen diren galdera eta eskaerei erantzun

Literatura

1. *Literatura Hiztegia: Hiztegia* osatzeko falta diren artikuluen lehen idazketa
2. VII. Herri Literatura Jardunaldietako hitzaldien eta txostenen edizioa prestatu eta argitaratu.

Euskara Batuko Batzordea

1. hitz-zerrendak aztertu, hautatu eta Euskaltzaindiaren osoko bilkurari aurkeztu, onar ditzan: A-koak bukatu eta B-koekin hasi.
2. Euskaltzainen oharrak aztertu eta proposamenak Euskaltzaindiaren osoko bilkurari aurkeztu, erabakiak har ditzan.

Corpus Batzordea

1. Jagonet kontsulta-zerbitzua gainbegiratu.
2. Euskara batuaren ondoan, administrazioan, irakaskuntzan edo hedabideetan, euskalkiek zein leku izan dezaketen aztertuko duen egitasmoa garatu, gai horretaz Euskaltzaindiari proposamena aurkeztuz.
3. Euskararen estrategia komunikatiboak landu. Honetaz aparte, hainbat agiri eta formula - eskuzkoak eta jende aurrekoak - ondu eta zabaldu.

Sustapen Batzordea

1. Euskararen sustapenari buruzko jardunaldiak egin.
2. Euskaltzaindiak euskararen statusaz 2002 urtean bildutako adierazpenak transkribatu eta web gunean txertatu ditu.

Azkue biblioteka Batzordea

1. Azkue Bibliotekaren Katalogatze egitasmoaren baitan, euskaraz katalogatzeko erregelak berrikusi, osatu eta argitaratzeko prestatzea.
2. Azkue Bibliotekako Artxiboa egitasmoaren baitan, Andima Ibiñagabeitiaren eta Jokin Zaitegiren artxiboak katalogatzea eta katalogoa interneten jartzea.
3. Dagerre digitalizatze egitasmoaren baitan, Azkue Bibliotekaren ondare bibliografikoa digitalizatzeari ekitea, 200 dokumentu inguru digitalizatuz.

Argitalpen Batzordea

Liburu hauek argitaratu: *Euskera*, 2002, 2; *Euskera*, 2003, 1; *Euskaltzaindiaren ARAUAK* (dagozkion arau-sortak); *Euskaltzaindiaren 2002ko Oroitidazkia*

Orotara 1.247.290,38 euroko diru-laguntza eskuratu diote hitzarmena sinatzen duten Herri-Aginteek, 2003an, Euskaltzaindiari.


Toponimia

Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko ekainaren 18ko 156/1996 Dekretuaren bidez, Toponimiako Batzorde Berezia eratu zen (179/2002 Dekretuaren bidez aldatua), Euskal Autonomia Erkidegoko toponimok ezarri, aldatu edo berreskuratzeko proposamenak egiteko. Batzorde honek 1999-2003 urtealdiko balantzea egin du eta hurrengo jarduketa-plana (2004-2005) onartu du.

1999-2003 epealdiaren balantzeari dagokionez, honako lan hauek azpimarra daitezke:

- Bizkaiko toponimia berrikusi eta zuzentzea ([www.euskadi.net/euskara toponimia](http://www.euskadi.net/euskara/toponimia): HPSren datu-basean azaltzen den Bizkaiko toponimia berrikusi, eta landa-bilketa berriz egin da. Horretarako, kode geografiko berriak aplikatu dira, bai eta Euskaltzaindiak onetsitako hizkuntza-normalizazioko arau berriak ere. Lan berri horretan kartografia txertatu da. HPSk EAEko toponimiari buruzko datu-basea, lau multzotan sailkatuta: ahozko toponimoak, dokumentatuak, normalizatuak eta kartografikoak, 1:5.000ko eskalan jasoak);
- Toponimia-metodologiako eskuliburua;
- Terminologia toponimikoaren glosarioa;
- Izen geografikoen glosarioa;
- Ikastaroak: prestakuntza berezitua eskaini izana esparru horretan diharduten agenteei;
- Euskaltzaindiaren inbentarioa;
- Toponimia jasotzeko fitxa-eredua sortu eta zabaltzea (HPSko datu-basea erreferentziatzat harturik, administrazio-mota guztientzat nahiz entitate pribatuentzat toponimia jasotzeko fitxa-eredu bat sortu da. Udalek erabiliko duten aplikazio informatikoan sartuta dago);
- HPSren toponimia-datutegia berrikusi, zuzendu eta eguneratzea;
- Bizkaiko toponimiaren koordenatu geografikoak eskuratu eta datu-basean sartzea (Koordenatu geografikoak Bizkaiko bilketa-lan berrian daude sartuta. Lan horrek kartografia digitaleko sistema batekin erlazionatzen du toponimia); HPSren datutegia Internet bidez zabaltzea ([www.euskadi.net/euskara eaetoponimia](http://www.euskadi.net/euskara/eaetoponimia));
- Toponimia normalizatzeko arauak;
- Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateak;
- Udalek toponimia-lanetan erabiltzeko aplikazio informatikoa (ACCESSen garatutako aplikazio informatikoa, toponimia-lanak egiteko asmoa duten udalei zuzendua. Eskatzen duten udal guztiei bidaltzen zaie, HPSko datu-basean udalei buruz dagoen informazioaz hornitua. Horrezaz gain, beharrezko diren oinarrizko taulak ere ematen zaizkie: kode geografikoak, mapak, dokumentu kartografikoak eta abar);
- Toponimia Batzorde-atal Bereziaren txosten teknikoa;

- Izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea eta aldatutako izen ofizialak zabaltzea (Udalerrien izena Euskaltzaindiak ezarritakoaren arabera jarri nahi duten udalei aholkularitza eskaintzen die HPSk, espedientea tramitatzeko);
- IGNrekiko lankidetzeta.



Terminologia

Euskara biziberritzeko Plan Nagusiaren VI.3.3.a atalean “*Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea*” azaltzen da, eta, bestek beste, honako hau agintzen du: “*Hiztegi batua amaitu eta argitaratu. Terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteotarako*”. EBPNk agindutakoa gauzatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak beharrezkotzat jo zuen datozen hamar urteetan egingo den terminologia-lana antolatu, koordinatu eta kudeatzeko plana egitea, eta, horretarako, 2 tresna jarri dira abian: Terminologia Batzordea, Euskararen Aholku Batzordearen batzorde-atal berezi gisa, eta Euskararen terminologia-banku ofiziala.

Terminologia Batzordea

Euskarazko terminologia-arloan erabakiak hartuko dituen Terminologia Batzordea sortu zen Euskararen Aholku Batzordeko batzorde-atal berezi gisa (179/2002 Dekretua, uztailaren 16koa, Euskararen Aholku batzordearen antolamendu eta funtzionamenduaren araudia aldatzeko eta bateratzeko zen Dekretuaren aldaketa egiten duena. EHHA 148 zk.).

Terminologia-alorreko lehentasunak finkatu, lan-proposamenak egin, terminologia-laneko irizpideak eman eta termino lehiakideen artean termino hobetsia proposatu, landutako terminologia-lanei onspena eman, finkatutako terminologiak zabaltzeko bideak proposatu eta terminologia horien erabilera gomendatzea dira batzorde-atal bereziaren egiteko nagusiak.

Terminologiaren normalizazioak dituen berezitasunak direla eta, batzordean gai horrekin zerikusirik duten hainbat jakintza-gaitako, arlotako eta erakundetako ordezkariak dira (2003ko martxoaren 3ko EBAZPENA, Hizkuntza Politikako sailburuordearena, Euskararen Aholku Batzordearen Terminologiako Batzorde bereziaren osaera aditzera ematen duena).

Terminologia Batzordeak, terminologia-lanen koordinazio-organoa denez, lankidetzan eskainiko die terminologia-lana egiten dutenei: aplikatu beharreko metodologia, irizpideak...; terminologia-lan horiek Batzordeak ontzat emanak izan beharko dute, EUSKALTERMen txertatu eta erabiltzaileei gomendatu aurretik.

Dagoeneko, Terminologia Batzordeak 2003-2005 Jarduketa-plana onartu du, datozen 3 urteotan terminologia-arloan egin beharreko lanak zehazteko.

Jarduketa-plan horretatik egindakoak honako hauek dira:

- Terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatu. Erabaki da garrantzi berezia duela irakaskuntzan —bereziki lanbide-heziketan eta unibertsitate-mailan— eta teknologia berrietan erabili beharreko terminologia aztertzeak, finkatzeak eta normalizatzeak. Halaber, lehentasunez egin beharrezkotzat jo da hizkuntza-paisaian agertzen den terminologia finkatzea eta normalizatzea, hain zuzen ere, errepideetako errotuluetakoa, toki publikoetako karteletakoa eta produktuen eta tresnen etiketetakoa, jatetxeen menuetakoa...

- Terminologia-lanerako irizpideak finkatu. Terminologia-lana behar bezala egin eta bereziki normalizazioari begira, batzordearen lehenengo lanetako bat izan da hainbat irizpide finkatzea (linguistikoak, terminologikoak, soziolinguistikoak, pragmalinguistikoak). Irizpideok etengabe berrikusi beharko badira ere, lehenengo dokumentuan terminoak onartzeko, baztertzeko eta termino berriak (neonimoak) sortzeko eta batez ere erabakien koherentzia mantentzeko, irizpide zehatzak eta ondo oinarrituak definitu eta jaso dira. Horri lotuta, eratorpena, hitz-elkarketa eta maileguen eta kalkoen gaineko politika finkatzeko irizpideak aztertu ditu, Euskaltzaindiaren erabakiak kontuan izanik. Esan bezala, oinarritzko irizpide horiek aurrera begirako terminologia-lanetan aplikatzeko finkatu ditu.
- Normalizazio-txostenaren eredu diseinatu. Terminologia Batzordeak aztertu beharreko terminologia-arazoak Normalizazio Txosten batean aurkeztu beharko dira. Txosten horri esker, eredu berean landu eta gorde ahal izango dira Batzordeak aztertutako eta erabakitako kasu guztiak. Normalizazio Txostenean, erabaki beharreko kasu konkretu bati buruzko informazio terminologikoa bilduko da, informazio hori oinarritzat hartu eta arrazoibide egokia eginez, proposamenak zehazteko.
- Euskarazko terminologian dauden arazoen inbentarioa egin (denboran zehar osatuz eta argituz joateko). Euskal terminologiagintzak hainbat urtetako bidea egin du eta, denboran zehar izandako esperientziak lan egiteko modu bat erakutsi badigu ere, aitortu behar da eguneroko jardunean oztupoak aurkitzen ditugula; modu batera edo bestera arazoak konpontzen saiatzen gara, baina, hala ere, arazoak hor daude eta arazo izaten jarraitzen dute. Inbentarioan, konpondu gabeko arazoak edo zalantzazko irtenbidea izan dutenak biltzen saiatu da Batzordea. Helburua da arazoak deskribatzea eta modu teorikoan agerraraztea. Inbentarioa dokumentu irekia da eta eguneroko lanari esker osatzen joango da. Arazoak konpondu ahala inbentariotik kenduko dira eta hartutako erabakiak irizpideen dokumentuetan jasoko.
- Terminoen ponderazio-markak finkatu. Terminoen fidagarritasunari buruzko informazioa ematea du helburu. Horrela, erabiltzaileek terminoak aukeratzeko orduan kontuan izan beharko dute informazio hori. EUSKALTERMen ponderazio-markak agertuko dira aurrerantzean.
- Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua. Terminologia-lanean aplikatu beharreko metodologiari buruzko eskuliburua. UZEIk egin du, EUSKALTERM eguneratzeko kontratuaren barruan, eta, bertan, terminologia-lana egiteko kontuan hartu beharreko jardute-urratsak eta gomendio praktikoak azaltzen dira. Liburuaren helburua da eremu edo azpi-eremu jakinetako terminologiaren azterketa sistematikoan aplikatu beharreko metodologia azaltzea.

- Terminologia Hiztegia UZEIk egin du EUSKALTERM eguneratzeko kontratuaren barruan eta terminologiako kontzeptuak eta izendapenak, hau da, terminoak definitzen dira hiztegi horretan; gaztelaniako, frantseseko eta ingelesko baliokideak ere ematen dira.


Bestalde, finkatutako Batzordeak finkatutako lehentasunen arabera, 2003ko ekitaldian honako glosario hauek egin dira:

- “Jatetxe, taberna eta kafetegietako hiztegia” (euskara, gaztelania eta frantsesa)
- “Zenbaki bidezko kontrola hiztegia” (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa)”
- “Bulegotikako hiztegia” (testu-tratamendua, dokumentuak trukatzeara...), hiztegi eleaniztuna (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa)
- “Laburtzapenen hiztegia” (laburdurak, siglak, akronimoak, ikurrak eguneratu eta osatu, egun, EUSKALTERMen daudenak).
- “Europar Batasunaren glosarioa”. *
- “Toki-administrazioiko oinarriko hiztegia”. *
- “Lurralde-antolamenduaren glosarioa”. *
- Itsas-zuzenbide arloko glosategi terminologikoa, Garraio Sailaren eskutik
- Osasunaren Munduko Erakundeak (WHO) ezintasun, ezgaitasun eta gaixotasunen sailkapena berrikusi eta ezintasun/ezgaitasunen inguruan kontzeptualizazio berria proposatu du, mundu osoan irizpide berak erabil daitezkeen osasun zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen arteko muga-mugan izaten diren egoerak baloratzeko garaian. Sailkapen berria euskaraz edukitzea garrantzitsua delakoan, Jaurlaritzak, EUDELEk eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek WHOri baimena eskatu diote sailkapen hori euskaraz jarri eta argitaratzeko.

Azkenik, 2004an garatzeko esandako glosarioetan jasotako terminologia normalizatzeko batzorde teknikoak eratu dira Terminologia Batzordearen baitan.

Euskararen terminologia-banku ofiziala

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoaren oinarria UZEI enpresak 1987an sortutako izen bereko banku terminologikoa izan da (www.euskadi.net/euskalterm). EUSKALTERM dela eta, Terminologia Batzordean eztabaidatutako irizpideei jarraiki, banku publikoaren diseinua aldatzeko (terminoen fitxak...) lanak aurreratuta daude. Horretaz gain, bankuaren eguneratze- eta elikatze-lanetarako, UZEIrekin izenpetzen den kontratuaren bidez, honako lan hauek egin dira 2003an, besteak beste: "Iturriak jartzea eta terminoak egiaztatzea"; Euskaltermeko hiztegi zaharretako frantsesezko eta ingelesezko terminoen errebisioa, hau da, formak egiaztatu eta iturri-kodeak ezarri; hiztegi berrietako sarrerak txertatu...



Ahozotasuna

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, honako egiteko hauek garatu ditu, besteak beste, bertsolaritza sustatu eta zabaltzeko.

- Bazkideentzako eta bertso-eskoletako haur eta gaztetxoentzako berripapera.
- Bertsozale.com web-gunea indartu eta eguneratu eta Nafarroa, Araba eta Gipuzkoako Bertsolari Txapelketen hedapena egiteko atal bereziak antolatu.
- Bertsolaritza bertso-eskoletan, hezkuntzan, aisialdian, topaketak, udalekuak... antolatu.
- Bertso-eskolak direla eta, horren informazioa zabaltzeko datu basea sortu. Bertso-eskoletako irakasleekin mintegi bat eta asteburuko jardunaldia antolatu. Iparraldeko bertso-eskolei ere jarraipena egin eta Bertsolari Txiki Eguna eta Eskolarteko txapelketa antolatu. Araban, beste 2 bertso-eskola eratu (guztira 7), gaztetxoentzako ikastaroak antolatu eta Eskolarteko Txapelketa antolatu Ikastolen Elkartearekin elkarlanean. Nafarroan, 3 bertso-eskola berri sortu, eskolarteko bertsopaper eta bat-bateko lehiaketa antolatu.
- Bertso Eguna-ren jarraipena bermatu.
- Bertsolaritza hedabideetan lantzeko irizpideak finkatu, irratiekin elkarlanean jardun (grabazioak, emanaldi bereziak), “Hitzetik Hortzera”-ren diseinua...
- Ikerketak direla eta, bertsolaritzaz aztertua eta aztertzeko dagoenaren gaineko mapa burutu eta prestakuntza landu (2003-2004), eta Xenpelar dokumentazio-zentroa elikatzen jarraitu.

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak beste zenbaiten artean egiteko horiek gauzatzeko hitzarmena sinatu du 2003an ere HPSrekin. Orotara, 66.111,00 eurokoa.

Euskararen Kalitatea

Gaur egungo euskararen inguruko kezketako bat kalitatearena dela ikusirik, Euskararen Aholku Batzordeak “Euskararen Kalitatea” izeneko txostena prestatu du, euskararen hedatze lanarekin batera, hedatzen ari garen hizkuntzaren kalitatea ere zorrotz zaindu dezagun.

Hortaz, “Euskararen kalitatea” diogunean zer esan nahi dugun argitzea eta zehaztea izan da 2003. urtean Euskararen Aholku Batzordearen Kulturgintzaren eta Komunikabideen Batzorde-atalean izandako hausnarketaren abiapuntua. Kike Amonarriz, Andoni Egaña eta Joxerra Garzia jaunak izan dira oinarrizko txostenaren egileak. Lana bost atalen inguruan bildu da: aurrekariak

(kantitatetik kalitatera); kalitatea zertan den; hizkuntz kalitatearen inguruko datuak eta hausnarketak; hizkuntz kalitatean eragiten duten esparruak eta, azkenik, proposamenak eta lan ildoak.

Euskararen kalitatea definitzeko orduan, EABk honela formulatu du:

- Kalitatezko euskara = erabiltzen den euskara
- Kalitatezko euskara = komunikatzeko gaitasuna duen euskara
- Kalitatezko euskara = euskara eraginkorra (norberaren baitan eta inorengan eragiteko tresna)


Horretara iristeko proposamenak, hainbat esparrutan bildu dira: motibazioa, familia eta ingurune hurbila, hezkuntza sistema, hedabideak, teknologia eta hedabide berriak, euskarazko edukien sorkuntza, hedapena eta gizarteratzea, besteak beste. Ponentzia 2004an argitaratu eta zabalduko da.

2. Komunikabideak

Gaur egun, oraindik oso txikia da euskararen presentzia Euskal Herrian irakurtzen, ikusten eta entzuten diren komunikabideetan.

Egunkariei dagokienez, *Berria* alde batera utzita, euskararen presentzia *Gara*n (%19,6) eta *Deia*n (%6,1) baino ez da %5 baino handiagoa. Guztira, egunkariek euskarari eskaintzen dioten tokia %11,6koa da (*Berria* barne).

Egunkari nagusiek euskarari eskaintzen dioten tokia (%)
Euskal Herria, 2002



Euskararen presentzia egunkariek zabaldutako ale-kopuruaren arabera neurtuz gero, euskarari eskaintzen zaion tokia are txikiagoa da argi eta garbi (Euskal Herrian batez beste %6,4). Eta neurketa kontsumoaren arabera egiten bada, Euskal Herrian euskarak duen tokia batez beste %6,0koa baino ez da.

Bestalde, euskalgintzak eta kulturgintzak, oro har, ezinbestez aipatu beharreko gertakaria ezagutu zuen 2003an: **Euskaldunon Egunkaria**, eguneroko euskarazko egunkari bakarraren itxiera. Gertakari horrek errotik astindu zuen euskal gizartea, kalera irten araziz euskarazko eguneroko prentsa izateko eskubidea eta Egunkaria irekitzea aldarrikatzeko.

Irratiei dagokienez, gaur egun Euskal Herri osora euskara hutsean emititzen duten bi irrati daude (*Euskadi Irratia* eta *Euskadi Gaztea*). Halere, badira beste hainbat irrati lurralde, eskualde edo udalerrri mailakoak euskaraz emititzen dutenak. Irrati nagusiak kontuan hartuz gero, euskararen batez besteko presentzia %16,4koa da Hego Euskal Herrian.

Euskarak telebistan duen presentzia ere oso txikia da. Euskal Herriko 18 kate nagusiak kontuan hartuz gero, ETB1 da euskara hutsean emititzen duen bakarra. Gainerakoetan euskararen presentzia %5ekoa baino txikiagoa da. Eskaintza txiki horrek audientzia txikia dakar berarekin. Izan ere, euskaraz ulertzen dutenen artean, bezperan zein kate ikusi zuten galdetu zitzaientean, %17,2k baino ez zuten erantzun ETB1 2002 urtean.

Euskal Telebista

2003. urtean egindako ekintzak bat etorri dira EBPNk telebistaren arlorako proposatutako irizpide nagusiekin: telebista orokorra; euskarazko sorkuntza-munduarekiko harremanak; telebistako hizkuntza erraztea; umeak, gazteak eta euskalduntze-alfabetatzea. Jardun osoa ezin aipa daitekeenez, ekimenik aipagarrienak datoz ondoko lerroetan.

Umeei begira

- Betizu: marka indartsua sortzeko ahalegina egin da, era guztietako erreferenteetan: telebista programak, Betizu Kluba, aldizkaria, jostailuak, musika, dantza...
- Marrazki bizidunak: Shin Chan; Doraemon, Pipi, Marko, Heidi, Vicki...
- Betizu kantari taldea: taldea osatu, programa egin, disko-cd kaleratu eta ikuskizunak antolatu
- Betizu kluba: 24.773 bazkide berri; guztira 48.641 kide ditu. Beti Press aldizkariaren hiru ale kaleratu dira eta Ibaizabalekin batera urtemugako oparia (euskarazko liburua) eskaintzen zaie bazkideei.
- Trikitraka-trikitron: herriz herriko ikuskizuna; 13 herri bisitatu dira.
- Ibaizabal argitaletxearekin elkarlanean, haurrentzako lan koadernoak eta Karramarro aldizkaria.

Gazteei begira

- Gazteei arreta berezia eskaini nahian, lehendik indarrean zeuden zenbait programatan eduki bereziak sartu dira (Goenkale, Bertatik Bertara, Eklipse, Ikusgela) eta, bestetik, formatu bereziak sortu dira (Basetxea).

Zinea

- Ikusle berriak erakartzeko, lau ekintza bideratu dira: estreinako emanaldiak ETB1ean; publizitate etenik gabe eman filmeak; hizkuntza eta bikoizketa zaindu; euskal zinearen titulu historikoak berreskuratu eta eman.

Literatura

- Sautrela saioaren 26 atal

Hizkuntza

- Hitzarmena Euskaltzaindiarekin onomastika, gramatika, sintaxi eta lexiko alorrean bere gomendioak jasotzeko.
- Hitzarmena Euskal Herriko Unibertsitatearekin, hizkuntza-kalitatearen arloko aholkularitza izateko.
- Bikoizketetan erabilitako hizkuntza errazagoa eta gozoagoa izateko irizpideak. Hiztegi arloan, EITBko medioetan zenbait erabilera arautu eta finkatzeko irizpideak.

Euskalduntze-alfabetatzea

- Interesgarria izan litekeen programa-formatua garatu da, lehiaketa bat prestatuz barnetegi batean. Konbibentzia eta euskararen ikaskuntza bildu nahi izan ditu Euskal Telebistak.

Euskadi Gaztea

2003an honako ekimen berriok jarri dira abian.

- Gaztematik saioa: irrati interaktiboaren bidetik teknologia berrien eta irratiaren uztarketa lantzen duen saioa
- Txapela buruan eta ibili munduan saioa: solidaritza alorrean lanean ari diren euskaldun gazteen esperientziak zabaltzen dituen saioa
- Salgai asteburuak: irrati magazine gaztearen eskeintza larunbat ,igande eta jai egunetara zabaldu da
- Iraleko irakasleentzat egindako irrati-demoak (irrati formula zertan datzan praktikoki adieraziz)
- “60 eskalo” irrati-nobela HABEren webgunean
- “Hi bizi haiz hi” saiotek aukeratutako 3 elkarrizketa erabili dira “Euskera eta literatura” DBH3 mailako testu liburuan

Euskadi Irratia

- Informatiboen arloan ekimen berri dira: Goiz Kronika saioan telefonoak zabaldu entzuleek iritzia eman dezaten asteko tertulia politikoa amaitu ondoren eta erreportai sakona, aktualitateko gai baten inguruan; berriemaileak munduko puntu beroetan (Jerusalem); Mezularia, arratsaldeko magazine informatiboan tarte berezia Madrilen eta Parisen puntako diren berriei, zientzia eta teknologiari lotutako berriei, eta abar.
- Programazio arloan, honako hauek dira ekimen berriak edo moldatutakoak: irratian aideratutako hainbat iritzi edo tarte jakin EITB-ren webgunean zintzilikatu, entzuleak eskuragarri izan ditzan; egunean zehar entzulearen partehartze zuzena sustatzeko espazioak sortu; gauerdiko saio berria, bereziki entzulearen partehartzeari eskainitakoa; Baionako “Gure

Irratia”rekin elkarlana hainbat esparrutan; Ibaizabal argitaletxeak DBH-rako prestatutako Euskara eta Literatura proiektuan parte hartu, materiala eskainiz.

Komunikabideetan euskara sustatzeko laguntza-lerroak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko komunikabideak bideragarriagoak egiteko dirulaguntzak kudeatzeko modua arautzen duen Agindua argitaratu du. 3.837.693 euro banatu dira onartu diren 90 eskabideen artean (aurkeztutakoak 108). Honen bidez lagundu dira:

- Eguneroko argitalpenak, bai Euskal Herri mailakoak baita toki-mailakoak ere. 2003an, atal berria jarri da euskararen presentzia esanguratsua ziurtatzen duten erdal egunkariak diruz laguntzeko. Atal honetan, “Berria” egunkaria, “Oarsoaldeko Hitza”, “Tolosaldeko Hitza” eta “Hernaniko Kronika” diruz lagundu dira.
- Egunerokoak ez diren argitalpenak: informazio orokorreko aldizkariak, EAEko tokiko argitalpenak, zientzia arloko, pentsamendu-eta zabalkunde-aldizkariak zein EAEz kanpoko euskal komunitateei zuzendutako euskarazko argitalpenak. Hona hemen atal honen bidez diruz lagundutakoak:
 - Informazio orokorreko aldizkariak: “Zabalik”, “Argia”, “Aldaketa 16” eta “Asteon”
 - EAEko tokiko argitalpenak: “Aikor”, “Aiurri”, “Akats”, “Anboto”, “Aretxagazeta”, “Arrasate Press”, “Artzape”, “Baleike”, “Barren”, “Begitu”, “Berrigara”, “Berton”, “Danbolin”, “Drogetenitturri”, “El Social”, “Eta kitto...”, “Galtzaundi”, “Geu”, “Goienkaria”, “Goierritarra”, “Herria”, “Irunero”, “Irutxulo”, “Kalaputxi”, “Karkara”, “Maxixatzen”, “Noaua”, “Otamotz”, “Pil-pilean”, “Prest!”, “Txaparro”, “Txintxarri”, “UK” eta “Uztarria”.
 - Zientzia arloko, pentsamendu-eta zabalkunde-aldizkariak zein EAEz kanpoko euskal komunitateei zuzendutako euskarazko argitalpenak: “Aizu!”, “Bat”, “Bertsolari”, “Egan”, “Elhuyar”, “Entzun”, “Euskal Herriko natura”, “Jakin”, “Karmel”, “Nabarra”, “Ostiela!”, “Putz!”, “Uztaro”.
- Haur eta gazteentzako aldizkariak. Gutxi dira daudenak, bi Hegoaldekoak eta beste bi Iparraldekoak: “Pika”, “Ipurbeltz”, “Nanai” eta “Gaztetxulo”.
- Euskarazko irratia: “Antxeta Irratia”, “Arrasate Udal Irratia”, “Arrate Irratia”, “Bizkaia Irratia”, “Euskal Irratiak”, “Herri Irratia”, “Oñati Irratia”, “Segura Irratia”, “Xorroxin Irratia”.
- Euskarazko toki-telebista: “Canal Bilbao”; “Durango telebista”, “GOITB”, “Mendaroko telebista”, “Oarso telebista”, “Ttipitapa telebista”, “Urdaibai telebista” eta “Xaloe telebista”.
- Euskarazko on-line argitalpenak: “Argia”, “Bat on-line”, “Berria on-line”, “hari@ buletin elektronikoa”, “Seiberri berripaper elektronikoa” eta “Uztaro on-line”.

Bizkaiko Foru Aldundiak, halaber, euskarazko aldizkariak argitaratzen dituzten pertsona juridiko pribatuentzako deialdiaren bitartez, 16 proiektu diruz lagundu ditu. Guztira, 309.849 euro.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren esparruan euskarazko aldizkariak sustatu eta bultzatzen dituzten erakunde eta elkarteei dirulaguntzak ematen dizkie. 2003an 43 eskaera onartu dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hitzarmen bana sinatu dute Topagunea Euskara Elkartearen Federazioarekin. Izan ere, Elkarte honek zeregin garrantzitsua jokatzen du herri eta eskualdeetako gainerako euskara elkarteak eta aldizkariak koordinatzerakoan.

3. Kulturgintza, liburugintza eta literaturgintza

Literaturgintzan euskararen presentzia areagotu eta sendotzeari begira, aipatu behar **Euskal Idazleen Elkarteak** garatzen duen lana. 2003an hainbat lan garatzea hitzartu du HPSrekin (60.101,21 euro) batetik eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bestetik, besteak beste:

- *Barnegats* buletina, bazkideei Elkartearen ekimenari buruzko informazioa helarazteko
- Idazleen Aurkitegia eta Literatur Sarien Agenda, bazkideei eta gizarteari orokorrean Euskal Herriko literatur sari eta beken berri emateko.
- *Kalegats*: gizarteari literaturaren inguruko albiste esanguratsuenak helarazteko.
- *Hegats* literatur aldizkaria
- "Idazleekin solasean", hitzaldiak, literatur lantergiak eta poesia errezitaldiak " programa, literatura gizarteratzeko.
- *Komatxo artean* irratsaioa
- *Web-orria*: *EIEren ekimenen eta programen berri hedatzeko (euskal idazleen fitxak edo bio-bibliografiak, literaturaren inguruko albistegia...)*

Literaturgintzarekin jarraituz, ezinbestez aipatu behar EIZIEk kudeatzen duen **Literatura Unibertsala itzulpen-bilduma**. Lehen 100 obrak argitaratu ondoren, 50 tituluz osatzeko hitzarmena sinatu da (66.111 euro) ostera EIZIE Elkartearen eta HPSren artean. Izan ere, bilduma honek goi-mailako literatura itzulua irakurtzeko ohitura sortzen eta zabaltzen lagundu du, irakurle euskaldunari munduko kulturaren ekoizpenik garrantzitsuenetako batzuen ondarea euskararen bidez ere jasotzeko aukera eskainiz. Hitzarmen horren barruan, halaber, euskal itzulpengintza eta interpretaritzak garatzeko zein Euskal Herriko lurraldeetan aipaturiko arloetan diharduten profesionalak sustatzeko EIZIE Elkarteak antolatzen dituen jarduerak bultzatzea aurreikusten da.

Bestalde, **Labayru Ikastegia** euskara-azpiegitura estrategikoa da herri-literaturan, filologia eta literatura ikerkuntzan, lexikogintzan, herri-hizkera edota literatura landua ikertu zein gizarteratzean. Aipagarria da, besteak beste, Bizkaiko euskalkia jaso, gorde, ikertu eta gizarteratzeko egindako lana, bizkaieratik batura bidean egindakoa. Euskararen inguruko ikerkuntza, irakaskuntza eta hedapena, beti izan ditu, bere ihardunaren kezka eta jomuga nagusi: ikastaro ugari antolatzen ditu, material eta euskararen ikaskuntzarako metodo ugari sortzen eta irakasle, itzultzaile eta aditu ugariaren prestakuntza lanetan jarraitzen du. EBPNk agindutakoa betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak euskalgintzarako azpiegitura estrategiko oinarrikoenetakoa den Labayru Ikastegiari lanerako baliabide duinak eskaintzeko hitzarmena sinatu dute 2003an (237.439,10 euro), lan hauek burutzeko: literatura arloko ikerketak eta testu-atonketak; aldizkariak; hiztegia; euskararen eremuko

informatizazioa; hizkuntza eta euskal kultura arloetako aholkua; ikerketa egitasmoen ebaluaketa; euskal biblioteka; etnolinguistika.

2003an ere, urtero bezala, Gerediaga Elkartearen eskutik **Durangoko Azoka** euskal liburugintzaren erakusleho izan da, oraingoan etxe berrian.



Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesaz, liburugintzaren esparruan hainbat ekimen garatu da:

- Galtzgorri elkartearekin batera, irakurzaletasuna bultzatzeko egitaraua: liburu gaztea, idazle gaztea; liburuen altxorra; ipuinez ipuin erakusketa
- Euskaraz argitaratutako zenbait liburu, Gipuzkoako ikastetxeei dohaintza gisa banatzea, euskarazko liburugintzan ari diren argitaletxeen jarduerari sustapen eta diru laguntza bideak eman nahirik. Liburuok, halaber, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak irakurtzaletasuna sustatzeko antolatzen dituen gainerako programa eta ekitaldiak hornitzera bideratzen dira.
- Unibertsitate gaien oinarrizko euskal liburutegia osatzeko diru laguntzak.

- XX. mendeko euskal liburugintza aztertu eta katalogoa argitaratu da paperean eta euskarri elektronikoa, herritarrek ikertzaileek eta politikariek egindako lanaren berri izan dezaten eta politikak definitzeko garaian euskarri sendo bat edukitzeko.
- Koldo Mitxelenaren lan guztien edizioa: lanak bildu, gaien arabera ordenatu, txukundu, zuzendu...

Irakurzaletasunaren inguruko sentiberatze-lana egiteko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, **Xaguxarrak** kanpaina ibiltaria jarri zuen abian 2000ko maiatzean, eta 2003ko ekainaren 20an bukatu da. Kanpaina horretan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 91 ikastetxek hartu dute parte. Guztira 13.102 partaide izan dira.

Bidegileak bildumaren barruan, berriz, 2003an lau sorta kaleratu dira:

- Diasporatik euskaldunen harremanak eta euskara lantzen jardundakoak
- Gerra ondoko lehen olerkariak
- Euskara eta eusko ikaskuntzak bultzatu dituztenak
- Umeak euskaraz alfabetatzen jardundakoak



Sustapen-lerroak

Euskararen erabilera sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko **dirulaguntzak** kudeatzeko modua arautzen duen Agindua argitaratu du, urtero legez, HPSk. Horretarako, 1.210.352,00 euro banatu dira onartu diren 144 eskabideen artean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ere helburu beretsuko laguntza-lerroak dituzte. BFAk 1.298.565 euro bideratu ditu 149 proiektutarako.

Azkenik, hainbat eta hainbat dira euskarazko produktuak eta zerbitzuak euskaraz izan eta zabaltzeko ekimenak, hona hemen batzuk erakusgarri gisa:

Udal Euskaldunen Mankomunitateak Kultur elejira izeneko programa garatu du aurten ere udalerrri euskaldunenetan. Horretarako, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, ildo horretatik, *Euskal kantagintza* izeneko proiektua, Antton Abadia saria eta Mantxut egitasmoa bultzatu ditu, besteak beste.

Sentiberatzea eta publizitatea

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, publizitate-kanpaina abiarazi du 2003 urtean euskara gizartean erabiltzeak hizkuntzaren normalizazio prozesuan duen garrantzia azpimarratzeko. Aukeratu den leloa honako hau izan da **“Hitz batekin, euskara handi. Esanak esan, euskara.”** Prentsa, irrati eta telebista bidezko zabalkundeaz gain, merchandising produktuak erabili dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestalde, **“Gainerakoan egin euskaraz”** izeneko ekintza planaren bidez euskarak publizitate munduan duen erabilera maila testimoniala gainditu nahi izan du eta bide batez herritarrak euskararen erabileraren garrantziaz kontzientziatu. Bizkaiko Foru Aldundiak ere, hainbat ekimen bideratu ditu sentiberatze eta publizitate esparruan.

IX. Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzak

Ipar Euskal Herriko herri-aginteeekiko lankidetzaren protokoloa izenpetu

2003ko irailaren 3an, Eusko Jaurlaritzak eta Obragintza Publikoko erakundearen partaide diren Akitaniako Eskualdeak, Pirinio Atlantikoetako Departamentuak, Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak eta Euskal Kulturaren aldeko Herrien Elkargoak, euskara eta hizkuntza politika gaietarako elkarlan hitzarmena izenpetu dute. EBPNk eta Ipar Euskal Herriko 2001-2006 Hitzarmen Bereziak eskaintzen duten erreferentzia-markoa kontuan izanda, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Obragintza Publikoko Herrialdeko Erakundearen arteko elkarlan hitzarmenak Eusko Jaurlaritzaren eta Ipar Euskal Herriko herri-aginteen artean, euskararen gaineko hizkuntza-politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzaren ildoak zehaztea du helburu.

Pirinio Atlantikoetako Departamentuaren Baionako egoitzan izandako ekitaldian lankidetzaren hitzarmenaren izenpetzaile izan dira: Miren Azkarate, *Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua*, Alain Rousset, *Akitania Eskualdeko Kontseiluaren presidentea*, Jean-Jacques Lasserre, *Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko presidentea*, Alain Lamassoure, *Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluko presidentea* eta Vicent Bru, *Euskal Kulturaren aldeko Herrien Elkargoko presidentea*.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak eta Euskal Herriko Hitzarmen Bereziak Hizkuntza Politikaren esparruan dituzten lan-lerroak kontuan, ondoko arloetan elkarlanean jarduteko borondatea adierazi dute protokolo sinatzaileek:

➤ Euskararen ondorengoetaratzeari eta hiztunak sortzeari begira:

- Eskola bidezko euskararen ondorengoetaratzearen inguruko sentiberatzea.
- Euskarazko ikas-materialgintza ziurtatzea.
- Euskalduntze-alfabetatzean diharduten eragileen etengabeko prestakuntza eta baliabideak bideratzea.

➤ Euskararen erabilera sustatzeari begira:

- Euskararen erabilera aisialdian eta eskolaz kanpoko ekintzetan nagusiki.

➤ Euskararen elikadura sendotzeari begira:

- Euskaraz diharduten komunikabideak sustatzea.
- Interneten euskararen erabilera bultzatzea.
- Hizkuntza ondarea eta Toponimia berreskuratzea eta normalizatzea; horretarako tresnak, baliabideak, metodologia eta informazioa elkartrukatuz.

Esandako esparruak garatzen laguntzeari begira:

- Ipar Euskal Herriko Hizkuntza Kontseilua sustatzea eta Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordearen arteko elkarlana bideratzea.
- Euskararen bilakaera soziolinguistikoa hobeto ezagutzen joateko ikerketa-lerroak sustatzea eta bideratzea.
- Arlo horietan diharduten obragintzaren eta obralarien jarduna sustatzea eta eurekin lankidetzan jardutea.

Halaber, alderdi biek elkarri adieraziko dizkiote hizkuntza-politikaren esparruan bi aldeek jakingarri izan ditzaketen ekimenak, hitzarmenean jasotako arloen gainekoak izan zein beste arlo jakin batzuetakoak izan.

Protokoloaren ondorioz, 2003an gauzatua izan den lankidetz

1. Obragintza Publikoko Gidaritza Batzordeak eta HPSk irizpideak adostu hainbat proiektu bultzatzeko,

Euskal Herriko Hitzarmen Berezian finkatutako proiektu-eragileak bultzatzeko, Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza-deialdi berezia egitea erabaki zen. Horretarako hainbat irizpide adostu ziren: jardueraren aurrekontuari eta eskatutako diru-kopuruari begiratzea; derrigorrezkoa izatea oinarrizko autofinantzazio-maila (0,30) eta Ipar Euskal Herriko Obragintza Publikoaren partaidetza; Eusko Jaurlaritzaren gehieneko dirulaguntza finkatzeko kontuan izatea: Obragintza Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza ez izatea eskatutako dirulaguntza baino handiagoa eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza ez izatea Obragintza Publikoarena baino handiagoa eta azkenik, Eusko Jaurlaritzak ez ematea herena baino gehiago.

Bestalde, Euskal Herriko Hitzarmen Berezitik kanpo leudekeen proiektuak bultzatzeko Eusko Jaurlaritzak ohiko dituen bideak erabiltzea adostu da.

Horri jarraiki, 2003. urtean, MOPeke kideek 950 071 € bildu dituzte Euskal Herriko Hitzarmen Bereziko hizkuntz atalean sartuak ziren 10 ekimenetariko 9rentzat.

Eusko Jaurlaritzaren aldetik, euskararen eremu geografikoan Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo euskararen erabilera sustatzeko ekimenak garatzen dituzten erakunde pribatuentzako dirulaguntzak emateko modua arautzen duen 2003ko irailaren 3ko Agindua kaleratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (183 zk.). Horretarako, guztira, 300.500 euroko gehieneko zenbatekoa jarri da.

2. MOPEko herri erakundeen bisita Gasteizera

2003ko irailaren 24an, MOPEko ordezkari hautetsi eta teknikari batzuk Gasteizen izan dira, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako arduradunekin. Lan-bileran aztertu dira: lege-markoa; HPSren eta EABren egiturak eta Inkesta Soziolinguistikoaeren lehen emaitzak.

3. Euskal Herriko III. Soziolinguistikako Inkestaren inguruko lankidetza

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Ipar Euskal Herriko Hizkuntza Kontseiluak izenpetutako lankidetza hitzarmenari jarraiki, Ipar Euskal Herriko lagina prestatu, landa-lana egiteko inkestatzaile-taldea eratu eta datuen tratamendu informatikoa egin da. Aldi berean, Iparraldeko Hizkuntz Kontseiluak Baiona Angelu Biarritzeko hiri-aglomerazioaren erkidegoko diru-laguntzaz, gune horri egokitutako galdetegia osatu da.

4. 2003an zehar izandako bestelako ekimenak

Esan bezala, Euskal Herriko Hitzarmen Berezitik kanpo zeuden eragiketak bultzatu eta sustatzeko Eusko Jaurlaritzak ohiko dituen bideak erabiltzen jarraitzea erabaki zen. Ohiko bide horietatik barrena, Ipar Euskal Herriko erakunde publiko nahiz pribatuekin lankidetzan 2003an sustatu diren ekimenak eta egitarau zehatzak honela bil daitezke:

- *Akitania-Euskadi* Fondotik bultzatutako ekimenak: 2003ko Akitania-Euskadi deialdira 84 ekimen aurkeztu dira, eta horietatik 56 onartu, hau da %66,7. Deialdiak banatutako diru-laguntzak, guztira, 781.316 euroko zenbatekoa izan dute. Aurkeztutako proiektuen artean, batzuek zuten helburu, besteak beste, euskararen eta euskal kulturaren sustapena eta zabalkuntza. Komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskarazko komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko laguntza-deialdiaren bitartez, Iparraldeko lau proiektu lagundu dira 2003. urtean eta guztirako diru-laguntzak 131.425 euro izan dira.
- *Kultura Sailaren HPSren deialdien bidez sustatutako proiektuak*: Euskaingintza deialdia, Komunikabideen deialdia, Teknologia berrien deialdia: Euskaingintza deialdiaren bidez, Iparraldeko zazpi proiektu lagundu dira, eta guztirako diru-laguntzak 63.278 euro izan dira. Teknologia Berrien deialdira ez da aurkeztu Ipar Euskal Herriko proiekturik.
- *Hitzarmen berezitik kanpo, MOPEko instituzioek bultzatutako proiektuak*: Seaska, Ikas Bi (gurasoak), Euskal Haziak (gurasoak), Pika aldizkaria, Gure Irratia, Xiberoko Botza, Irulegiko Irratia, Herria, Gatuzain, Ikas (EHHBtik kanpo).

- *MOP-GIPen berri ematea : Office Public de Politique Linguistique:* Obragintza Publikoan partaide diren erakundeek erabaki dute hizkuntza-politikan eskumena izango duen izaera publikoko erakundea sortzea. Kideak: Frantziako Estatuak, Eskualdea, Departamendua, EKAHE eta Euskal Herriko hautetsien Kontseilua. Erakunde publiko honen eginkizuna euskararen alde eraman beharreko hizkuntz politika aztertzea izanen da, eta honen abian jartzeko diru baliabideak biltzea. Antolakuntza honek Euskal Autonomi Erkidegoaren eta MOPEko erakundeen arteko lankidetzak aukera berriak eskainiko ditu, dudarik gabe.
- *Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Euskal Kultur Erakundearen arteko elkarlan hitzarmena 2003. urterako:* Hitzarmenaren bitartez, Jaurlaritzak EKEren kultur-jarduera diruz babesteko konpromisoa hartzen du. Helburu bikoitza du: euskara eta euskal kultura sustatzea, eta Euskal Herriko Iparraldeko eta Hegoaldeko kultur eragileen lana elkarlotzea. Jaurlaritzak 30.000 euro jarri ditu.



- *Eusko Jaurlaritzaren eta Iparraldeko Ikastolen Elkartearen (Seaska) arteko hitzarmena:* Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu du 2003an SEASKAren etorkizunean ere euskara eta euskal kultura sustatzen eta zabaltzen jarraitu ahal izan dezan. Eusko Jaurlaritzak SEASKAren jarduerari eusteko, 805.566,00 € jarri ditu 2003an. Ekarpen hori oso-osorik erabiliko da lehen eskolako (3 eta 11 urte bitarteko haurrak) hezkuntzaren funtzionamendugastueterako, hizkuntza-murgilketaren eredia ezartzeko egituren gastueterako, eta ikastetxeak artatu eta zaharberritzeko finantza-gastueterako.
- *Donapaleuko Jakin Gela:* 2003ko irailean jarri da abian. Bertan, hainbat baliabide eskaintzen dira Euskal Herriaz eta euskaraz informazioa eskuratzeko, eta, horrekin batera, euskara ikasteko. Jakin Gela Donapaleuko frantziskotarren etxean dago kokatuta (Santiagorako bidean, Euskal Herrian Zuberotik sartu eta erromesentzako lehenengo aterpetxea da).

Nafarroarekiko lankidetza

Aipatu behar oraintsu arte Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginteekin elkarlanean garatzen ziren hainbat proiektutan egoteari utzi diola Nafarroako Gobernuak: Euskaltzaindiaren hitzarmena; Inkesta Soziolinguistikoa; lexikologia- eta terminologia-lanak euskaraz egiteko UZEIrekin sinatu ohi zen lankidetza-markoa (1999); nazioarteko hizkuntza-erakusketak (Expolangues, Expolingua).

Nolanahi ere, zenbait proiektu garatu dira Nafarroako hainbat eragilerekin elkarlanean:

Nafarroako ikastolekiko lankidetza: Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu du 2003an Nafarroako Ikastolen Federazioarekin irakaskuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna ziurtatzeko behar diren azpiegiturak eraiki, artatu eta zaharberritzeko (1.120.310,40 €)

Euskal Kultur Elkargoaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko hitzarmena, Nafarroan euskara biziberritzeko hainbat jardun-lerro garatzeko.

X. Kanpoko proiektzioa

Europako Kontseilua: Eurokarta

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna (EEUHEG) 1998ko martxoaren 1ean jarri zen indarrean bost Estatu kideren berrespena jaso ondoren, 19. artikulua arabera ezinbesteko baldintza eraginkortasuna bermatzeko.

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak Estatu kide bakoitzean nola aplikatzen den ebaluatzeko kontrol-tresna bat eskaintzen du eta honen helburua Estatu horretako legeak, politika eta praktikak hobetzen lagunduko duten gomendioak ematea da, beharrezkoak badira.

Estatu kideek, Europako Kontseiluak eta, oro har, jendeak tresnaren honako lau elementuen bidez jarrai eta ikus dezakete Gutuna nola aplikatzen den: estatuak aldizka aurkezten dituzten txostenen bidez; Adituen Batzordearen lanaren eta horren txostenen bidez; Ministroen Batzordeak emandako gomendioen bidez eta Parlamentuaren kontrolaren bidez.

Espainiak 1992ko azaroaren 5ean sinatu zuen EEUHEG eta 2001eko apirilaren 9an berretsi zuen. Gutuna 2001eko abuztuaren 1ean jarri zen indarrean Espainian. Gutuna indarrean jarri eta hurrengo urtean aurkeztu zuen Espainiak lehen txostena, eta egindako politika eta hartutako neurriak zehaztu ziren bertan, Gutuna berrestearekin onartu zituen III. parteko xedapenak aplikatuz. Txosten hori egiteko unean Espainiako Gobernuak ez die lankidetzarik eskatu autonomia-erkidego elebidunetan hizkuntza-politikaren arloan eskumenak dituzten organoei.

Txostena egiteko prozesuan autonomia-erkidegoek parte hartu ez dutenez, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere iritzia eman nahi izan du Espainiak arlo honetan egindako politikaren inguruan eta gaztelania ez baina bertakoak diren beste hizkuntzetako hiztunen egoerari buruz.

Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2003ko irailaren 11n “Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna Espainian aplikatzeari buruzko oharrak” izeneko txostena aurkeztu zion Estrasburgon Europako Kontseiluari. Bere garaian Euskararen Aholku Batzordeari ere aurkeztu zitzaion dokumentuan lau alderdi horiek lantzen dira:

- lehenik, Espainian gaztelania ez beste hizkuntza ofizialek, eta, batez ere, euskarak, bizi duten egoerari buruz Estatuko Txostenean aurkeztutako ikuspegia osatu, zehaztu edo aberastu egiten da.;
- bigarren, Espainiak burututako politikaren ildoak laburtu eta baloratzen dira;
- hirugarren, EEUHEG berresteak dakartzan betebeharrak zenbateraino bete diren aztertu eta, gainera, oraindik bete gabe dauden konpromisoak eta Gutunaren espirituarekin kontraesanetan hartu diren neurriak berrikusten dira;
- eta, azkenik, hausnarketa horretatik ateratako ondorioak aurkezten dira.

Eusko Jaurlaritzaz gain Nafarroako Euskal Kultur Erakundeak, Kontseiluak eta EBLULEk txosten bana prestatu eta aurkeztu dute. Bukatzeko, Europako Kontseiluko aditu-taldeak bisita egin du Euskal Herrira (2004) in situ ezagutzeko egoera.

Lektoregoak

2003-2004an honako ekimen hauek garatu dira:

- Montevideon: “Euskara eta euskal kultura” izeneko programa. Euskal Herritik joandako irakaslea da programaren arduraduna. Euskara sustatzeko zuzendaritzak ordaindu ditu programak sortarazitako diru-kostuak (irakaslearen joan-etorria eta soldata) eta HABE-k aholkularitza didaktikoa eman.
- Txilen: “Euskara eta euskal kultura” izeneko programa. Euskal Herritik joandako irakaslea da programaren arduraduna. Euskara sustatzeko zuzendaritzak ordaindu ditu programak sortarazitako diru-kostuak (irakaslearen joan-etorria eta soldata) eta HABE-k aholkularitza didaktikoa eman.
- Bestalde, Pragan, Varsovian, Helsinkin, Berlinen eta Valencian 2004-2005 ikasturtean lektoregoak izateko lehen urratsak eman dira. Londonen eta Alemanian ere euskarako eskolak jarri nahi dira abian 2004an..
- Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak ere, Poznaneko Unibertsitatean euskara-lektoregoa sustatzen du.

Quebeceko Gobernuarekiko eta Kataluniako Generalitatearekiko elkarlana

1999ko abenduan Eusko Jaurlaritzak eta Québeceko Gobernuak sinatutako hitzarmenaren garapenean, eta 2002an izandako lan-jardunen eta Québeceko Gobernuak, Kataluniako Generalitatek eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean gauzatutako ikerketen ondorio gisa, bi ekimen gauzatu dira 2003an.

- 2003ko apirilean Nazioarteko Jardunaldiak antolatu dira Québecen, esparru sozioekonomikoko eta, bereziki, enpresa handietako hizkuntza-erabileraz.
- Bestalde, 2003ko urrian, Terminologiaren inguruko ikerketa-bisita egin da Québecera.

Azokak

Urtero legez, euskarak tokia izan du nazioarte mailako azoketan: Parisen, Berlinen, Madrilen eta Lisboan.

Euskararen Nazioarteko Eguna

2003ko Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zen “Euskara mundu guztien esku” lelopean. Ekitaldiaren ardatza euskararen aurpegi desberdinak erakustea izan zen: euskara batua, euskalkiak, euskal hiztunak Euskal Herrian (bertan jaiok, beste lurralde batzuetatik etorritakoak), euskal hiztunak Euskal Herritik at.

Euskararen Eguna

abenduaren 3a

Euskara plazara

Lurbira honetako izaki orok baditu bere adierazpideak. Baina hitza, hizkuntza, gizakiak baino ez. Eta gizakiok hizkuntzaren bidez iristen gara heldutasunera. Gizakiok sortzen dugu hizkuntza eta hizkuntzak egiten gaitu gizon eta emakume.

Gure aurreko euskaldunek euskara sortu zuten elkar ulertzeko eta elkarri beren sentimenduak eta premiak agertzeko. Eta, ahoz aho, belaunez belaur, gureganaino helarazten jakin dute. Eskerrak, beraz, gure aurreko eta gaurko guraso, irakasle eta herritar guztiei antzinako eta, era berean, etorkizuneko hizkuntza horren jabe egin gaituztelako. Geure ardura da, orain, kateari eustea, hartu dugun ondare hori gure ondorengoengana hel dadin.

Hala eta guztiz, egunero bizi, garatu, birsortu eta hazten ez den hizkuntza zaharkitu, gaixotu eta hil egin ohi da. Euskarak mendeetan zehar iraun du hizkuntza gutxiagotu gisa, hitz egiten zekitenak, asko zein gutxi izan, hainbat erabilera-eremutan erabiltzeko inolako aukerarik izan ez arren, beste batzuetan, ordea, familian eta lagunartean, batez ere, guztiz nagusi zelako.

Orain gero eta gehiago dira hitz egiten dakitenak, eta erabiltzen dutenak ere bai; inoiz erabili izan ez den hainbat esparru ere irabazten ari da. Gaur egun, lehen ez bezala, guraso gutxi geratzen dira euskaraz jakin eta seme-alabei irakasten ez dietenak. Euskara, lehen kanpotik hain gaitzetsia eta bertakoek hain utzia, biziberritzen ari da, eskolari, helduen euskalduntze-alfabetatzeari eta eremu publikotik nahiz pribatutik euskalgintza dihardutenei esker.

Hala ere, lurralde guztietan euskara ez da berdin suspertu, hedatu eta biziberritu. Ofiziala ez den Nafarroako lur barrutian gubiago. Iparraldean, berriz, orain arte euskaldunak izan diren herrietan ere, atzerakada beldurgarria izan du urte gutxian. Baina, hodei beltzen artean beti soma daiteke, han eta hemen, hartan eta hortan, eguzki-argi izpiren bat. Ez baita berez hilkor den hizkuntzarik, ezta hilezkor denik ere.

Beraz, aldeak daude lurralde batetik bestera. Askotariko egoera horrek erakusten digu, hain zuzen, gure urratsen nondik norakoa; seguruenik, tokian tokiko lehenetasun-helburuak, malgutasunez eta adostasunez, ondo finkatzen asmatzeko ekarriko digu euskarak aurrera egitea, datozen urteotan.

Euskarak hitzun osoak irabazten jarraitu behar du familia bidez, eskolan euskaraz ikasiz edota helduaroan euskararen jabe eginez. Horri lotuta, azken urteotan gure herrira bizimodu berri baten bila etorritako lagunak ere euskararako irabazten asmatu behar dugu. Lehenetasuneko da Iparraldean eta Nafarroako lurralde osoan euskarari ofizialtasuna aitortzea, besteak beste, seme-alabak euskaraz hezi nahi dituzten gurasoek bermatuta izan dezaten aukera hori. Azkenik, premiazkoa da euskal hitzunen hizkuntza-gaitasuna sendotzeko eta esparru guztietan euskaraz aritu ahal izateko euskarazko produktu eta zerbitzu erakargarriak eta erabilgarriak denon eskura jartzeko eta horien kontsumoa bultzatzeko urratsak areagotzea.

Izan ere, euskara komunikazio-tresna bizia da, eguneroko bizitzarako balio digun komunikazio-tresna, erabiliz hobetzen dena.

Horretarako, Euskal Herriko hizkuntza den euskarak babesa, laguntza eta lanerako giroa behar ditu legeen, agintarien eta era guztietako baliabideen aldetik. Euskara eta euskalgintza susmopean jartzeko azken boladan bizi izan ditugun zenbaiten ahaleginek aurrera begira jartzeko balio behar digute, eta ez gure aniztasuna errespetatuta lortu ditugun adostasunak apurtzeko. Euskal gizarteak erakutsi du, orain artean, euskararen alde egiteko kemena baduela. Aurrerantzean ere, hemen bizi garenon arreta, ardura, atxikimendua eta eikarriana beharrezkoak ditugu. Horretan jartzeko deia zabaldu nahi die Euskararen Aholku Batzordeak herritar guztiei Euskararen Eguna den honetan.

Euskararen Aholku Batzordea

Donostian, 2003ko abenduaren 3an, Euskararen Egunean



Ahoz aho, belaunez belaur, kateari eutsiz



Bizi dadin, hazi dadin... euskaraz egin

XII. Lege garapena

2003ko abenduaren 31z geroztik indarrean da 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena. VII. Kapituluari Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak finkatzen ditu, eta erakunde publikoei nahiz diruz lagundutako erakunde eta interes orokorreko sektoreei horiekiko betebeharrak jakin batzuk finkatzen dizkie. Horrenbestez, Euskararen Erabilpena Arauzkotzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeari jarraiki, Autonomia Erkidegoan dauden bi hizkuntza ofizialetako bata zein bestea erabiltzeko eskubidea aitortzeaz gainera, euskara –berariaz progresibotasun-printzipioari jarraituz– sustatzeko asmoa ere agertzen du.

Lege honek, beraz, markoa ezartzen du, eta, orain, erregelamenduen bidez garatzen joan beharko da, arian-arian, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideen alde egiteko eta horiek babesteko.